

ttipi-ttapa



BAZTERRAK MOZORROZ BETETZEKO AROA

Hasi da eskualdeko mozerro besta. Aniz eta Eratsun izan dira eskualdeko inauterien lekuko hartu duten lehenbizikoak, eta hemendik aitzinera, bai ilbeltz hondarrean, baita otsailean sartuta ere, mozerro bestak ez du etenik izanen. / 31

VALLEDEBAZTAN.COM

Biztanleriak goiti egin du

Orokorrean igo egin da eskualdeko biztanleria, baina datuak udalerrira hartuta, gehiago dira beheiti egin dutenak. / 10

SINADURAK



ZOKKETA / 68



Begoña Durruti
ilustratzaileak bere
lanen errepassoa
egin du / 7



Yoni Salaberria
goizuetarrak bere
lehenbiziko diskoa
kaleratu du / 45



Joseba Aldabe
Igantzikoko pilotari
profesionalarekin
solasean / 58

BERA

LESAKA

Agenda

2024

URTARRILA
OTSAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

URTARRILA

25 ORTZOGUNA
SOLASALDIA EUSKARAREN EGOERA GAUR EGUN, ZER DIOTE DATUEK?
IRAKI LURRERASO **BERA**
19:00 Beralandeta
Antolatzailea Bartziletako Bankara Mankomunitatea

26 ORTZIRALEA
KOMIKI BILDUMAREN AURKEZPENA HONA BOSTEKDA! GEURETK SORTUAK
BERA
18:00 Beralandeta

27 LARUNBATA
NAFARROAKO X. TRIKI JAIALDIA
LESKA
17:30 Hiriardoa Kultur Etxea

EMANALDIAK MUSIKA ESKOLA
Urt. 29 Astelehena Perkusio entzunaldia 18:00 Musika Eskola
Ots. 5 Astelehena Klarinete-saxo entzunaldia 18:00 Musika Eskola
Ots. 6 Asteartea Trikitixa entzunaldia 18:00 Musika Eskola
Ots. 7 Asteazkena Inauterietako kontzertua 18:00 Kultur Etxea
Antolatzailea Iñidero Fagoaga Tbil Musika Eskola

31 ASTEAZKENA
LESKA
18:30 Lesakako Liburutegia

OTSAILA

3 LARUNBATA
PIANO EMANALDIA PASCUAL ALDAVE JAOTZAREN MENDUGERENA 1924-2024
LESKA
19:00 Hiriardoa Kultur Etxea Sarrera 8€ www.lesaka.eus-en

3 LARUNBATA
KALDEREROAK
19:00 Iñekustatik herriko etxeko plazara Itakidea (Iñerria - Altsas - Leja - Zahar etxea - Etxepare - Itakobidea - Etxepare - Beldua karrika - San Geronimo karrika - Herriko etxea (Iñerri) buru egiten per. Altsasiko plataldean)

INAUTERIAK 2024 BERAKO INAUTERIAK
OTSAILAREN 8TIK 12RA
Ots. 8 - Ortzegun Gizona **BERA**
Ots. 11 - Inudeak eta Artzaiak
Ots. 12 - Inauterietako astelehena

INAUTERIAK 2024 LESAKAKO INAUTERIAK
OTSAILAREN 8TIK 13RA
Ots. 8 - Arrasalte Arrasalte
Ots. 11 - Sako-Zahar-Mairuak, Goitarrak
Ots. 12 - Muzurroak, Fraindarrak
Ots. 13 - Fraindarrak **LESKA**

17 LARUNBATA
ANTZERKIA OLAGARRUA
ANTZERKI ARLOAK KONPAINA **BERA**
19:00 Kultur etxea

OTSAILAREN 17 TIK MARTXOAREN **24** RA
ESKULTURA ERAKUSKETA PELLO ULAZIA
16:00-20:00 larunbat eta igandean ikastolako areto nagusia
Antolatzailea Labiaga Ikastola **BERA**

25 IGANDEA
ANTZERKIA EUSKALYPTUS
JON ANDER URRESTI - GEURETK SORTUAK
18:00 Hiriardoa Kultur Etxea

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN
baiza azterketa egiterakoan CIESek Nafarroa Garaiko mendaldean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

TIPI-TTAPA'
22000 inonole

DIARIO DE LA VARRA'
5000 inonole

DIARIO BENEFICIOS'
9000 inonole

GARA'
4000 inonole

BERRIA'
4000 inonole

NOTIZIA BARRIO'
3000 inonole

IKASKETA MAILAREN ARABERA

ONARRIZKO BATZILENGEA % 11,5
ONARRIZKO IKASKETA % 19,1
UNIBERTSITATEA % 29,2
GDI MAILAKO BATZILENGEA % 40,1

ADINAREN ARABERA

14-19 % 6,1
20-24 % 6,7
25-34 % 12,5
35-44 % 14,5
45-54 % 20,4
55-64 % 14,9
65 % 24,8

SEXUAREN ARABERA

% 54
EMAKUMEAK

% 46
GIZONAK

DATU ITURRIA: CIES, 2023ko metatuak



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

Iraultzak eta tortilla prefabrikatua

Kontraesan bezateak gaude, ez nator gaur ezer berria kontatzera. Mundua eraldatu nahi, eta norbere kontraesanak ahal bezala kudeatzen bukatzen dugu maiz. Iraultza norberarengan hasten dela diote batzuek. Besteek, berriz, hautu indibidualek ez dutela askorik balio, jendartearen eraldaketa zabal eta kolektiborik ez badago. Zer esanen dut ba nik... bata bestearekin uztartzen saia gaitezkeela, agian? Talde mugatu batek aldaketa txikiak egiteak, bere horretan, ez du mundu aldrebes honen ordena irauliko segur aski. Baina, are zailagoa zait sinestea sistemaren tentakulu diren tresnak erabiliz irauliko dugunik ezer. Alegia, Taiwango adingabeek esklabotza egoeran josi dituzten arropetan mezu feminista potenteak serigrafia-tzeak, edo, inguruan maiz ikusten dudan Amazoneko furgonetatik ateratako spray-arekin kapitalismoaren kontrako pintaketak egiteak, kalte baino gehiago, mesede egiten diola salatu eta irauli nahi dugun horri. Tortillari buelta eman nahi badiogu, izan dadila bizilagunaren osagaiekin mimo prestaturakoari, eta ez plastikoan bildutako Carrefourreko prefabrikatuari, ezta? A, eta bide batez... Israeli boikot.

«**SISTEMAREN
TRESNAK ERABILIZ
EZ DUGU EZER
IRAULIKO»**




EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Biluztasun debekatuak

Zail izanen lukete gaur egun Michelangelok bere *David* edo Goyak bere *Maja biluzia* ikusarazteko. Antzezlanaren debekatu berri dute aktoreak barruko arropen taularatzaren direlako. Telebistan ere, zenbatez errazagoa den tirokatuak, ukabilez kolpatuak, odolez ziprindutako zaurituak edo hildakoak ikustea titiburu bat edo ipur-masail bat agertzea baino.

NABARMENTZEKOAK



**YONI
SALABERRIA**
MUSIKARIA

Yoni Salaberria Zabala Goizuetako musikariak *Azeriak* izeneko bere lehen diskoa kaleratu du berriki RIG3L izenpean. Trap estiloko musika landu du bertan.



**SAIOA
SAN MIGUEL**
LASTERKARIA

Sasoi bikainean segitzen du Doneztebeko Saioa San Miguelek. Espainiako Txapelketara sailkatu da 800 metrotan, eta Nafarroako krosetako txapela irabazi du 20 urtez azpikoetan.

GIBELERA BEGIRA



2014-01-23 · TTIPI-TTAPA · 606 zk.

Asier Olaizola pilotariari omenaldia

Duela 16 urte Asier Olaizola pilotariari omenaldia egin zioten Goizuetan, bere sorterrian. 17 urtez punta-puntako pilotari profesional izan ondotik, profesionaleko ibilbidea bukatu zuen Olaizolak, nahiz eta Garferekin segitu zuen pilotan bertze denboraldi batez. Umore Onak antolatu zuten ekitaldia, eta 600 lagun bildu ziren frontoian. Unai Mirandak Umore Onaren izenean, Izaskun Bakerok udalaren izenean eta Iñigo Apezteak quadrellaren izenean eman zizkieten oroigarriak. Senitartekoek agurra dantzatu zioten, eta iloba eta seme-alabak ageri diren erretratu bat eman zizkieten. Ondotik, arratsaldea borobiltzeko pilota partida jokatu zuen Unai Apeztegia lagun zuela, Iñaki Otxandorenaren eta Juantxo Kokaren kontra.

erran.
eus

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantza
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Mailalen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 47€
Leitza 40€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 110€
Amerika eta Australia 155€



KOLABORAZIOAK

JOAN MARI BELOKI KORTEXARENA

Europa 2024

Europako Batasuneko hauteskundeak izanen dira ekainean. Errusiakoak martxoan, Putin garaile aurreikusten delarik. Martxoan Ukrainan egitekoak ziren, baina Zelenskik bertan behera utzi ditu. Aurten berri interesgarri ugari izanen da Europan.

EBz mintzatzerakoan, proiektua Europako mendebaldeko elite ekonomikoek abiarazi zutela ekarri beharko dugu gogora lehenik, herritarrok sorreran parte hartzeko aukerarik izan ez genuela. Azken batez, aberatsak aberatsago izateko eta justu zebiltzan herritarrek eskasago geratzeko. Europa bidezkoago bat eraiki nahi dugunok arreta langile eta herritar xumeen ekonomiak suspertzen jarri beharko genuke.

Ultraeskuina indartzen ari den garaiotan, ezkerreko erreferentzia bizkorrak falta zaizkie herritarrei. Hutsune horregatik, hain zuzen, ari da suspertzen eskuin muturra. Arlo horretan abertzaleek motor lana egin dezakegu, Irlanda, Katalunia eta gainerako herri eta herrialdeetako mugimendu eraldatzaileekin elkartuta. Kontinenteko herri eta herrialde guztien arteko harremanak estutzeko ahalegina egin beharko genuke, Lisboatik Moskuraino.

Halaber, kolonialismo guztiak errefusatuko ditugu. Frantziaren ordezkariak bidali dituzten Burkina-Faso eta Maliri babes osoa eskainiko diegu. Bide beretik, Ukrainan bake prozesuaren

«ERRUSIAREKIN HARREMANAK BERRESKURATU BEHAR GENITUZKE»

ordez guda indartzen duten Britainia Handia bezalako herrialdeak gogor salatuko ditugu. Sahara ere gogoan izanen dugu.

Europak politika autonomoa egiten hasi beharko luke, menpekotasuna gaindituz.

AEBen morroi izateak ekonomikoki ahul eta geopolitikoan genozidei lotuta utzi gaitu. Menpekotasunak hondamendira garamatza. Betidanik gatazka nagusia izan den herritarren klaseen artekoa (aberatsa-pobrea) gaur egun itxura berria hartzen ari da eta herrialdeen arteko gatazkarena (hegemonikoa-menpekota) hartzen ari da.

EBk zergatik hartu du Errusia etsaitzat? 1945ean Hitlerrekin amaitu zuen, II. Mundu Gerraren bukaera eraginez. Petrolio eta gasak merke saldu dizkigu eta horrek ekarri du Europako mendebaldeak izan duen gorakada ekonomikoa. Eta egin dizkigun mesedeak ahaztuta, zigor larriak jarri dizkiogu. Neurri hauek europarroi bizia garestitzea ekarri digu. Nork azal diezaguke halako kirtenkeriaren onura? Errusia, kontinentearen zatia den heinean, Europako instituzio guztietan hartu beharko luke parte, zigorretatik libre. Eta bake giroa errazteko, NATOrik gabeko Ukraina ziurtatu beharko genuke.

NATOk Putin Gobernutik kendu nahi zuen eta Errusiako Federazioa zatitu. Horretarako antolatu zuen gudak Ukraina xehatu du, energia garestitu digu, europarrok zatitu egin gaitu, Donbassko genozidioa areagotu du... Eta hori dena gutxi balitz, Ukraina berreraikitzea kostako diren ehunka mila milioi euroak EBko biztanleok ordaindu beharko ditugu. Besteak beste, TTIPI-TTAPAREN irakurleok.

Hausnarketa osoa hemen: <https://blogak.eus/euskal-herritik>



MARKEL ADIN BIDEGAIN

Amazon vs Kaxkamelon

Zanguuko leihatilan ikusi dituzu oinetako batzuk, ikaragarri gustatu zaizkizunak, baina pentsatzen jarri zara, eta okurritu zaizu Amazonen begiratzea eta... Hara! Badira iduritsuak, eta gainera, merkeago. 'Karroan' sartu duzu, eta esperatuko duzu, ea bertze zerbait ikusten duzun.

Fantxiketik pasa, eta ikusi duzu leopardo estanpatua duen bainujantzi bat, baina hurrengoa pentsatu duzu: «Amazonen begiratu eta ziur bainujantzi iduritsua dagoela, eta gainera merkeago, zapatilak bezala».

Kaxkamelonen ere ikusi duzu egurrezko jostailu bat, baina pentsatu duzu, Amazonen izanen dela jostailu bera, eta gainera koloretakoa. Amazonen webgunean sartu, eta ikusi duzu badagoela, baina plastikozkoa da. Zeure baitan pentsatu duzu berdin duela plastikozkoa izatea, jostailuaren forma berbera baitu, eta gainera, kolore bitxiagoak ditu plastikozkoak egurrezkoak baino.

Finean, nahiago izan duzu multinazional bakarrean diru guztia utzi, bizilagunen dendetan gastatu baino. Nahiago izan duzu 16 ordu baldintza kaxkarretan diharduen garraiolariak etxera ekartzea zuk zerorrek hartu baino. Nahiago izan duzu bertze hiru enpresen jabe den Jeff Bezos multimilionarioa diruz lagundu, Enkarna, Maider edo Maria

«ALIMALEKO ASTAKARIA EGIN DUZU, BAINA BERDIN ZAIZU»

herritarrek baino. Nahiago izan duzu kapitalismoa eraiki, hura suntsitu baino.

Alimaleko astakeria egin duzu, baina berdin zaizu. Fantxike, Kaxkamelon edota Zangue hetsiko den egunean «ze pena» pentsatzerat eta

erraterat ausartuko zara, inongo lotsarik ez errukirik sentitu gabe, eta zu izan zara hori eragin duzuna. Zeurea bezalako ekintzen ondorioz desagerrarazten baitira herrietako denda ttipiak.

Akitzeko, Eguberriak pasatu berri diren honetan, zenbat, non eta zertan gastatu duzun hausnartzea proposatu nahiko nizuke, autokritika egin eta ohitura horiek aldatzera gonbidatzearekin batera.

11 GALDERA LABUR

AITOR ARTOLA ALDUNTZIN ARESOKO GAZTEA

«Inauteriak aitzakia ederra dira elkartzeko»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

23 urteko gazte bat naiz. Denetarik egitea gustatzen zait, baina batez ere mendira joatea, zinema eta parranda ditut gustuko.

Mendia aipatu duzu. Zein duzu gustukoena?

Ulizar da nire mendirik gustukoena. Etxetik bertan dagoelako eta bista politak dauzkalako.

Inauterizalea zara?

Ez bereziki, baina Areso eta Leitzakoak gustuko ditut giro berezia izaten delako.

Baduzu inauteriei lotutako oroitzen berezirik?

Burura etortzen zaidana hamahiru urte nituela Leitzako klasekoekin militarrez jantzi, poligonora joan eta kontrola

jarri genuenokoa da. Kotxeak gelditu eta paperak eskatuz ibili ginen.

Nola bizi dituzu Aresoko inauteriak?

Umea nintzenean guraso elkartzeko karrozaren gainean ibiltzen nintzen eta oso ongi pasatzen nuen. Orain, berriz, Lagunartekoekin eskean ibiliz ere espezial.

Zerk egiten ditu berezi Aresoko inauteriak?

Herriko gazteak elkarrekin erlacionatzeko garai ona izaten da. Gaur egun bakoitzak leku baten ikasi edo lan egiten du eta asteburu normal batean denak elkartzea zaila izaten da. Inauteriak aitzakia ederra dira elkartzeko.

Eskean, zenbat laguneko kuadrilla ibiltzen zarete?



Azken urteetan 15-20 pertsona inguru izaten gara eta giro oso atsegina sortzen da.

Zenbat baserritara joaten zarete?

Urtero buelta bera eginagatik aldatu egiten da kopurua. Lehengo urtean zazpi baserritan ireki ziguten atea.

Adin guztietako herritarrekin egoteko aitzakia polita izan daiteke.

Bai, bestela harremanik ez dugun herritarrekin elkartzeko gara egun horretan.

Lan pixka bat egitea ere tokatzen zaizue...

Bai, guraso elkarteak eta Lagunartekoekin antolatzen ditugu inauteriak. Larunbateko herri afariaren ardura guk dugu, baina beste herritarren laguntza ere izaten dugu. Horrela, lan egin behar bada ere, lanean giro ona izaten da.

Gogorra izaten da inauterien ondorena?

Oso gogorra. Igandean astelehen latzarekin esnatzen gara eta soziedadea garbitu behar dela gogoratzea mortala izaten da.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Euskara maite ez zuten epaileak

GERMAN GORRAIZ

Gobernu zentralak Konstituzio Auzitegian errekurtsio sistematikoa aplikatzeak, indarrean dagoen Konstituzioaren 161.2 artikuluan oinarrituta, hau dio: «Gobernu zentralak autonomia erkidegoetako organoek hartutako xedapen eta ebazpenen aurka egin ahal izanen du Konstituzio Auzitegian», eta horrek de facto ekarri du Euskadiko eta Nafarroako Foru Ganberen legegintza eskumenak edukiz hustea.

Neurri murriztaile horien ondorioz, bi Erkidegoak debalututa, lotuta eta Gobernu Zentralak edo txandakako Konstituzio Auzitegiak agindutakoaren mende egonen lirarteke. Hala, Konstituzio Auzitegiak aurrerari bat ezarri zuen «toki erakundeen legeak jasotzen zuen euskararen lehentasunezko erabilera» Konstituzioaren aurkakotzat jotzean.

Doktrina horren babesean, EAEko Auzitegi Nagusiak euskara argi eta garbi murrizten duten 20 epai baino gehiago eman zituen, eta bertan behera utzi zuen Barakaldoko Udalak kontratatutako enpresa batek «hurbileko kultura zerbitzuak» ematen dituzten 26 langileei ezarritako euskararen ezagutzaren baldintza, baita Irungo Udaltzaingoaren deialdi publikoko hizkuntza eskakizunaren baldintza baliogabetu ere, euskararen nahitaezko ezagutza baldintza «diskriminatzailea» dela iritzi.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, Behatokiak eta Kontseiluak «erabaki politiko» gisa salatu dituzte erabaki horiek, eta EAEn Euskararen 10/1982 Oinarrizko Legearekin aplikatutako eredu uniformista garatzea eragoztearen lukete helburu, «lurralde osoko euskalduntze gidatua» lortzeko. Hori dela eta, Euskalgintzaren Kontseiluak manifestazioa deitu zuen Bilbon, «euskararen aurkako olatu erreakzioarioaren» aurka protesta egiteko, eta 60.000 pertsona inguru bildu ziren.

Hala ere, manifestazio horren ondotik, Donostiako Administrazioarekiko Auzitegiak 3 zenbakiko Epaitegiak eman duen epaian, Udaltzaingoaren enplegu deialdia baliogabetzat jo da, eta, epai horren arabera, lanpostuan sartzeko euskarazko B2 hizkuntza eskakizuna izatea eskatzen zen, errekurtsio hori «diskriminatzailea» dela iritzi.

Nafarroan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak doktrina ezarri zuen 2019an, «eremu mistoan eta ez-euskaldunean euskara merituz hartzea baliogabetzen zuen, neurritz kanpokoa eta diskriminatzailea zela argudiatuta». Epai horren babesean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak, Navarra Sumak eskatuta, ebatzi zuen «Antsoaingo Udalean euskarak ez duela merezimendu gisa puntuatzen baldintza ez den lanpostuetan, eta meritua izan daitekeela zentzuzkoa eta proportzionala den lanpostu jakin batzuetan».

BOTA BERTSOA



JON ALDABE ERDOZAIN
DONEZTEBEKO BERTSOLARIA

Hormak haustea

Doinua: Beste bateko inularretan

*Garai berriek dute lehengo
zapora hagitz mingotsa.
Gazako hildakoak gogoan
uzkurtuta dut bihotza.
Aske izan behar lukeen herrian
milaka haurren hilotza.
Gurean aske bizi al gara?
Askatasun hankamotza.
Heteropatriarkatuaren
aiztoa beti zorrotza.
'Marikoi', 'feminazi' irainek
dute oraindik asotsa.
Batzuek inpunitatea 'ta
besteek preso ahotsa.*

*Hormak dirudienean hauskaizta,
astunegia da traba.
Arrail txiki bat hasiko da inoiz,
geldiezin, sigi-saga.
Arrailez arrail saretuko da
aldaketen matxinada.
Hetero-arau ta inertzia zaharren
muinean haginkada.
Dantzan nahi ez gaituzten plazetan
harro ateraz dantzara.
Horma guztiak apurtu arte
ostikadaz ostikada.
Benetan berri diren garaien
testigu izango al gara?*

Era berean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliogabetu egin zuen Zizur Nagusiko Udaleko plantilla organikoan idazkaritza, gazteria teknikari eta obretako langile lanpostuetarako euskara jakiteko eskakizuna, eta, haren ustez, «lanpostu elebidunak arrazoizkotasun-eta proportzionaltasun irizpideen arabera ezarri behar dira». Hala ere, epaitegi horrek alde batera utziko zukeen administrazioko postu kontaezinetarako ingelesa, alemana eta frantsesa merezimenduz hartzen direla, eta lanpostuaren azterketa espezifikorik egin beharrik gabe; beraz, epaia «erabaki

ideologikoa» litzatekeela ondoriozta daiteke.

Euskararen aurkako gurutzada deuseztatzeko, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Foru Aldundia «gauzatutako egitateak onartzeko» edo kontraforua aplikatzera jotzeko dilema batean murgilduta egonen lirarteke. Horren arabera, «Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio Gobernu zentralak edo Justizia Auzitegiek ustez foruari, legeei, ordenantzei, usadioei, frankiziei, salbuespeni, askatasunei eta pribilegioei eragiten dieten arau hausteen aurrean bidegabekeria horren ordaina eskatzeko».

«Behin bizi gara eta betitik gustatu zaidana probatu nahi nuen»

BEGOÑA DURRUTI SUKILBIDE ARIZKUNGO ILUSTRATZAILEA

Irakasle lana utzi zuenetik ilustrazioaren munduan dabil buru-belarri arizkundarra. Bere ibilbidearen eta urteotan egin dituen lanen errebasoa egin du TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA ARIZKUN

Gorputz Heziketako irakaslea zen ogibidez, eta «arras gustukoa» omen zuen ikasleekin aritzea. Bere betiko ametsa, ordea, ez zen hori. Begoña Durruti Sukilbidek (Arizkun, 1968) sortzaile izan nahi zuen, margolari, marrazkilari, ilustratzaile... Eta lortu du ametsa egia bihurtzea. «Badakizu, behin bakarrik bizi garela...» erranez hasi da eta horrexegatik, hain zuzen, erabaki zuen «barneak eskatutakoa» egitea: irakasle lana utzi eta ilustrazioaren bueltan bere bidea egitea. Zirriborrogiletzat du bere burua; «ez dakit hala naizen edo hala izan nahi dudana», baina horrela sentitzen omen da «libre». Aunitzetan, hitzez adierazten ahal ez duen hori esplikatzeke aukera ematen diote marrazkiek.

Ilustratzaile, margolari... Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Behin baino gehiagotan zirriborrogiletzat hartu izan dut neure burua. Ez dakit zirriborrogilea naizen edo hala izan nahi dudana. Artista baten lana hobekien adierazten duena zirriborroa dela iruditzen zait. Obra akituetan baino gehiago ageri dira artista baten sentimenduak edo barneko gauzak. Lana espontaneo izatea maite dut, libre, bat-batekoa.

Zirriborroak akitu gabeko lanak direla erranen zenuke?

Beti ez. Gehiegi pentsatu gabe barnetik ateratzen den hori zirriborro polit bat izan dai-



Begoña Durruti arizkundarra 'Ez da konprenitzen ahal gerra!' liburua eskuetan.

teke. Sukaldeko lana da eta niri artista baten sukaldeko lana da gehien gustatzen zaidana, estudioko ohartxo horiek. Batzuetan akitutako lana izaten ahal da eta bertze batzue-

tan ez. Zenbaitetan zirriborroez ari garelarik, ume batek ere eginen lukeela erraten dugu. Baina kasu. Zirriborro hitza niretako hitz potoloa da, horregatik erraten dut neure

burua zirriborrogiletzat dudala, baina ez dakit hala naizen edo hori dudana helburu.

Ilustrazioaren munduan hasi aitzinetik Gorputz Hezkuntzako irakasle izan zinen...

Bai. Eznekien SHEE-IVEF [Soin Hezkuntzako ikasketak] existitzen zenik ere, baina jakin nuelarik Gasteizera joan nintzen ikastera. Hamabortz urtez bigarren hezkuntzan Gorputz Hezkuntzako irakasle aritu nintzen. Gustuko lana nuen eta ikasleekin arras ongi moldatzen nintzen.

Eta zergatik utzi zenuen?

Behin bakarrik bizi gara, eta barneak beti gauzak sortzea eskatu izan dit. Sortzailea naiz, bide hori probatu nahi nuen eta halaxe egin nuen orain dela urte batzuk. Ez dakit zenbat urte pasatu izanen diren, 15-20 bat. Egia errateko ez naiz damutu. Hala ere, familiarako erabakia izan zen, ekonomikoki ere posible izan behar baituzu.

Erabakia hartzea zaila izan zen?

Ez zen zaila izan. Ez nuen lan finkorik, ez nituen oposizioak gairituak eta badakizu zera astuna den gairiditza? Eta gainera, gero Iruñera edo Otsagabira joan behar lanera... Alde horretatik ez zen erabaki zaila izan, nahiz eta irakaskuntzan gustura egon.

Arte Ederrak ikastea omen zen zure ametsa...

Bai, baina etxean nire zirriborroekin zer egin behar nuen erraten zidaten, ez nintzela inora joanen. Kirola ere aunitz maite nuen, arras kirolaria nintzen, eta SHEE-IVEF ikasketen berri izan eta lan munduan irteera zuela jakin nuelarik, horixe ikastea erabaki nuen. Ogibide hori izanen nuela erran nion neure buruari, eta afizio margogintza.

Baina barneko arantzak hortxe zegoen eta ilustrazioaren mundua probatu nahi zenuen, ez?

Bai. Eta geroztik hainbat gauza probatzen ari naiz eta mantso-mantso ikasten eta nire bidea egiten ari naiz. Autodidakta naizela erranen →

→ nuke. Baina margotzen hasi nintzelarik Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrino izan nituen irakasle, batez ere Apezetxea. Bere lana aunitz gus-tatzen zait eta aunitz markatu ninduen. Eta hortik aitzinera ikusiz ikasi dut. Ilustrazio munduan, berriz, Galtzagorri elkarteak antolatutako lehen-biziko Marraz(i)Oak tailerrean apuntatuta sartu nintzen. Aste bateko ikastaro intentsiboa izan zen, Harkaitz Cano idaz-learekin eta Ignasi Blanch ilustratzailearekin egindakoa. Ikastaro hori ez dakit zenbat urtez errepikatu nuen, hasie-ran Canorekin eta Blanchekin eta gerora, Elena Odriozola-rekin eta Gustavo Puertarekin. Arras jende ona da eta aunitz ikasi dut beraiekin eta ikasta-ro horietan ibili diren ilustra-tzaileekin.

Mitxitxi marriau izan zen zure lehenbiziko lana. 2011n argita-ratu zenuen. Kontatuko zeniguke? Bai, eta lan horren arras oroi-men polita dut. Neure burua-ri maila duineko lan bat egi-teko kapaz nintzen galdetzen nion, eta gai nintzela ikusi nuen. Oraino gustatzen zait liburu hori, eta oraino gusta-tzen zaidala diot, ez baititut denak gustuko. Sortzaileak arras exigenteak gara geure buruarekin.

Nolako lana izan zen?

Nik beti erraten dut edukia arras inportantea dela eta ipuin hori arras ona da, gure tradi-zioan arras aspaldikoa. Aita Donostiak 1950ean desagertua zegoen ipuinaren aztarnak bildu zituen Bidasoko herrietan eta beranduago Jose Mari Satrustegi Luzaide inguruan eta gehienbat Sakanan aritu zen lan berean. Ipuin horrek zer kontatu nahi duen galde-giten, irakurtzen eta ikertzen aritu nintzen, gero ilustratze-ko, ilustratzaileak ez baikara dekoratzaile hutsak. Gure marrazkiekin zerbait kontatu behar dugu, idatziarekin dan-tzan, baina guk egiten dugunak ere edukia behar du. Hura izan zen Canorekin eta Blanchekin

egin nuen lehenbiziko tailer hartara eraman nuen proiektua. Gustura gelditu nintzen emaitzarekin.

Geroztik hainbertze lan argita-ratu dituzu. Bada horien artean lan kuttunik?

Niretako arras berezia izan zen gure familiako istorioa kontatzen duen *Ez da konpre-nitzen ahal gerra* (*Cherche'pas à comprendre!*) liburu ilustra-tua eta gaur egun mundua nola dagoen ikusita, zentzu handia du. Gure aita Aljeriako gerran ibili zen eta hemen, Hegoaldean, aunitzek ez da-kite gerra hori existitu zenik ere. Euskal Herriko bertze istorio bat delako kontatu beharrekoa iruditzen zitzaidan.

Zure aita Gregorioren istorioa da. Azaldu...

Bai. Nahiz eta baztandarra izan, Aljeriako gerran ibili zen. Nire aitaxi hazpandarra zen, eta Lehenbiziko Mundu Ger-ratik Hegoaldera eskapatu zen. Amatxi ezagutu eta elka-rrekin Erratzun familia sortu zuten. 16 urterekin kontsula-tura joateko karta bat ailega-tu zitzairen eta espainol ala frantses nazionalitatea izan aukeratu behar izan zuten. Aitaxik Hazparnen bazituen baserria eta lurrak, eta lur ho-riengatik frantses nazionalita-tea aukeratu zuen. Eta nire aitak ere frantses nazionalita-tea du, nahiz eta Erratzun sortua den eta ez den ez frantsesa, ez espainola. Aljeriako gerran ibili zen, baina ez zio-ten gerrara joateko deitu, Frantziak ez baitzuen erraten Aljeriakoa gerra zenik, orduan *ordena zaintza* deitzen zioten. Han zer zen jakin gabe, 20 urterekin soldadu joan zen. Nire aita bizirik bueltatu zen, baina Iparraldeko 138 lagun hil ziren. 20 urterekin soldadu joan eta batzuk hilkutxetan bueltatu ziren, eta bertze batzuk, nire aita bezala, elbarri. Etxeko istorio hori liburuan kontatu nahi nuen, gerra har-tatik pasatu ziren euskaldun haiek guztiak oroituz.

Zer bide egin zuen liburuak?

Begoña Durrutiren argitalpenak



Mitxitxi Marriau (Erein, 2011): Begoña Durruti.



Sekretuen lapurrak (Erein, 2011): Alaitz Olaizola eta Begoña Durruti.



Mozoloaren bakardadea (Erein, 2012): Juan Luis Zabala eta Begoña Durruti.



Aita oker dago (Erein, 2014): Juan Luis Zabala eta Begoña Durruti.



Ez da konprentitzen ahal gerra! (Denonartean, 2016): Begoña Durruti.



Bereterretxeren kanthoria (Denonartean, 2017): Anonimoa 1434-1449 - Begoña Durruti.




Gerrateko ibilerak (2018 Hauspoa): I. Alkain-A. Zabala eta Begoña Durruti.



Paperezko ahozapietan idatzitako ipuinak (Elkar, 2020): A. Urkiza eta Begoña Durruti.



Amaiur. (Gaztelu elkarte, 2022): Amaia Elizagoien eta Begoña Durruti.



Belarriko kilkerra (Elkar, 2023): Uxue Alberdi eta Begoña Durruti.

Euskarazko edizioa agortu zen eta berriz berrargitaratu behar dugu. Berriki Alduden liburua aurkezten izan naiz eta arras gustura egon nintzen hango irakurle taldearekin. Nik nire aitari gertatutakoaren berri baino ez nuen, baina han ba-koitzak bere istorioa zuela konturatu nintzen.

Badituzu liburu gehiago ere...

Bai, eta *Bereterretxeren kanthoria* ere berezia izan zen. Mikel Laboa Katedrak eskatuta animazio bat egin nuen eta plazer izan zen Carlos Rodriguezekin eskuz esku lanean aritzea [animazioa Youtuben ikusgai dago]. Gerora komiki bihurtu nuen eta gustura gelditu nintzen. Uxue Alberdirekin atera dudak *Belarriko kilkerra* azken lanean ere aunitz dibertitu naiz. Arras istorio diferentea da, baina dibertigarria. Gure lanean arras proiektu diferenteak izaten ditugu eta igual horregatik egiten zait erakargarri.

Idazle ezagunen artean zabilta...

Bai eta ongi moldatu naiz beraiekin. Ez naiz ni atera haien bila, beraiek etorri dira niregana eta aunitz ikasi dut. Azken batean, denak kontatzaileak gara eta harrikada iduritsua dugu. Egiten duguna ez dugu diruagatik egiten, gauzak kontatu nahi ditugulako baizik. Lan batekin hasten banaiz proiektua gustatzen zaidalako izaten da.

Liburuak idazten ere aritu zara. Zer moduz moldatzen zara?

Idazteko arras traketsa naiz. *Mitxitxi Marriau* nik moldatu nuen, eta aitaren istorioari buruzkolana erenik idatzinuen, baina beti ondoan laguntzeko norbait izan dut. Baina etxeko istorioa izanda nork kontatuko zuen ni baino hobekiago? Hala ere, ez dut neure burua idazletzat hartzen.

Zer da zuretzako zirriborro horiek egitea?

Niretzako zirriborro horiek barneko sentimenduak eta iritzia kontatzeko, transmititzeko eta adierazteko tresna bat dira. Badira zenbait gauza hitzekin adierazten ahal ez ditudanak,



'Belarriko kilkerra' liburua aurkeztu zuten Durrutik eta Alberdik azaroan Elizondoko Akelarre kulturgunean. ONDIKOL

eta marrazkiekin bai. Ez gara apaintzaile hutsak, estetikarekin ere gozatzen dugu eta zerbait polita egin nahi izaten dugu, baina horren gainetik zerbait kontatzea da gure helburua.

Zein teknikarekin moldatzen zara hobekien?

Teknika berdina zait, edukia da ardura duena, zer nahi dugun kontatu garbi izan, eta gero etorriko da teknika. Hala ere, teknika jakin bat aunitz landua izatea abantaila handia da. Nik margogintzan olio, akuarela, tenpera, *gouache*... probatu ditut. Grabatuak ere egin ditut, baita estanzazioak ere. Gaur egun, berriz, ordenagailua aunitz erabiltzen dut, praktikoa goa baita. Proiektu pertsonal batekin ari naiz, eta papera eta papera hasten banaiz...

Proiektu horretaz zerbait aitzinatzaren ahal diguzu?

Erdi Aroan, 1500. urtean gertatutako istorio bat da, sorginkeria kasu bat. Komiki bat izanen da eta idazle ere ni naiz, baina inguruan laguntzaileak

**«ILUSTRATZAILEAK
EZ GARA
DEKORATZAILE
HUTSAK»**

ditut. Dokumentazio lana ez dut nik egin, historialari bat dut ondoan.

Eta noiz izanen dugu esku artean?

Presarik gabe ari naiz, urteak joaten ahal dira argitaratu arte.

Etorkizunera begira baduzu bertzeko proiekturik buruan?

Proiektu horrez gain, Uxue Alberdirekin bertze lan bat egiten ari naiz. Bitartean gustuko zerbait etortzen bada, horrekin hasiko naiz. Ez naiz diruagatik ari.

Nolako lanbidea da ilustratzailearena?

Zaila... Liburu etako ilustratzaile lanetik bizitzea ezinezkoa ikusten dut. Euskal Herrikanpo joan edo bertze merkatuak bilatu behar dira eta hala ere, zaila da. Nik ez dut horretarako indarririk. Atera kontuak, liburuaren salmentaren % 10 egileak eramaten du, eta egileetan irudigilea eta idazlea baldin badira, irudigilea % 5arekin geldituko da. Eta zenbateko tirada dute Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak.

**«EGITEN DUDANA
EZ DUT DIRUAGATIK
EGITEN, GUSTUKO
DUDALAKO BAIZIK»**

ruek? Horixe da errealitatea eta horregatik erraten dut hau ez dudala diruagatik egiten, gustatzen zaidalako baizik.

Baduzu gustuko ilustratzailearik?

Aunitz dira gustuko irudigileak, baina batzuk aipatuko ditut. Quentin Blake arras dibertigarria iruditzen zait, Jokin Mitxelena ere gustatzen zait, arras freskoak dira. Eta molde berean, Iñaki Martiarena *Ma-ttin* ere gustukoa dut. Elena Odriozola ere mundu mailan Euskal Herriko ilustratzaile hoberenatarikoa dugu. Manu Larcenet ere gustatzen zait, Beatrice Alemagna... Odriozola, *Mattin* eta Mitxelena hurbilekoak ditugu, Euskal Herrian ere badira arras maila oneko irudigileak.

Ilustratzaileak ez zaretela dekoratzaile hutsak azpimarratu duzu. Zuen lana baloratua da?

Gero eta gehiago. Lehen ez zen hain baloratua izaten, eta liburu ilustratu bat ateratzen zutelarik, idazlearen izena bakarrik agertzen zen, ilustratzailearen izenik ez. Gaur egun gero eta gehiago hartzen da ilustratzailearen lana kontuan, eta gero eta lan zoragarriagoak ikusten ari gara, lan ilustratuak gero eta toki gehiago hartzen ari dira liburu dendetan. Mantso-mantso, baina ari gara.

Hamarretik ia zazpi herri handietan bizi dira

Eskualdeko 27 udalerrietako biztanleriaren bilakaerari begira jarri da TTIPI-TTAPA. Populazio osoa urtez urtez goiti badoa ere, goititze hori herri batzuetako kontua da. Gehiago dira biztanleria galdu duten udalerriak

G. PIKABEA

Goiti segitzen du eskualdeko biztanleriak. Hala diote zenbakiak. Konparazio batera, azken datuei erreparatuz, 2023ko ilbeltzaren leian 36.981 biztanle zituen TTIPI-TTAPAK hartzen duen eremuak, urtebete lehenago baino 648 gehiago, eta mende hasieran baino 4.387 gehiago. Datuen erreposoa egin du TTIPI-TTAPAK, eta gaia hizpide hartuta, eskualdeko sei alkaterengana jo du.

Goiti gutti batzuk

Kopurua hazten ari bada ere, udalerrri batetik bertzerako joera diferentea da. 2000. urtetik honat izan den bilakaera kontuan hartuz, eskualdean dauden 27 udalerrietatik hamarretan biztanleriak goiti egin du eta bertze hamazazpitan beheiti. Bereziki Senpereko (% 71,44), Doneztebeko (% 36,72), Sarako (% 25,95), Donamariako (% 17,57) eta Iturengo (% 13,19) hazkundera dago horren gibelean. Eta neurri tikiagoan, Berak (% 8,65), Etxalarrek (% 5,58), Baztanek (% 3,07), Leitzak (% 2,62) eta Lesakak (% 1,86) ere goiti egin dute.

Beheiti gehienak

Gainerako udalerrietan beheiti egin du 2000. urteaz geroztik, eta batzuetan, hagitz nabarmen gainera: Ezkurran (% 38,79), Aranon (% 27,15), Beintza-Labaienen (% 24,83), Goizuetan (% 21,59), Saldiasen (% 17,88), Urroren (% 14,90) eta Eratsunen (% 13,89). Apalxeago bada ere herri hauetan ere biztanleriak puntu batzuk beheiti egin du: Areson (% 8,87), Urdazubina (%

7,65), Oizen (% 7,64), Arantzan (% 7,02), Zubietan (% 4,89), Bertizaranan (% 3,35), Igantzain (% 2,72), Sunbillan (% 2,33), Zugarramurdi (% 1,28) eta Elgorriagan (% 0,49).

60 urteotan alde handia

Urteetan gibelera eginez gero, datuak are deigarriagoak dira: 1960az geroztik hemeretzi udalerririk galdu dute biztanleria eta zortzitan igo da. Mutur batean Ezkurra, Arano, Eratsun, Beintza-Labaien, Zugarramurdi, Saldias, Goizueta, Urroz, Aran-

tza eta Zubietan daude; 60 urtez biztanleria % 40 baino gehiago galdu dute. Eta bertze puntan Senpere, Doneztebe, Leitza eta Bera daude, % 40ko igoera baino handiagoa izan dutenak.

Nafarroako Gobernuak due-la hiru urte argitaratu zuen, Nafarroako udalerrien despopulatzeari buruzko ikerketa. 1989tik 2019rako datuak kontuan hartu zituen, eta Goizueta, Ezkurra, Eratsun eta Beintza-Labaien «despopulatzeko muturreko arriskuan» zeudela ondorioztatu zuen; «despopu-

ALDE HANDIAREKIN, SENPEREN HAZI DA GEHIEN BIZTANLERIA

ETXEBIZITZA ARAZO BIHURTU DA HERRI AUNITZETAN



Oro har eskualdeko biztanleria goiti doa urtetik urtera. ONDIKOL

latzeko arrisku nabarmena» Aranon zuela erran zuen eta «despopulatzeko arrisku handiarekin» eskualdeko bertze bederatzita udalerrri izendatu zituen: Arantza, Areso, Baztan, Bertizarana, Etxalar, Oiz, Urroz, Saldias eta Zubietan.

Herri handienetan pilatua

Bada bertze datu adierazgarri bat. 27 herrietatik zazpi dira 1.500 biztanle baino gehiago dituztenak: Senpere (7.559), Bera (3.792), Elizondo (3.516), Leitza (3.016), Sara (2.762), Lesaka (2.731) eta Doneztebe (1.858). Horietan 25.234 lagun bizi dira, hau da, eskualdeko biztanleria osoaren ia hamarretik zazpi (% 68,24).

Eremuka, Xareta da eremurik jendetsuena 10.914 biztanlerekin, eta Bortzirriak eta Baztan ditu gibeletik, 8.537 eta 7.831 biztanlerekin, hurrenez hurren. Malerrekako hamabi herrietan 4.963 lagun bizi dira eta Leitzaldean eta Urumealdean 4.101; Bertizaranan, azkenik, 635 lagun.

Gainerakoan, Baztanen, biztanleriaren % 44,9k Elizondo dute bizileku. Bortzirrietan herriarren % 44,42 Beran eta % 31,99 Lesakan bizi dira; Leitzaldean eta Urumealdean % 73,54k Leitza dute bizileku eta % 17,26k Goizueta; Malerrekako hamabi udalerririk bizi dira eta % 37,44 Donezteben bizi dira; eta Xaretan % 69,26 Senperen. Bertizaranan, eskatu arren, herriz herriko daturik ez du lortu TTIPI-TTAPAK.

Migrazioa goiti

Herri batzuetan biztanleria mantendu bada, migrazioaren ondorioz izan da. Gure herrietan, hamarretik bat etorkina da egun. Espainiako Estadistika Institutuaren azken datuen arabera, 2022an 26.526 lagun zeuden erroldatuak gure herrietan (Nafarroa aldean, Senpere eta Sara kontuan hartu gabe) eta horietatik 2.551 Euskal Herritik eta Espainiar estatutik kanpo sortutakoak dira, populazio osoaren % 9,62, due-la 20 urte baino % 5,45 gehiago.

Baztango populazioaren % 11,29k atzerrian du jatorria, Hego Amerikan batez ere. Berdintsu dabilta Urdazubi-Zugarramurdin (% 10,53). Bortziritan, aldiz, populazioaren % 9,44 atzerrian sortua da, Hego Amerikan nagusiki. Malerreka-Bertizaranan kopurua apalagoa da (% 8,76) eta Leitzaaldean eta Urumealdean antzeko kopuruak dituzte: % 7,97 Leitza-Areson eta % 7,20 Goizueta-Aranon.

Etxebizitzak

Biztanleriaren bilakaeraren harira, etxebizitzaren gaia izan da alkateek mahai gainean paratu duten kontuetako bat, batean baino gehiagotan «arazo» bihurtu delako. Nafarroako Gobernuaren azken datuen arabera, eskualdean, Nafarroako eremuan, bana bertze etxeen % 30 hutsik daude edo bigarren mailako erabilera dute, asteburuko edo oporretakoa. Kopururik altuenak Aranon (% 68), Areson (% 58), Iturenen (% 58), Sunbilla (% 43) eta Arantzan (% 41) ageri dira. Kontrara, bizitegi huts gutien dituzten artean daude Elgorriaga (% 10), Leitza, (% 16), Zugarramurdi (% 16), Oiz (% 18) eta Beintza-Labaien (% 19). Saran eta Senperen ere etxebizitzaren gaia aspalditik da kezka eta protesta iturri; herritarrek maiz salatu dute espekulazioa. Prezioen igoera hori, ordea, ez da Lapurdiko arazoa bakarrik. Nafarroa aldean ere ia eskuraezina bihurtzen ari da etxebizitza. →


Biztanleria udalerriz udalerriz

Herria	1960	1981	2000	2010	2023	2000-2023 aldea
Arano	360	187	151	122	110	▼ % 27,15
Arantza	1.046	723	655	647	609	▼ % 7,02
Areso	370	297	293	277	267	▼ % 8,87
Baztan	9.312	7.983	7.598	8.081	7.831	▲ % 3,07
Beintza-Labaien	537	281	290	249	218	▼ % 24,83
Bera	2.600	3.454	3.490	3.730	3.792	▲ % 8,65
Bertizarana	651	585	657	647	635	▼ % 3,35
Donamaria	567	334	387	438	455	▲ % 17,57
Doneztebe	785	1.061	1.359	1.688	1.858	▲ % 36,72
Elgorriaga	190	179	206	221	205	▼ % 0,49
Eratsun	436	215	180	159	155	▼ % 13,89
Etxalar	1.109	835	789	827	833	▲ % 5,58
Ezkurra	475	282	232	163	142	▼ % 38,79
Goizueta	1.350	1.157	903	778	708	▼ % 21,59
Igantzi	618	607	588	632	572	▼ % 2,72
Ituren	471	444	470	502	532	▲ % 13,19
Leitza	1.564	3.240	2.939	2.934	3.016	▲ % 2,62
Lesaka	2.294	2.943	2.681	2.822	2.731	▲ % 1,86
Oiz	204	157	144	151	133	▼ % 7,64
Saldias	271	155	151	116	124	▼ % 17,88
Sara	1.951	1.929	2.193	2.286	2.762	▲ % 25,95
Senpere	2.240	3.062	4.409	5.251	7.559	▲ % 71,44
Sunbilla	951	657	688	670	672	▼ % 2,33
Urdazubi	546	537	392	361	362	▼ % 7,65
Urroz	318	198	208	190	177	▼ % 14,90
Zubieta	500	324	307	315	292	▼ % 4,89
Zugarramurdi	525	315	234	212	231	▼ % 1,28
GUZTIRA	32.241	31.141	32.594	34.469	36.981	▲ % 13,46

ITURRIAK: GAINDEGIA, NAFARROAKO GOBERNUA, SARA ETA SENPEREKO HERRIKO ETXEAK

BAZTANGO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Y: biztanleria kopurua
X: urtea



Data Iturria: BAZTANGO UDALA

«Jendeak bizitzera etorri nahi du eta hemen ez dago etxebizitzarik»

ARGITXU AGERRE OLAIZOLA ZUGARRAMURDIKO ALKATEA

«Herriak bizirik nahi ditugu eta jendeak Zugarramurdira bizitzera etorri nahi du, baina etxebizitzaren arazoa dugu». Hala kontatu du Argitxu Agerre alkateak: «Badira hutsik dauden etxe handiak, baina jabeek ez dituzte saldu nahi edo ez dituzte konponduta etxebizitzak egin nahi. Bertze batzuk salgai daude, baina dirutza eskatzen dutenez, ez dira saltzen. Badira pisu batzuk ere, baina turistendako dira, eta urte osorako aukera guti dago». Egoera ikusita «pena» sentitzen du Agerrek, etxebizitzaren arazoa «gabezia garrantzitsua» iruditzen baitzaio: «Bada Zugarramurditik ondoko herrietara bizitzera joan den jendea, hemen ez zutelako fitsik atzematen. Lana bada, jendea Dantxarinera eta Iparraldera mugitzen da, baina Zugarramurdira bizitzeko ez dago tokirik». Egoera horri buelta ematea dute erronka, «egunerokoa jendeak bizia hemen egitea nahi dugu, etxe huts horiek betetzea, haurrak eskolan izatea...». Eta bide horretan, «etxe zaharrak dituztenak barnean etxebizitzak egitera animatu nahi ditugu, alokairurako edo saltzeko, herriko jendearendako edo honat bizitzera etorri nahi dutenendako, kanpotik datozenak ere ongietorriak baitira». Asmo horrekin erosi dute apezaren etxea, eta hor lantzeko «bizpahiru proposamen» dituztela esplikatzen du: «etxebizitzak egitea, helduendako zerbait egitea...». Erabilera hori, ordea, «herritarrei galdetuta erabaki nahi dugu, zehazki zer den interesgarriagoa ikusi eta ondotik, horretarako finantziarioa eta dirulaguntzak bilatu».



Argitxu Agerre Olaizola.

«Goizuetak badu bizitzeko erakargarri izateko potentzialtasuna»

UNAI MIRANDA BERROETA GOIZUETAKO ALKATEA

Biztanleriaren beherakadaren aurrean, «kezka» izan da Unai Miranda alkateak aipatu duen aurreneko kontua. Datuak ere eman ditu: «Azken 20 urteotan, 900 biztanle genituenetik, hazkunde naturala [heriotzak eta jaiotzak] positiboa izan da, baina hazkunde erreala 200 biztanle galdu ditugula izan da». Horren atzean «hainbat arrazoi» ikusten ditu, baina «batik bat etxebizitza, lana, garraioa eta errepideen egoera» aipatu ditu. Hori irailu nahian ari dira eta «biztanleria ez jaisteko eta ahal den neurrian handitzeko neurriak hartzea dugu agintaldi honetako erronketako bat». Besteak beste, «populazioa finkatzeko balio duen etxebizitza eskaintza handitu» nahi du udalak, «bai alokairurako, bai saltzeko: Eskola zaharretako etxebizitzak birgaituz, medikuaren etxea saltzen saiatuz, ospitaleko proiektuarekin... Horiek denak gauzatuko balira, zortzi-hamar etxebizitza gehiago izanen genituzke eskaintzeko». Baina ez da kezka aipatu duen bakarra. Herri gisa duten «potentzialtasuna» ere nabarmendu du: «Goizuetan isolatuta gaude, eta horrek alde txarrak baina onak ere baditu, oinarrizko zerbitzuak ere baditugu: eskola, medikua, botika, dendak... Etxebizitzak eskuragarri jarri eta garraio zerbitzu publikoa bermatuz, populazioa egonkortu edo handitu daitekeela uste dugu. Herri bat bizitzeko erakargarri izateko behar dituen oinarrizko zerbitzuak eta herri giroa baditu Goizuetak». Eta hala izaten segi dezan «herritar guztion erronka» dela gaineratu du.



Unai Miranda Berroeta.

«Jaiotzak beheititu arren migrazioari esker populazioa mantendu da»

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI BAZTANGO ALKATEA

Baztanen azken 20 urteotan populazioa «mantendu» dela dio Fernando Anbustegi alkateak: «Jaiotza tasa aunitz beheititu da, baina migrazioari esker bilakaera iruditsua da. Atzerritik jende dezente etorri da eta hurbilagoko herrietatik ere jendea heldu da». Herriz herri, Elizondora joateko joera «aspaldixkoko» dela aipatu du eta etxebizitza da bere irudiko arrazoi nagusietako bat: «Duela 20-30 urte etxebizitza aunitz egin ziren Elizondon, pisuak gehienbat,

eta horrek herri ttikietatik Elizondora mugitzea ekarri zuen. Gaur egun, mugimendu ttiki batzuk izanen dira, baina ez nuke erranen herri ttikiak masiboki husten ari direnik. Batzuk pixkaka-pixkaka husten ari dira eta bertze batzuk handitzen, baina, orokorrean, egoera nahiko egonkortua da». Etxebizitza «arazoa» dela jakitun, lanean ari dira Baztanen, «etxebizitzak zaharberitzeko ahalegina saritu nahian. Baztan Hobetzen plana ere hortik bideratua da».



Fernando Anbustegi Goñi.

Etxebizitza hutsen kopurua handia baita: «4.500 etxebizitza daude eta mila edo gehixeago hutsik. Aunitz bigarren etxebizitzak edo turismorako baliatuak dira. Etxebizitza zahar handi

aunitz daude eta erdian lagun bat edo bi bizi dira». Hala, «garbi» du «horiek konpontzea dela erronka» eta «horretarako erraztasunak eman nahi ditugu». Despopulazioaren harira «neurri gehiago» ere eskatu ditu. «Teorian gobernuak hori bulkatzten du, baina aldi berean, herri ttiki batzuk turismora bideratzen ditu hiriko jendea oportetean joateko. Pirinioetan hori gertatu da». Gaur-gaurkoz, Baztanen ez du hori gertatzeko arriskurik ikusten, «zer dugun eta zer nahi dugun konturatu eta lanean ari garelako. Beti hobetzeko helburua izan behar dugu, baina nondik heldu garen eta nora joan nahi dugun argi izanda».

«Herria gero eta tikiago gelditu denez, zerbitzuak ere galdu ditugu»

NAGORE ESKUDERO BALEZTENA ERATSUNGO ALKATEA

Joan den abenduan hartu zuen alkate kargua Nagore Eskudero eta «momentuz, kokatzen» ari direla aitortu arren, «gogo handiarekin sartu» direla eta «ahalik eta hobekien aritzea espero» dutela kontatu du. Gainerakoan, Eratsungo biztanleriak izan duen bilakaera ikusita, herriko egoera «beltza» ikusten du: «Bertako asko adin handikoa da eta gazte gutxi dira bertan geldituak». Bere hitzetan, hori da biztanleriaren beherakadaren arrazoia: «Adinoko jendeak uzten gaitu, gazteak kanpora joaten dira eta kanpotik ez dira etortzen». Herri tiki eta handien arteko «desorekaz» ere mintzatu da: «Zerbitzu eta mugikortasun falta dira desorekarik handienak. Herria gero eta tikiago gelditu denez bertan zeuden zerbitzuak ere galdu dira». Honela azaldu du: «Ez eskola, ez ostatu, ez denda... Edozein ekintza edo jarduera, lagunak... Dena herritik kanpo dugu. Mugikortasuna falta dugu». Gehiago ere bai: «Herriaren kokapenak ez du asko laguntzen lana aurkitzeko orduan». Bide beretik, kritikoa mintzatu da politikak hirietan eta herri handietan egiten direlakoan dagoelako: «Zoritxarrez, oraindik horrela da eta lan handia dugu egiteko». Hala ere, hutsune horiek alde batera utzita, alde on asko nabarmendu nahi izan ditu: «herritarren arteko harremanak, ingurua, mendiak...». Eta bere irudiko, bada herri batzuetan arazo eta Eratsunen hala ez den beste kontu bat: «Bertan gelditu ahal izateko aukeretako bat etxebizitza lortzeko erraztasuna da».



Nagore Eskudero Baleztena.

«Zailtasunak beti badira eta soluzioak denon artean bilatu behar ditugu»

JUANKAR UNANUA NAVARRO IGANTZIKO ALKATEA

«Gorabeherak beti izan dira, baina azken 40 urteotan 600 biztanleren bueltan ibili gara, batzuetan gehixeago eta bertzeetan guttixeago, eta ez dut uste egoera kezagarria denik». Juankar Unanua alkatearen hitzak dira, eta anekdota bat ere kontatu du: «Joan den abenduan, hamar egunez 21 lagun erroldatu ziren. Gehienak kanpotik etorri dira, baina badira ikasketengatik edo lanagatik kanpoan erroldatuak zirenak eta bueltatu direnak». Populazioa mantentzeko edo igotzeko «etxebizitzak egitea eta gazteei irtenbidea ematea» da bere ustez gakoa. Baina «ez da erraza»: «Batetik, araudia aldatu zutenetik ia-ia ezinezkoa da etxeak egitea eta egoera ekonomikoa izugarri igo da, eta bertzetik, saltzeko dauden etxebizitzak ikaragarriko prezioan daude». Garai bateko bakailao fabrikaren lurretan bizitzak egiteko proiektua du esku artean udalak: «Aspaldixko ari gara horrekin, lurra erositako gure eskuetan dagoena egin dugu, baina epailearen sinaduraren esperoan gaude eta luzatzen ari da». Pisuak eginez «gazteei herrian euren proiektuak hasteko aukera» ematea dute helburu eta hala, «bertze pauso bat» emanen dutela dio. Hala ere, biztanleriaren gorabeherak baino gehiago kezkatzen du «gizarteak hartu duen bideak»: «Ongi da udaletxean norbait izatea, baina ez da nahikoa, elkarlana, jendearen inplikazioa eta ekarpenak beharrezkoak dira edozein gauzatara. Zailtasunak beti izanen ditugu, baina soluzioak denon artean bilatu behar ditugu. Etorkizuna denon esku dago».




Juankar Unanua Navarro.

«Ez dakit zer egin dugun gaizki baina konpromiso falta handia dago denean»

NATALIA REKARTE OTEIZA DONAMARIKO ALKATEA

Azken urteotan biztanleria aunitz goratu da Donamarian, eta neurri handi batean «gazteak gelditu eta familia osatu dutelako» izan da Natalia Rekarte alkatearen arabera: «Haur pila dago eta gainera, familiako etxeetan gelditu dira, eraikin berriak egin gabe bizitza batetik bi ateraz». Hori poztekoa iruditzen zaio, eta etorkizun hurbileko egoera «ongi» ikusten ditu. Arazoa gerora ikusten du, «lana eta etxebizitza» kontuetan: «Hutsik dauden etxebizitza gutti dago Dona-

marian eta daudenak hagitz handiak dira. Hori da hemengo herrietan dugun arazoa, etxeak ikaragarriak direla eta mantentzea ekonomikoki sakrifizio handia dela. Gaur egun arazo handia da, eta oraindik handiago izanen da». Bertzetik, «erakuntza berriak egiteko zailtasunak» aipatu ditu: «lur sailak izanagatik ezin dira eraiki. Etorkizunean, batzuk familiako etxea hor izanen dute bizitzak egiteko, baina denek ez. Horren ondorioa dagoeneko nabaritzen hasia



Natalia Rekarte Oteiza.

da, Donamarian non bizi ez zuten gazte batzuk kanpora atera dira». Egoera ikusita, udalak «herritarrek eta batez ere gazteek dituzten beharrak aztertzeko parte hartze prozesua» abiatu nahi

du: «Egoera zein den eta zer nahi dugun jakin behar dugu, batez ere gazteengan eta etorkizunean pentsatuz». Kontu honek ere kezka sortzen dio: «Ez dakit zer egin dugun gaizki, baina konpromiso falta handia dago denean. Kanpotik lasai bizitzera heldu dira, ez dira herri gintzan inplikatu eta ez dute ikusten herria herritarrek egiten dutela. Gazteria ere ez da inplikatu». Nafarroako Gobernuak «bereziki gure eskualdea baztertua» duela ere salatu du: «Politikak herri koskorrenetara eta Iruñerira bideratzen dituzte. Eta gure herrietan zer baliabide ditugu? Nahikoa egiten dugu herria mantentzen».



Mendi Eguneko irteeran parte hartu zuten mendizaleak. MANTTALE

130 lagun baino gehiago Mendi Eguneko ekitaldietan

Agerra Mendi Taldeak eta Manttale Mendi Lasterketa Taldeak antolatu dute XVII. aldiz Mendi Eguna

A. LARRETXEKA

Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi mendizaleak oroitu dituzte Mendi Egunaren bueltan. Aurten ohiko ekitaldiei, ortziralear egindako *Nepaldala* dokumentalaren aurkezpena gehitu zaie. Nepalgo neskatoak eskolaratzen lan egiten duen Nepaldala gobernuz kanpoko erakundearen jarduna biltzen du dokumentalak, eta sarre-raren bidez lortutako 1.000 euro elkarteari eman zizkio-ten.

Larunbat goizean mendi ateraldia egin zuten, eta arra-



Lasterketako parte hartzaileak.

tsaldean, Santa Barbarako kronoigoera eta mendi itzulia. 41 bikotek eta hirukotek hartu zuten parte bertan. Bukatzeko, *Mundua arnastu nahian* izeneko solasaldia izan zuten.

Kanttonberriko lanak aurkeztu dituzte herritarren aitzinean

A. LARRETXEKA

Urtarrilaren 10ean eta 11n, Kanttonberri martxoan hasita egin asmo dituzten lanak aurkeztu zituzten udaleko ordezkariak herritarren aitzinean. Kanttonberriko eremua erabat aldatzea ekarriko dute lan horiek. Lehen fasean bertako ur sareak berrituko dituzte, euri urak eta ur beltzak banatuz, eta ondotik, zoladura berrituko dute gaur egungo legedira egokitzuz. Horrek trafikoa eta aparkalekuetan hainbat aldaketa eragingen ditu, eta horren berri ere eman zuten.



Herritarrek bileran.

Horrez gain, urte bukaeran egin asmon dute Eztegara eta Matzada arteko lotuneaz, eta heldu den urteko Altzate karrikako lanei buruz ere mintzatu ziren.

Musika eskolako entzunaldiak heldu den bi asteetan

Abenduan egin zituzten lehen entzunaldiak Isidoro Fagoaga musika eskolako ikasleek. Hilaren 22an egitekoa zuten txistu ikasleena, eta hurrengo bi asteetan egingen dituzte falta direnak. Urtarrilaren 29an perkusio emanaldia izan da, otsailaren 5ean klarinete eta saxofoi emanaldia eta otsailaren 6an trikiti ikasleena. Emanaldi denak 18:00etan izanen dira musika eskolan.

Horrez gain, otsailaren 7an inauterietako kontzertua egingen dute 18:00etan, Kultur Etxean.

Kaldereroak otsailaren 3an ailegatuko dira

Inauterien bezperatan, otsailaren 3an ailegatuko dira Kaldereroak herrira. Illekue-tan elkartuko dira 19:00etan eta handik karrikabuelta egingen dute kantuan Herriko etxeko plazaraino. Berako Bandak girotuko ditu kaldereroak, eta herriko etxeko plazan ohiko abestiak kantatu eta bi herritarren arteko ezkontza egingen dute. Baratzuri zopa janez bukatuko dute ekitaldia.

Eguraldi txarra eginez gero, Altzateko frontoian izanen da ekitaldia.

zelaín
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortzirafera

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

IBBANDONEA, S.L.
PROFESOR ENGA SAGARDOTEGIA

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - afeia 21-22 • BERA

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus
bisitatu gure online denda!

102 Meaka auzoa
20304 IRUN - T.943 623 130

- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Asteartetik larunbatera afariak. Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan.
- Sagardotegi menuarekin egin txotxi!

anterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

Martxoaren 24ko goizaldean pasako da Korrika herritik

Martxoaren 14an Irunen hasi, eta 24an bukatuko da 23. Korrika. Herria ere gurutzatuko du, hain zuzen 24an, igandean goizaldean pasatuko da herri-tik. Lesakatik 04:01 aldera ailegatzea aurreikusi dute eta herria gurutzatu eta Sara alde-ra joanen da Lizuniagan barna.

'Hona bostekoa' komiki bildumaren aurkezpena 26an

Komiki bildumaren sorkuntza prozesua biltzen duen erakusketa ikusteko aukera izanen da Kultur Etxean

A. LARRETXEA

Udabiltzaren Geuretik Sortuak ekimenak hainbat beka eman zituen iazko udaberrian literatura, komikigintza, antzerkigintza eta zinemagintza lantzeko. Iaz garatu zituzten lanak sortzaileek, eta orain aurkeztuko ordua dute. Aurkezpen horietan lehena egingen dute herrian, urtarrilaren 26an.

Bertan, komikigintza lantzen aritu diren sortzaileen lanak biltzen dituen *Hona bostekoa* komiki bilduma aurkeztuko dute 18:00etan Beralandetan. Bortz komikigile aukeratu zituzten, bakoitza herri batean lanean aritzeko, eta tartean Gasteizko Aritz Ibarra Agirrezabal Beran, Lesakan, Urruñan eta Saran aritu da komikia lantzen. Ibarrarekin batera Unai Gaztelumendi, Kote Camacho, Eñaut Aiertzaguena eta Iñaki Martiarena *Mattin* komikigileen lanak ere biltzen ditu *Hona bostekoa* lanak.

Komikia aurkezteaz gain, erakusketa ere paratuko dute Beralandetan. Erakusketa horretan komikigileen sorkuntza-prozesua ikusten ahalko da, bertzeak bertze.

Kultur Etxea jendez lepo Gurrutzagarekin

Kultur Etxea goraino betetzen urtarrilaren 14an Zuhaitz Gurrutzagaren FutbolisTOK bakarriketa aditzeko. Umorea lagun, futbolari zeneko oroitzapenak eta bizi izandako une gogorrak kontatu zituen Gurrutzagak.



TTIPI-TTAPA



TTIPI-TTAPA

Hainbat zuhaitz moztu dituzte Eztegaran

Udalak Eztegaran pasealekuan eta Zia erreka artean dauden hainbat zuhaitz moztu ditu. Horietako aunitz gaixorik zeuden, eta erortzeko arriskua ere bazuten. Zuhaitz horiek moztu ondotik, argitasun handia irabazi du eremuak, eta baita Zia erreka bazterrean egoteko gun bat ere.

Iñaki Iurrebasoren hitzaldia egoera soziolinguistikoari buruz hilaren 25ean

A. LARRETXEA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Iñaki Iurrebaso soziologoaren hitzaldi antolatu du urtarrilaren 25ean, ortzegunean, 19:00etan Beralandetan.

Euskararen egoera gaur egun. Zer diote datuek? izena du so-lasaldiak eta gaur egungo egoera ulertzeko datuak eman ditu. EHUko irakaslea izan da azken urteetan Iurrebaso eta iaz aurkeztu zuen euskararen egoerari buruz eta egoera soziolinguistikoa aztertzeak gakoie buruzko tesia.



Iñaki Iurrebaso soziologoa.

UEMAko ikerketa lanetan hasi da berriki eta bereziki landu ditu arnaguneak eta eskualde euskaldunek euskararen biziberritzean betetzen duten funtzioa.



Fernando Celaya
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiaak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologia
- Gihar patologia
- Neurologia patologia
- Arnas aparatuko patologia
- Ginekologia patologia
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologia
- Zirkulazio eta endokrino patologia

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

4,88 milioi euroko aurrekontua izanen du aurten udalak

Albistur karrikako urbanizazio lanak eta Alkaiagako saneamenduaren bigarren fasea dira onbertsiorik handienak

AITOR AROTZENA

Abenduaren 28ko osoko bilkuran 2024ko udal-aurrekontuak onartu ditu udalak, EH Bilduren aldeko botuekin eta Geroa Bairen kontrakoekin. Guztira 4.884.331,44 euroko aurrekontua izanen du, iaz baino 1.132.253,80 euro gehiago. Aurrekontuaren igoera nagusia gobernua emandako dirulaguntzengatik izan da, aurten eginen diren obra garrantzitsu batzuk gauzatu ahal izateko.

Inbertsio nagusiak

Honako hauek izanen dira inbertsio nagusiak:

- Albistur karrikako urbanizazio lanak: 728.442,86 euro. Mugikortasuna hobetu eta herriko sarrerari merezi duen zabalera emateaz gain, karrিকা horretako saneamendua, euri urak eta ur zikinen hodi-terria aldatuko da. Nafarroako Gobernuaren laguntza lortu du udalak (608.064 euro).
- Alkaiagako saneamenduaren bigarren fasea 315.005,81 euro. Auzo horretako saneamendu sistema ezarriko da. Hemen

ere, Nafarroako Gobernuaren laguntza lortu da (210.128,51 euro).

- Argiteria publikoaren aldaketa: 265.492,15 euro. Efizientzia energetikoaren alorrean azken lau urteetan egindako apustuari eutsiko zaio. Gastu honetarako IDAEn dirulaguntza jasoko da (224.550,98 euro).
- Udal kiroldegian kafetegia bat egiteko gastua 157.007,50 eurokoa da, eta 70.000 euroko dirulaguntza lortzea aurreikusi dute.

Iaz hasitako proiektuei jarraitutasuna eman asmoz, hainbat gunetan hobekuntzak burutzeko inbertsioak eginen ditu udalak:

- Alhondegia eraikinaren bideragarritasun azterlana eta proiektua egiteko 17.545 euro.
- Irain eskolako jostalekua berritzea 40.000 euro.
- Mendietan, landaketak, sasi garbiketak eta bide konponketak egiteko 202.972,93 euro erabiliko dira eta abelzaintzarako azpiegiturak eta auzo bidea moldatzeko 58.932,99 euro. Auzo bideak egokitzen jarraitzea aurreikusten da eta

bide bazterren garbiketa sistematizatuko da.

- Haur eta nerabeentzako herri atseginagoa bihurtzeko pausoak ematen segitzeko, 1.500 euroko aurrekontua onartu da. Diru hau, Oinherri Herri Hezitzaileen elkartearekin elkarlanean erabiliko da eta Lesakan sortu berri den Hezkuntza Foroa dinamizatze-ko.

- Horretaz gain, gazteekin elkarlanean, adin horretako parte hartzea sustatu nahi da, eta horretarako 10.000 euroko partida bat sortu du udalak. 4.500 euroko dirulaguntza espero da.

Herri ondarea nahiz zerbitzuak herritarren esku jartzeko, eta udalaren funtzionamendua hobetzeko inbertsio batzuk aurreikusi dira:

- Frontoiko sarrera eta aldagelak berritzea: 40.000 euro. Gastu hau ordaintzeko, EH Bilduk Nafarroako Gobernu-ko aurrekontutan lortutako partida erabiliko da.
- Herritarren arretarako ego-kiago egiteko, udaletxean ere hainbat inbertsio egin nahi ditu udalak (17.027,61).

Joan den urtean iragarritako saihebidetaren kasuan, proiektuaren erredakzioarekin ari

UDAL KIROLDEGIAN KAFETEGIA EGITEKO 157.000 EURO IZANEN DIRA

da Nafarroako Gobernua, eta datozen bi urteetan eginen dituzte obrak. Lan horiek finantzatzeko 500.000 euro lortu ditu EH Bilduk Espainia-ko aurrekontuetan, proiektua aztertu eta idazteko. Horrekin batera, lotune horren exekuzioa egiteko, bertze 3.750.000 euro bideratuko ditu Espainiako Gobernuak.

Funtzionamendu gastuak

Kultura eta besta programazioarako diru gehiago bideratu da. Hala, 55.000 euro bideratuko dira kultura programazioarako, eta 100.000 euro sanferminetarako. Gainera, kultura taldeei 38.500 euro banatu zaizkie dirulaguntzetan, eta kirol entitateei 24.000. Andra Mari Zaharren Egoitzan 45.000 euro, Magala Haur Eskolan 145.067 euro eta Musika Eskolan 162.615 euro inbertituko ditu udalak.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatera 106.000 euro, Bortzirietako Gizarte Mankomunitatera 101.758 euro eta Berdintasun Zerbitzura 32.435 euro bideratuko dira. Cederna Garalurrera ia 30.000 euro bideratuko dira.

Hauek dira 2024ko aurrekontuen ardatz nagusiak, «herriak dituen baliabideak ahalik eta era egokienean baliatze-ko saiakera bat dira, zorrak konprometitutako 197.479 euroak eta krisiaren ondorioz pairatzen dugun prezio igoerak baldintzatutako aurrekontuak».



EGUNEKO MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Alizate, 17 · BERA



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
K-STRETCH
Etorri eta probatu debalde!
San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
Centro Prim regina tolosaechepare

Nafarroako X. Trikiti jaialdia hilaren 27an Harriondoan

Hainbat musikari igoko dira kultur etxeko oholtzara hileko azken larunbatean, 17:30ean hasita

A. AROTZENA

Nafarroako Trikitixa elkarteak eta Lesakako trikitixa taldeak, udalaren eta bertze zenbait erakunderen laguntzaz antolatutako Nafarroako X. Trikiti jaialdia Harriondoan kultur etxean egingen dute urtarrilaren 27an, 17:30ean hasita. Jaialdirako sarrerak, nahiz ondotik Koxkontan egingen den afarirako txartelak agortuak daude dagoeneko.

Hainbat musikari

Parte hartuko duten trikitilari, panderojole eta musikariei

dagokienez, Epelde, Lutxurdio, Laja II.a eta Haritz Garmendia; Dani eta Ainara Narbarte, Kattalin Zubizarreta, Manex Torrealdei eta Oihan Larrañaga; Iker Goenaga, Alaitz Telletxea eta Fredi Pelaez; Xabi, Ainara, Leire, Amaia eta Gari; Miren, Agur, Mirari eta Aintzane eta Nafarroako Trikitixa Elkarteko musikariak igoko dira taula gainera. Joseba Olagarai etxalartarra eta Amaia Eñeterreaga lesakarra izanen dira Euskal Telebistak grabatu eta aitzinerago eskainiko duen saioa aurkezten.

Otsailaren 3an piano emanaldia Pascual Aldave gogoan

Iruñeko Kontserbatorioko eta Orfeoiko zuzendari eta XX. mendeko Nafarroako konpositore onenetakoa izan zen Pascual Aldave lesakarraren jaiotzaren mendeurrena gogoan piano kontzertua emanen du Gloria de Piante Vicin pianistak otsailaren 3an, 19:00etan Harriondoan.



Pascual Aldave (1924-2013).

Gradu eta master bukaerako lanentzat 500 euroko beka

Lesaka ikergai duten 2023-2024 ikasturteko gradu eta master bukaerako lanak egiteko diru laguntza emanen du aurten ere udalak. Aurkeztutako lanen artean (hilaren 30a arte zabalik da epea), bi aukeratuko dituzte eta bakoitzari 500 euroko saria emanen diote.

Alvaro Arbina idazlearekin solasean hilaren 31n

X. Pamplona Negra jaialdiaren barrenean, urtarrilaren 31n, asteazkenean 18:30ean Álvaro Arbina idazle gasteiztarrekin topaketa izanen dute liburutegian. Gazteluko Sargardia Goñi familian oinarritutako *Los años del silencio* bere azken lanaz ariko dira.

#Eman Odola Eguna
EGIN SALTO BIZITZAREKIN

adona

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua
Departamento de Salud / Osasun Departamentua

adona.es

Herriko bestak antolatzeko bilera idekia deitu dute

Online bildutako ekarpenak ikusiko dituzte urtarrilaren 25ean, ortzegunean, 19:00etan, Pello Apezetxea Kulturgunean

IRUNE ELIZAGOIEN

Formulario bidez bestetako ekarpenak biltzeko aukera zabaldu du aurten udalak. Proposamen horiek guztiak aztertu eta herriko bestetako kontuakadosteko bilera egingen dute urtarrilaren 25ean, ortzegunean, 19:00etan Pello Apezetxea Kulturgunean.

Sute Elkartearen batzarra

Urtarrilaren 27an Etxalarko Sute Elkarteko urteko batzar orokorra egingen dute Kulturgunean 10:00etan. Berrikuntza bezala, aurten, herri guziari

irekitako bilera informatibo bat egingen da batzarraren ondotik, elkarteak ezagutzeko eta nahi duenak bazkide egiteko. Suak itzaltzeko pala bereziak Zamudieneko bordan, Iturraldeko bordan, Arrineko bordan, Tolareko bordan, Goienetxegaraian eta Maisterreneko bordan daude.

Horma urtzeko gatza

Herritarrentzat horma urtzeko gatza eskuragarri dago herriko etxean. Behar duenak 608 92 96 98 telefonora deitu (08:00-15:00).

Bingoa BTT probaren alde hilaren 7an

Etxalarko BTT taldeak antolatuta bingoa izan zen Herriko Ostatuan urtarrilaren 7an eta jende andana hurbildu zen. Maiatzaren 4an antolatu nahi dute Etxalarko III. mendi bizikleta Itzulia.



ETXALAR BTT



ANA INDABURU

Txokolatea eta ipuinak Errege Egunean

Eguraldi hotzari aurre eginez, urtarrileko lehen astebururako entretenimendu franko izan zuten herritarrek. Errege Egunean, 26 bat haur eta dozena bat guraso elkartu ziren Larraburuan, txokolate beroa jan, ipuin kontalaria entzun eta kartetan, musean eta partxisean jostatzera.



UTZITAKOIA

Etxalar jaiotza batean irudikaturik

Iruñeko Belenistas Elkartek lan ederra egin du. Argazkian ikus daitekeen bezala, Etxalarko Andre Mari Eliza eta inguruak agertzen dira ohiko jaiotza batera egokituak. Xehetasunik txikiak ere txukun bilduak ageri dira artelan honetan. Urtarrilaren 7a arte ikusgai egon da Baluartean.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA



Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

USOA kooperatiba



📞 948 635 214 📞 605 631 244 ETXALAR

Jauzena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa





Angelita eta Nazario, seme-alabekin Bi-Bideko atean. UTZITAKOA

Bi-Bide janari dendak 60 urte bete ditu lanean

Hamaika bizipen, kontakizun eta pasadizo bizitu dituzte Goietxeko lau paretak eta herriko denda bakarra da orain

ANA ETA ITZIAR

Bi-bide ostatu eta janari denda Angelita eta Nazariok ideki zuten 1963an. 60 urte bete dira. Hala ere, jada 1961ean Atsoltzenezan zegoen denda traspasoan hartua zuten Goietxera etorri aitzin.

1983an Marijo ere pixkanaka ardura hartzen joan zen. 2003ko abenduan, 40 urteren ondotik, ostatua itxi zuten eta nahiz eta denbora batez bertze hainbat dendekin batera aritu ziren lanean, egun herriko denda bakarra da.

Eskerrik asko Goietxeko familia, eskerrik asko Marijo eta

ea elkarrekin urte gehiago ospatzen ditugun.

Zinegotzi kargua utzi

Amaia Iguzkiagirrek zinegotzi izateari utzi dio, udalean sei hilabetez izan ondotik. Udalarren betebeharrak eta bereak uztartzeko arazoak dituela eta, hartu du erabaki zaila. Udalak eskerrak eman nahi dizkio Amaiari duela sei hilabete emandako pausuagatik, hautagaitza aurkeztea ahalbidetu baitzuen, baita egindako lanagatik ere. Dagoeneko lanean ari dira lekukoa hartuko duenaren bila.

Biltokiko urteko batzarra eginen dute hilaren 27an

Ilbeltzaren 27an eginen dute Biltokiko urteko batzar orokorra. Larunbatean, 20:00etan izanen da bilera orokorra eta, ondotik, 20:30 aldera, ezohiko bilera. Bertan, elkarrearen urteko aferak eztabaidatuko dituzte eta gero junta aldaketa bozkatuko dute.

Baratzondo elkarteak Tafallako feriarira irteera

Baratzondok otsailaren 11n Tafallara irteera antolatu du. Izena otsailaren 4ra arte eman daiteke (Axun, Iñaki edo Tere deituz). 08:00etan atera eta 14:00ak arte ferian ibiliko dira. Bazkaldu eta 18:00etan bueltatuko dira. Bueltan Mugairin (Urgain) geldituko dira.



Interesa piztu zuen Patxi Zabaletaren solasaldiak. ANA ETA ITZIAR

Orreagari buruzko liburua aurkeztu du Patxi Zabaletak Biltoki elkartearen

ANA ETA ITZIAR

Giro goxoan joan zen ilbeltzaren 12an, ortzirale ilunabarrean Biltoki elkartearen egin zen Patxi Zabaletaren *Orreaga-Roncesvalles 778-824* liburuaren aurkezpena. Orreagako guda Nafarroako historiaren mugari garrantzitsua izan zela aipatu zuen, bertze hainbat

konturen artean. Emanaldia bukatutakoan Leitzako idazleak pare bat liburu eman zizkion Biltokiri, *Nafarroa Euskal Epikan* eta *Eneko Arizaren Hilobia*. Liburu hauek herriko liburutegian izanen dira edozeinek izan dezan irakurtzeko aukera. Eskerrik asko Patxi.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
AUTOMOTIVE SOLUTIONS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Mozorro Zuriak eta eskolako ikasleak joan den urteko inauterietan. JR AMOROS

Dena prest otsaila inauteri giroan hasteko

40 bat Mozorro Zuri ibiliko dira ortzegunean eta ortziralean baserri baserri eta etxez etxe

NEREA ALZURI

Urteko ospakizunetan hurrengo geldialdia inauterietan izanen da. Mozorro Zuriak urte akabailatik biltzen ari dira antolatzeke. Otsailaren 1etik 3ra tokatzen dira aurten, ohitura den bezala, bertze herri gehienetako inauteriak baino aste bat edo bi lehenago.

Inauterietan otorduak, herri kirolak, musika... osagaietako batzuk baldin badira ere, Mozorro Zuriak herriko etxeetan eta baserrietan egiten duten puxka biltzea da oinarria. Aurten ere, 40 bat gazte izanen dira, eta musikariekin, bi taldetan banatuta, lau auzoetan eta herri kaxkoan, ortzegunean eta ortziralean ibiliko dira. Urtez urte euren etxeetan Mozorro Zuriei harrera egiten dieten herritarren ilusioa ere eskertzekoa da; sukaldaraino sartu eta jatekoa eta edatekoa eskaini eta herriko gazteekin solas batzuk partekatzeke probesten dute.

Mozorro Zurien puxka biltzeak eta otorduak, emakumeen afaria, bertso afaria, mozorroen kalejira, herri kirol saioa, Belfast, Bizphiru Pelau... Egitaraua xehexehe 40. orrialdean duzue.

Herriko ohiturak ttikitatik ikasiz

Eskolan ere modu berezian bizi dituzte herriko inauteriak. Inauterien aitzinetik kolorezko papezko bizkarrekoak prestatzen dituzte eta zaharrenek, baita Mozorro Zurientzat ere.

Ortzegunean, azken urteetan bezala, eskolako haur eta irakasleak Mozorro Zuriz jantziko dira eta eguraldia lagun izanez gero, 11:15ean plazan elkartuko dira Mozorro Zuriekin. Elkarrekin dantzatu eta taldeko argazkia eginen dute. Topaketa irekia da eta herritarrek parte hartzeko gonbita egin du eskolak. Ondotik, Mozorro Zuriak agurtuta, herri kirolak eta bertzelako jarduerak izanen dituzte eskolan.

Ortziralean eta larunbatean, berriz, *puxka-puxka* ibiliko dira. Eskolako kokorrenak (4. mailatik goiti) ortziralean Aientsa, Azkilarrea eta Bordalarrea auzoetan eta larunbatean Eguzkialdean baserri baserri ibiliko dira. Lehenbiziko mailatik hirugarren mailara bitartekoek ortziralean herrian eginen dute itzulia. Eta larunbat arratsaldean mozorrotu eta kalejira izanen dute.

Larreak erretzeko eta su egurren eskaerak

Urteko garai honetan ohikoa den bezala, udalak bi bando zabaldu ditu: larreak erretzeari eta egurra eskatzeari buruzkoak. Larre erretzeen kasuan, erreketak herri lurretan egin nahi izanez gero, herriko etxean egin beharko da eskaera ortzirale hau, ilbeltzaren 26a, baino lehen. Bertzetik, su egurra eskatzeko epea ilbeltzaren 31n bukatuko da. Etxe bakoitzak lote bat eskatzen ahal du (7-8 m³ eta pagoa) Etxera eramatea nahi duenak 300 euro ordaindu beharko ditu eta garraioaz norbera arduratzen bada, 50 euro.

Arantza Bizirik taldearen batzarra ortziralean

Arantzako lurretan egin nahi duten makroproiektu eolikoek kontra, lanean segitzen du Arantza Bizirik taldeak, eta zer egin badela iritzita, hamabortzean behin biltzeko asmoa du. Hurrengo batzarra, ortziralean, ilbeltzaren 26an, eginen du, 18:30ean Ekaitza Elkartean, eta herritarrei joateko deia egin die. Bertzalde, *Arantza bizirik* mezuarrekin eta makroproiektu eolikoek kontrako irudierekin banderolak prestatu dituzte eta ondoko egunetan paratuko dituzte salgai. Xehetasun gehiago hurrengo aldizkarian.



Itziar Mitxelena eta Ander Almandoz *Mihiluze* saioan.

Herritarrak telebistako pantailaren bertze aldean

N. ALZURI

Pantailaren bertze aldean herritarrak ikusi genituen abenduan. Alde batetik, Iban Zugarramurdi Alzuri eta bertetik, Itziar Mitxelena Gamio eta Ander Almandoz Indakoetxea.

Esne Beltza taldeko bateria jotzailea da Iban Zugarramurdi taldearen sorreratik. *Esne Bidea* diskoarekin 17 urteko ibilbidearen akabaila iragarri zuen taldeak azaroan eta martxoan abiatuko dute diskoa aurkezteko kontzertu bira. Hainbat hedabidetan izan dira horren berri ematen, tartean, Xorroxin Irratian, eta ETB1e-



Iban Zugarramurdi 'Biba zuek' saioan.

ko *Biba zuek* saioan ere izan zen bere taldekideekin.

Itziar Mitxelenak eta Ander Almandozek, berriz, *Mihiluze* saioan parte hartu zuten. Zazpi saio egin zituzten eta proba guzietan ederki aritu ziren.



Markel Telletxea
Kol. Zbk. 725

ORTODONTZIA ETA
ODONTOPIEDIATRIA - PADI
HORTZETAKO ESTETIKA
ODONTOLOGIA
OROKORRA



Mikel Telleria
Kol. Zbk. 1099

AHOKO KIRURGIA
PERIODONTZIA
INPLANTOLOGIA



Markel Etxeberria
Kol. Zbk. 1550

ENDODONTZIA



Lourdes Neira
Kol. Zbk. 1551

ODONTOLOGIA
OROKORRA



Eukene Iraola
LAGUNTZAILEA



Ainhoa Arrieta
LAGUNTZAILEA



Mainer Salaberria
ADMINISTRAZIOA



astelehenetik
ortziralera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez



www.hortzclinika.es

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. 722 662 478 | lidera@hortzclinika.es

@liderahortzclinika

Hiru egunez gure herrietan ibiliko da Korrikaren lekukoa

Martxoaren 15ean Baztandik, 19an Leitzatik eta Goizuetatik eta 24an Bortzirietatik eta Xaretatik pasatuko da Korrika

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15ean Baztanen, martxoaren 19an Leitzan eta Goizuetan eta martxoaren 24an Bortzirietan eta Xaretan. Eskualdetik hiru aldiz pasatuko da Korrikaren lekukoa. Aurtengoa 23. Korrika izanen da eta ohiturari segituz, aitzineko Korrika bukatu zen herrialde berean hasiko da oraingoa: Gipuzkoan, hain zuzen ere. Martxoaren 14an Irunen hasi eta eta hamar egunen buruan, martxoaren 29an, bukatuko da Baionan.

Martxoaren 15ean Baztanen

Euskararen aldeko lasterketa erraldoia hasi eta bihamunnean, martxoaren 15ean, ortzirean ailegatuko da Korrika Baztanera. 13:16an sartuko da Baztanen Izpegin barna. Handik Erratzuko bidea hartuko du eta 14:14an ailegatuko da bertara. Erratzu gibelean utzi eta Arizkunera joanen da (14:34), handik Elbetara (15:04), Elizondora (15:08) eta Iruritarra (15:26). Iruritatik Artesiagan barna, Eugiko bidea hartuko du lasterketak eta Nafarroako Pirinioetan bukatu du eguna.

Martxoaren 19an Leitzan eta Goizuetan

Martxoaren 19an, asteartea, berriz ere bisita egingen du eskualdean Korrikak, eta 15 urteren ondotik, Goizuetara ailegatuko da. Uitzin barna, 16:31n sartuko da Korrika Leitzako herrigunera. Leitza gurutzatu eta handik Goizuetara joanen dalasterketa NA-4150 errepidean barna eta 18:38an ailegatuko da Goizuetara. On-

dotik, Hernanirako bidea hartuko du eta 20:16an utziko du Nafarroa.

Martxoaren 24an Bortzirietan eta Xaretan

Lasterketa Baionan bukatu aitzinetik, igande goizaldean, Bortzirietatik eta Xaretatik pasako da Korrikaren lekukoa. Oartzunen barna ailegatuko da Lesakara. 01:43an sartuko da lasterketa Nafarroan, eta 03:25ean ailegatuko da Lesakara. Handik Berara joanen da, eta Agerrara 04:01ean ailegatuko da. Handik, Lizuniagan barna Sara aldera abiatuko da. 05:17an Sarako herri-gunera ailegatuko dela aurreikusitako dute. Handik Senpereko bidea hartuko du, eta 06:09an sartuko da Senperen. 06:59an utziko du Senpere lasterketak eta ordu batzuk beranduago, 12:29an bukatuko da Korrika Baionako Askatasunaren plazan.

'Harro Herri'

Harro Herri. Horixe da Korrikaren aurtengo leloa. Duela bi urteko edizioaren indar erakustaldian gogoan, «euskararen aldeko mugimendua zabaldu» nahi du Korrikak, «mugi dezagun euskararen herria, harik eta ingurua mugiarazi arte».

Harroeta herrihitzeekin «Euskal Herri euskaldunaren ideia margotu» nahi dute: «Harro gara, bai! Banakotasunetik urrun taldea, komunitatea, herria garelako. Euskara herri baten hizkuntza da, eta Korrikan batasun sentimendua hauspotu nahi dugu, elkarrekin etorkizunean aitzinera

23. KORRIKA HARRO HERRI
Irundik Baionaratz 2024ko martxoaren 14tik 24ra

MARTXOAK 15, ORTZIRALEA

Erratzu	14:14
Arizkun	14:34
Elbete	15:04
Elizondo	15:08
Irurita	15:26

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Leitza	16:31
Goizuetara	18:38

MARTXOAK 24, IGANDEA

Lesaka	03:25
Bera	04:01
Sara	05:17
Senpere	06:09

MARTXOAK 14, IRUNDIK

Mar. 14	Irun-Uztaritze
Mar. 15	Hazparne-Abaurregaina
Mar. 16	Eskaroze-Mendigorgia
Mar. 17	Artaxoa-Sesma
Mar. 18	Allo-Elorriaga
Mar. 19	Dulantzi-Usurbil
Mar. 20	Orio-Gernika
Mar. 21	Bermeo-Ortuella
Mar. 22	Abanto-Mañaria
Mar. 23	Otxandio-Oregeta
Mar. 24	Oartzun-Baiona

korrika.eus

egiteko energia kolektiboa, alegia».

Omendua: Azterketak Euskaraz

23. Korrikan, Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko dute, edo, zehazki, baxoa eta brebeta* euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak.

Korrika batzordeak martxan

Korrika behar bezala atera dadin, eskualdeko Korrika batzordeak ere lanean hasiak dira. Joan den astean, adibidez, Bortzirietako, Xaretako, Leitzako eta Goizuetako batzordeak egin zituzten bilerak. Aste honetan, Malerrekako batzordea asteazkenean biltekoea zen, Donezteben, man-

komunitatearen egoitzan. Hilabete hondarrean, hilaren 31n, berriz, Baztango Korrika Batzordea Elizondoko Suinki euskaltegian bilduko da, 18:00etan.

KULTURKARI
Dizine grafikoa | Publikatzailea
www.kulturkari.com

Jatetxe eta ostatuak
Menuak, kartak, mahai-oihalak...
Hainbat material, erabat pertsonalizatuta

Zaindu maite duzun hori...



Nola erran?

Hotz da? Hotz handia ari du?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Eguraldi aditz batzuk ekarri ditugu aldi honetan Euskararen Txokora. Deus baino lehen oroitarazi behar dugu eguraldi aditzetan ez dagoela ergatiborik (NORK kasurik), nahiz eta aditza *du* erregimenekoa izan: aldatu, altxatu, argitu, arindu, atertu, berotu, bota, busti, ekarri, epeldu...

Hona adibide batzuk: Atertu du, euria egin du, eguna luzatu du, haizea aldatu du, haizea atera du, elurra ari du...

Baina badira bertzelako egiturak eta hona hemen adibide batzuk:

- Euria/elurra/kazkabarra izan:** Euria da; Kazkabarra da goian-behean...
- Hotz/bero izan edo egon:** Hotz da karrikan; Bero da kanpoan; Kanpoan haizea dabil eta hotz dago; Itzalean ere bero handia dago...
- Ateri/eguzki izan:** Kanpoan aterri da...
- Oskarbi/eder izan:** Oskarbi da; Eder da aroa...
- Ateri/oskarbi/izar/goibel/hodeitsu... egon:** Ateri dago; Izar dago; Zerua goibel dago...
- tzen ari izan:** Argitzen ari du; Iluntzen ari du; Freskatzen ari du...
- Ari izan:** Elurra ari du; Langarra ari du; Hotz handia ari du.
- Izena+egin:** bero/hotz/sargori egiten du; Gaur horma egin du; Elurra egin du...

Eguraldia hizpide hartuta, kontuan izan behar dugu, *Elurra ari izan* eta *elurra izan* moldeak aspektua puntukaria denean soilik erabiltzen direla, hau da, ekintza oraindik bukatu gabe dagoela adierazteko: Elurra, euria... ari du/zuen mendian. Elurra da/zen mendian.

Elurra egin, berriz, aspektua ez puntukaria denean, hau da, ekintza bukatua dela adierazten duenean: laz elur aunitz egin zuen.

Kalko ustelak

'Eredu ≠ adibide'

Gaztelaniazko 'ejemplo' edo frantseseko 'exemple' hitza modu kalkatuan erabiltzeak sortzen du nahastea. Euskaraz, gauza bat da *eredu* (sin.: 'modelo', 'jarraibide', 'prototipo'); Euskal autore gailenak ditu *eredu*. Eta bertze gauza bat *adibide* (sin.: 'argibide'); *Adibide bat jarriko dizut hobeki ulertzeko.*

Osatu bikoteak

BIDALI	GOITIKA
BOTAKA	LEGAMIA
GORDEKA	IGORRI
IBAI	ALTXAPEKA
ORANTZA	PRESAKA
TARRAPATAKA	UGALDE

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61



Urtarrilaren 14ko jaialdian parte hartu zuten pilotariak. MAIDER PETRIRENA

Ados pilota elkartearen jaialdi bikaina frontoian

Lehen mailako eta promozio txapelketako partidez gain, astelehenero entrenatzen duten neskenak ere jokatu zituzten

MAIDER PETRIRENA

Ados pilota elkarteak antolatutako eskuz binakako txapelketako partidak jokatu zituzten urtarrilaren 14an. Ados pilota eskolako gaztetxoek erakustaldiarekin abiatu zen jaialdia. Hiru partidu eder jokatu zituzten. Lehenean Naroa Elizalde Mariezkurrena, Nerea Altxu Martin, Malen Bereau Mindegia eta Mairi Irigoien Altxu aritu ziren. Bigarrenean, Naroa Elizalde Larretxea, June Bergara Zeberio, eta Olaia-Ane Deskarga Ariztoi. Hirugarrenean, berriz, berriki pilota mistoarekin entrenatzen hasiak

diren Janitz Irigoien Altxu, Irati Altxu Martin, Dunixe Alberro Isasi eta Iraide Iriarte Petrirenak jokatu zuten. Astelehenetan Sunbillan eta asteazkenetan Latasan egiten dituzten entrenamenduetan ikasitakoa praktikan ezin hobeki jarri zuten. Ondotik, promozio txapelketan Ibarrola eta Nahia Bertiz Anzizar herriarrak 22-11 irabazi zieten Galeano eta Perezi. Maila nagusian, berriz, Arrieta eta Maitte Ruiz de Larramendi Mujikak 22-7 irabazi zieten Naroa Elizalde Etxekolonea zubietarrari eta Mendibururi.



ESKOLAK UTZIA

Nafarroako aratxea legoen bidez

Nafarroako aratxearen inguruko tailer bat burutu zuten urtarrilaren 11n eskolako Haur Hezkuntzako 4-5 eta Lehen Hezkuntzako 1-2ko taldeek. Legoen bidez burutzen den jarduera da. 5. eta 6. mailako ikasleak, berriz, eski kanpainan izan ziren, Malerrekako bertze eskola ttiketakoekin batera.



UTZITAKOA

Inhar Amenabar pilotua saritua

Nafarroako Automobilismo Federazioaren urteko sariak urtarrilaren 13an banatu dituzte Lesakan. Slalomean, turismoetan lehen saria Lesakako Joseba Lekuonak eskuratu du eta bigarrena Sunbillako Inhar Amenabarrek. Argazkian, Igone Salaberria kopilotua ageri da, Inharren saria jasotzen.

GARBI

ORDUBETE BAINO GUTXIAGOAN EDOZEIN ARROPA MODU ERRAZEAN GARBITU ETA IDORTU!

AUTOZERBITZU GARBITEGIA

MANTAK, EDREDOIAK, NORDIKOAK, EGUNEROKO ARROPA...

DIRUA DENBORA AURREZTU

ARROPA GARBITU eta DESINFECTATU ERAGINKORTASUN eta KALITATE HANDIAREKIN

633 424 263  **Urteko 365 egunak 08:00 - 22:00** LEITZAKO BIDEA, 29 **DONEZTEBE**

Literarte jaialdiaren parte izanen da liburutegia

Otsailean 'Emakume izoztua' liburuaren lanketa dramatizatua eginen dute eta martxoan, taularatzea

OIER ZULAIKA

Liburutegia Literarte jaialdian parte hartzeko aukeratua izan da. Jaialdiaren helburua da lau liburu (liburutegien sareko irakurketa-klubetan landutako artean aukeratuak); lau antzerki lan (aukeratutako liburuetan oinarritutako eta Nafarroako autoreek idatzitako lau sormen-lan garaikide); lau istorio berri (eta taularatze bat (ikusleen eta lanaren talde artistiko eta sortzailearen arteko topaketa eta elkarrizketa) zabaltea.

Jaialdiaren barrenean, herrian bi hitzordu izanen dira. Otsailean Annie Ernauxen *Emakume izoztua* liburuaren lanketa dramatizatua eginen dute eta martxoaren 21ean, berriz, taularatzea izanen da. Aitzinerago zehaztuko dituzte data zehatzak.

Literarte liburutegien, irakurketa klubien, kultur etxeen eta Producciones Maestras antzerki konpainiaren arteko lankidetzak lana da.

Liburutegiko datuak 2023an

Iazkoa urte hagitz urte ona izan zen herriko liburutegiarentzat. Mailegu kopurua 4.406 alekoa izan zen (iaz baino %20 gehiago); bertaratutako kopurua 5.343ko izan zen (iaz baino %16 gehiago) eta Interneteko erabiltzaileen kopurua 1.200ekoa. Bazkidetzak kopurua ere 2023an dezente igo zen eta une honetan 695 bazkide ditu liburutegiak.

«Aurten liburutegiak 30. urteurrena ospatuko du eta datu hauek indarra eta gogoia ematen digute ospakizunak egin eta aitzinera segitzeko», dio bertako arduradunak.



UTZITAKOIA

Palestinari buruzko solasaldia

Malerrekako eta Bertizaranako Lapaitza Gazte Asanbladak antolatuta, Palestinari buruzko solasaldi jendetsua egin zuten urtarrilaren 14an. Lidon Sorianok eman zuen hitzaldia eta antolatzaileak gustura gelditu ziren solasaldiarekin zein herriarren erantzunarekin.

Gizarte Segurantzako bulegoa irekia

Denboraldi batez itxia egon ondotik, berriz ere ireki dute gizarte segurantzaren arreta eta informaziorako zentroa. Bulegoa Santa Luzia karrikako 5. etxebizitzan dago, 1. pisuan. Asteleheneetik ortzirralera egonen da irekia, 09:00etatik 14:00etara eta telefonoz ere dei daiteke 948 45 17 75 zenbakira. Azken urteetan nabarmen murriztua zen ordutegia; egunero irekia izatetik, astean bi aldiz irekitzera pasa ziren, eta COVID-19aren pandemiaren ondotik, ez zuten bulegoa berriz ireki.


Euskaltegiaren matrikulatzeko aukera irekia

Malerrekako IKA euskaltegiak bigarren matrikulazio epea zabalik du martxan dauden taldeetan izena emateko: A1 (goizez eta arratsaldean) eta B2 mailetan. Interesatuak 948 45 15 55 telefonoan informazioa eskatzen ahal dute.

Bertzalde, Irunen hasi eta Baionan bukatuko den Korrika ez da Malerrekatik pasatuko. Hala ere, herritarrak antolatzen hasiak dira, eta Korrika batzordeko bilera urtarrilaren 24an egitekoa zuten Mankomunitatearen egoitzan 18:30ean.

Saioa San Miguel korrikalaria sasoi betean

Saioa San Miguel herritarra sasoi puntu bikainean ari da lasterka. Urtarrileko bigarren asteburuan Donostian Espainiako txapelketara joateko aukera lortu zuen eta Salamancan lehiatuko da 800 metroko lasterketan. Asteburu berean, Nafarroako krosetako txapelketa izan zen 20 urtez azpikoetan.



UTZITAKOIA



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Inauterietarako aparkalekua Donezteben prest

Doneztebeko eskolan autoak aparkatu eta handik Iturenera eta Zubietara etortzeko autobus zerbitzua izanen da lehen aldiz

ARKAITZ MINDEGIA

Gaingan ditugu inauteriak. Errege bezperan joare soinuak entzun ondotik, herritarrei gogora etortzen zaie inauteriak ate joka ditugula. Aurtengoak ere hemen dira, urtarrilaren 25ean, ortzegun ilunabar partean abiatuko dira puska biltzearekin. Egunez egun, joare eta mozorroekin, bai Iturenen eta Aurtizko karriketan besta giroa nagusi izanen da. Ortzegunarekin hasi eta asteazkena bitarte izanen dira ospakizun gehienak. Baina ondoko asteburuan ere, Iturenen kontu egunarekin eta Aurtizko zaharren afariarekin eta bihar-munean kontuak eginez itxi-ko dituzte inauteriak. Egun guztiek dute beraien berezitasuna, eta egitarauaren berri duzue aldizkari honetako gehigarri berezian. Eskolan ere beraien inauterietako seinalea eginen dute. Zenbait ekintzen artean gustukoena kalejira izaten dute. Mozorro eta joareak jarri ondotik herriari buelta emanen diote irakasle eta ikasleek eta bazkaria izanen dute.

Baina ohiko egitarau horren inguruan, bada berrikuntza aipagarria aurtten. Azken bi egunetan urtero hurbiltzen den jende kopurua ikusita, arazoak sortzen dira ibilgailuak aparkatzeko orduan. Azken urte hauetan auto aunitz izaten dira karreteran gaizki aparkatzen direnak, honek arazoak sortzen ditu eta aurrerantzean isunak ere etor daitezke. Hori ikusita, Ituren eta Zubietako udalak elkarlanean arazo horri aurre egiteko Doneztebeko eskolako futbol zelaian aparkatzeko aukera emanen die aurtten hurbiltzen diren guztiei. Etor-tzen den guztiak Doneztebetik Iturenera eta Zubietara joateko autobus zerbitzua izanen du. Erabiltzaileak aparkalekuan eskuragarri izanen ditu autobuseko txartelak, bidaiari bakoitzeko bat hartu beharko dute. Txartelak egun bakoitzean joan-etorria egiteko balioko du. Ituren eta Zubietako udalek eskertuko dute aukera berri hau praktikan jartzea eta ahalik eta gehien zabaltzea berria.



UTZITAKOA

Familia espazioa herriko etxeko ganbaran

Ttiki eta familientzako espazio berri bat egokitu dute herriko etxeko ganbaran. Egitasmo berri honen helburua, jolas eta mugimendu libreaz gozatzear gain, beraien artean ezagutu eta tarte goxo bat edukitzea da. Astean bi egunez elkartzen dira, asteartetan (17:00-19:00) eta ortziraletan (11:00-13:00).



MAIDER PETRIRENA

Ados pilota eskolakoak lanean

Ados pilota eskolako neska Nafarroako kirol jokoetako banakako txapelketan hasiak dira. Nafarroako Pilota Federazioak antolatutako Bost kirol jardunaldian ere parte hartu zuen urtarrilaren 3an Labriten. Sunbilan, binakako txapelketa baino lehen partida ederrak jokatu zituzten.

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6

31700 ELIZONDO

T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1

31780 BERA

T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22

31740 DONEZTEBE

T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Eltzeta, 20

31770 LESAKA

T. 948638077



Udan hasi ziren neska-mutikoak mosaikoa egiten. UTZITAKOA

Herriko etxeko paretan ere joaldunak nagusi

Iciar Mikelperizenarekin batera herriko neska-mutikoek prestatutako margolana zintzilikatu dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Joaldunak dira gainean ditugun inauterietako protagonista eta herrian inauterietan eta joaldunekin lotutako panelak baditugu lehenetik. Orain, herriko neska-mutikoek Iciar Mikelperizena margolariarekin batera margotutako joalduna ere paratua dago herriko etxeko paretan. Joan den udan hasi ziren herriko gaztetxoak Sunbillako artistarekin elkarlanean, mosaiko bat egin asmoz. Azkenean, ikusita zein txukun gelditu zen mosaikoa, hori oinarri hartuta, paperean margotu du Mikelperizenak.



Haurrak margo lanetan.

Inauterietako egitaraua gehigarrian topatuko duzue eta, udalak, autoak Doneztebeko eskolan egokituko den apartekuan utzi eta autobusa erabiltzeko eskatu du.



IZASKUN ZUBIALDE

Joare soinuak errege bezperan

Errege bezperako goizean kokkorrenak joareak paratu eta bordetara bisita egin zuten. Ondotik, herrira jaitsi eta ttikienekin etxez etxe ibili ziren eskean. Eguerdik partean, berriz, kokkorrek bordetara bisita eginez bukatu zuten eskea. Nahiz eta euria egin, gustura ibili ziren inauterietan iragartzen.



ADOS PILOTA

Etxekolonea irabazi ezinean

Ados pilota elkarteak antolatutako eskuz binakako txapelketan ari da Naroa Elizalde Etxekolonea herritarra, erdi gurea dugun Ane Mendibururekin bikote eginez. Ez dute suerterik izan orain artean eta jokaturako hiru partidak galdu dituzte Etxebarrin, Beran eta Sunbillan.



Miguelena
SUKALDEAK

ETXETRESNAK

PARETA-ARMAIRUAK

SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25
Amezta zeharkarrika, 1
DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.es



TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

MALERREKA / BERTIZARANA



40 bat lagun bildu ziren urtarrilaren 14an Iturengo Herriko Etxean. UTZITAKOIA

Proiektu txikitzaileen aurkako mugimendua lanean

Lanean segituko duela nabarmendu du Malerreka Bizirik taldeak Iturenen egin duen agerraldian

TTIPI-TTAPA ITUREN

«Balorazio orokorra gazi-goza izan zen». Halaxe kontatu dute Malerreka Bizirik taldekoek joan den urtarrilaren 14an Iturengo Herriko Etxeko ganbaran egindako agerraldiaren harira. Gazia «batez ere bertako herritar gutxi hurbildu zelako» eta gozoa «beste plataformetako kideen esperientzia trukateta oso positiboa izan zelako». Eskualdean eta Euskal Herriko beste hainbat txokotan makroproiektu eolikoen kontra lanean ari diren plataformetako ordezkariak bildu ziren urteko bigarren igandean Iturenen: «Arantzako Arantza Bizirik taldekoak, Lesakako Endara Bizirik-ekoak, Baztangoak, Azpeitiko plataformakoak, Arabakoak, Bizkaiko Busturialdekoak...». Malerrekako plataformakoek, ordea, penaz hartu dute «udaletako ordezkari ez hurbildu izana».

Agerraldi hasieran gaur-gaurkoz tramitatzen ari diren proiektuen egoera azaldu zuten. Hiru dira eskualdean egin nahi dituztenak: Irakurri Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaiengo lurretan. Azkua Etxa-

lar, Igantzi, Sunbilla eta Arantzako lurretan eta Usana Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien eta Zubietan.

Mallerreka Bizirik-ekoek taldeak egindako ibilbidearen eta ekimenen berri ere eman zuten. Etorkizunera begirako errotzere ere aritu ziren, eta bide horretan, «herritarrei informazioa ematea eta parte hartzea bultzatzea, abokatuen laguntza errekurtsioak jartzerakoan eta udalekiko jokamoldea» nabarmendu zituzten.

Hitzordua beste herrietako esperientziak partekatuz borobildu zuten. «Makroproiektu eolikoen kontrako borroka nola antolatu aztertu genuen: herritarren partaidetza, udalen jokabidea, legeen inguruko aholkularitza...».

Balorazio gazi-goza egin badu ere, Malerreka Bizirik-ek «proiektu txikitzaileen kontrako borrokari eusteko kemena berretsi» du. Eta gisa berean, «proiektu txikitzaileen kalteak itzulezinak direla» ohararazi nahi izan du: «Herritarrok etorkizunari begira erantzun tinkoa eta demokratikoa emanen dugu. Beraz, presta gaitzen!».



NAGORE ESKUDERO

Aurreneko inauteriak eratsundarrenak

Urtarrilaren 13an, inauteri eguna izan zuten Eratsunen. Bakoitzak bere moztorra soinean jarri eta bazkaria, karrikako buelta eta afaria egin zituzten. Egun osoan, Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsolariak eta Beñat Mitxelena akordeoilaria izan zituzten bidelagun eta giro ederra izan zuten.



Narbarteko eskolako ikasleak gustura ibili dira eskiatzen. UTZITAKO ARGAZKIA

Narbarteko eskolako ikasleek eski kanpainan parte hartu dute

MAITE BERTIZ NARBARTE

Eguberrietako oporrak luzatuz, Narbarteko eskolako 9 eta 12 urte bitarteko haurrak Izaban ibili ziren urtarrilaren 8tik 12ra. Goiko gelakoak izan dira aurreneko eski kanpainan parte hartzeko aukera izan dutenak, eta esperientzia zoragarria izan dela diote.

Eskiatzeaz gain, inguruko herrietako ikasleak ezagutzeko aukera izan zuten, Sunbilla, Legasa eta Iturengo eskoletako haurrekin joan baitziren. Goizetan eskiatzen ibili ziren eta arratsaldetan hainbat ekintza egin zituzten: zinema, museoa, herri kirolak birziklapenarekin lotutako herri garbiketa.

Arantza Hotela maitasunaren babesleku da naturan San Valentín egunerako.

«Maitasuna airean senti daitekeen sentimendu bat da, baina leku batzuetan gehiago arnasten da. Arantza Hotela da leku horietako bat»

Gure hotelean, maitasuna bazter guztietan sentitzen da: bainuontzi propioa eta mendirako bistak dituen logean, bikoteentzako spa eskusiboan, eta menu erromantikoa dastatu ahal izanen duzun jatetxean.

Konektatu berriro egunerokotasunak aunitzetan uzten ez digun magia horrekin.

Gure jatetxean bazkari edo afari gozoaz gozatzeko aukera eskaintzen dizugu, eta spa pribatuko saio bat DOAN bi lagunentzat.

BALDINTZAK: SPAREN IRAUPENA 45 MINUTUKO DA. BI LAGUNTZAT EDO GEHIAGORENTZAT, MENUAK AUKERAN: MENU ERROMANTIKOA, DASTATZE MENUA, EDARIEKIN UZTARTUTAKO DASTATZE MENUA, MENDIUR EDO IZU. KONTSULTA ITZAZU MENUAK GURE WEBGUNEAN: WWW.ARANTZAHOTELA.COM EDUKIERA MUGATUA, ERRESERBAREKIN, MARTXOAREN AMAIERARA ARTE BALIO DUEN ESKAINTZA, BORTZIRIETAKO, MALERREKAKO, BAZTANGO ETA XARETA HERRITARRENTZAKO ESKAINTZA.

Egin ezazu erreserba **+34 654 31 89 49** telefono zenbakian edo info@arantzahotela.com helbidean.





Iazko mus txapelketa Doneztebeko bikoteak irabazi zuen. UTZITAKOIA


Herrietako bestak eta mus txapelketak abian

Martxoaren 14an jokatuko dute mus txapelketako azken fasea Donezteben herriz herriko irabazleekin

TTIPI-TTAPA

Ohikoa den gisan, urtarrilean eta otsailean herrietako bestak eta mus txapelketak jokatu dituzte bazkideek. Herriko delegatu bakoitzak abisatuko ditu bazkideak noiz eta non izanen diren otorduak eta lehiaketak.

Herri bakoitzeko mus txapelketako lehenengoak, bigarrenak eta hirugarrenak Donezteben martxoaren 14an jokatuko duten azken fasera sailkatuko dira. Ondoko sariak izanen dituzte bertan; irabazleek hiruna botila ardo eta gazta bana, bigarrenak bina botila ardo eta gazta bana, eta



Martxoaren 14an egingen dute finala.

hirugarrenak botila ardo bana eta gazta erdi bana.

Bertzalde, elkarteak jakinarazi nahi du otsailean hasiko direla kobratzen bazkideen urteko 15 euroko kuota.

Hurrengo irteerak sagardotegira eta Xabierrera egingen dituzte bazkideek

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 25ean Oianume sagardotegira joanen dira 190 bazkide. Ondoko menua izanen dute bazkatzeko: txistorra egosia, bakailao tortilla, bakailao frijitua, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurreak, kafea eta txupittoa.

Sagardotegiko menuaz gozatzeaz gain, bazkaldu aitzinetik, bazkaldu bitartean eta ondotik, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolariak ariko dira kantari. Otorduaren eta bertsolarien saioaren ondotik, Joxe Angelekin dantzaldia izanen dute.

Xabierrera izen ematea irekia

Martxoaren 5ean, aldiz, Xabierrera egingen dute irteera bazkideek. 12:00etan meza izanen dute eta ondotik bazkaria Xabier jatetxean. Ondo-



Bazkideak sagardotegian. UTZITAKOIA

ko menua izanen dute: kuku-luak, zainzuriak, tomate naturalarekin egindako urdaiazpiko tostak, pikillo piperrak eta bertako txistorra. Gero, aratxe entrekota roquefort gaztarekin eta patata eta piperrekin. Postrerako pantxinetak izanen dute eta edateko ura, ardoa, kafea eta txupittoa.

Irteerarako izen ematea otsailaren 5ean, 6an eta 7an egin beharko da herrietako delegatuei deituz.

Elkarteko bazkideek deskontuak dituzte hainbat zerbitzutan

TTIPI-TTAPA

Urte osoan Arkupeak elkarteak ematen dituen zerbitzuak oroitarazi nahi ditu: Berako Prim fisioterapia zentroa, ortzegunero elkartean Ainara Narbarte podologoa, Juana Telletxea etxez etxeko apaintzailea eta Jaione Irisarri ma-

sajista. Horrez gain, elkarteak akordioak ditu Elgorriagako bainuetxearekin eta Elizondoko Argibel optikarekin.

Zerbitzu horietarako hitzordua zuzenean profesionalekin hartu behar da deituz, eta bazkide izateagatik deskontuak daude.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidades
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...





F. LANCHAS
Akutxiladorea eta berrizatzaillea
Parket eta parket flotatzaillea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



MARI TX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- BOLETIN INDUSTRIA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Ihoteak LEITZA 2024



Egitaraua

Ilbeltzak 26, ostirala

Goizean eskolako haurren kalejira.

Ilbeltzak 27, larunbata

14:00etan Eskelarien bazkaria Aurreran
16:00etan auzoetako eskea.

23:00etan Atekabeltzen: Ilargia ere askatuko dugu! 23:30ean Karaokea Atekabeltzen. 02:00 Özkülüz Dja.

Ilbeltzak 28, igandea

12:00etan gurdien irteera eta mozarroen kalejira Incansables txarangarekin. Txutxu trenaren ere ibiliko da. 14:00etan bazkaria eskolako jangelan. Ondoren Incansables txarangarekin erronda. 16:00 Txutxu trenaren. 19:00-22:00 musika Jose Mendizabalen eskutik Karrapean.

Ilbeltzak 29, astelehena

09:00etan Gorritzaran, Arkixkil, Erreka eta Sakulu auzoetako eskea txistulariekin

eta Incansables txarangarekin. Ondoren Eskelarien bazkaria Aurreran. 17:00etan Umeen kalejira plazatik hasita trikitilarekin eta bukaeran txokolate jana plazan. 19:00-22:00 Karrapean Xaibor Dja.

Ilbeltzak 30, asteartea

09:30ean Erasote auzoan eskea txistulariekin. 11:00-14:00 eta 16:00-18:00 puzgarriak frontoian. 18:30ean Atsaurer kalejira herriko musikariekin plaza-tik abiatuta 20:00-21:30 eta 23:30-01:00 3T tuk taldearen emanaldia Karrapean.



Melo Pinturak koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
pinturasmelos@gmail.com



EROSKI city



Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71 ongi pasa ihoteak!



PERITZA
TABERNA

Ihote onak pasa eta txintxo ibili

MILA ESKER ANTOLATZAILEEI

ongi pasa ihoteak!
MAIMUR

Herriko Plaza
LEITZA

Tel. - Faxa:
948 510 146

maimurleiza@gmail.com

- Prentsa • opariak • testu liburuak
- Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
- Inprenta lanak • fotokopiak



948 610 974 | LEITZA



Lirain
Arropa-denda

ONGI PASA IHOTEAK!

Elbarren 34, LEITZA

676737856



leitzara
taberna

Pintxo aukera zabala!

ONGI PASA IHOTEAK!

677 721 688
Uhartre Gotzaina 2 LEITZA

MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria

Landa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 - 669 368 991
LEITZA

gaztelu scl

KALERAJAZIOA - SANEAMENDUA - GASA - ITURGINTZA - KLIMATIZAZIOA
BATA ZURTAGARI ENERGETIKOAK ERZ

Landa Industrialdea, 21 • LEITZA
T. 948 510 086
Info@fontaneriagaztelu.com • www.fontaneriagaztelu.com

ONGI PASA IHOTEAK!

FISIOETXEA
Ane Egizabal Lata
Fisioterapeuta

ONGI PASA IHOTEAK!

K-STRETCH METODOA 026 kolegiatu zentzia
Osteopatia
Gimnasia Abdominal Hipopresioha
Bizkortze ariketak - Kirel eta Zirkulazio Masajea

Uhartre Gotzaina, 8 3.C • LEITZA • T. 948 510 730

KIDE
aholkularitza

KONTABILITATEA
ZERGAK
AUTONOMOAK
ENPRESEN SORPERAK
ERRENTA AITORPENAK

AHOLKULARITZA JURDIKOA
NOMINAK, KONTRATUAK,
ESKRITURAK TRAMITATZEA:
HERENTZIAK,
LOKALAREN SALEROSKETAK.

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind, 18 - 1ª pisua
T. 948 510 990 - F. 948 510 429
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5-2 - T. 943 420 348

www.kide.eus
info@kide.eus - izaskun@kide.eus



«Herrian sortzen den giroagatik maite ditut inauteriak»

OIHANA SAENZ LASARTE LEITZAKO INAUTERI ZALEA

Irribarre zabal bat ateratzen zaio aurpegiari Oihanari inauteriei buruz hitz egiten hasitakoan eta bere hitzetan: «irribarre hori da inauterien deskribapen hobereana».

Oso inauteri zalea da eta afizioa nondik heldu zaion galdetuta, argi dio: «herrian inauterietan sortzen den giroak berak eraman»-duela horretara. Herri bizia da Leitza eta urtean zehar «hainbat ekitaldi eta pesta bikainak antolatzen badira ere, bere ustez: «inauteriek xarma berezia dute». Izan ere, Arbola doinua eta txarangaren lehenbiziko akordeakaditu orduko gorputzadantzan jartzen omen zaio: «dudarik gabe! Esanen nuke inauterietako ikurra bihurtu dela Arbola kanta».

Leitzako inauterietako egitaraua eskuetan hartu eta ekitaldien errepasoa egiten hasitakoan, gehienetan parte hartu izan duela azaldu du Oihanak: «eskean, egunero atsaretuta, igandeko desfilean... asko gozatzen dut inauterietan». Atsare tradizionalen kalejira omen da barrutik ezagutzen ez duen ekitaldi bakarra: «ez dut inoiz parte hartu, baina ekitaldi polita da betiko atsareen ohitura mantentzeko». Antolakuntza lanetan ere ibilizen Aurrera elkarteko zuzendaritzako kidea izan zenean eta azpimarratu du hor barruan lanean aritzen zaren momentuan konturatzen zarela inauteriek eta herrian antolatzen diren bestelako pestek eta ekitaldiek «atzean

EZKAIN eraikuntzak S.L.

ongi pasa ihoteak !!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T./F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

ongi pasa ihoteak!

GAZTAÑAGA
TABERNA

OTARTEKOAK
•
PINTXO BEROAK
•
KAXUELAK

948 610 708 - LEITZA

duten lanaz». Elkarlana goraiatu du: «udalak, Aurrerako komisio ezberdinek, pesta batzordeak, boluntarioek, eragileek, herriko txistulariek eta gainerako guztiek egiten duten lana benetan eskertzekoa da».

Ttikitatik inauteri zale

Ttikitatik, bizi eta maite izan ditu inauteriak. Gogoan du haurra zela «ilusio handia» izaten zuela inauterietarako, «eskolan ere atsaureak eskulanak eginez prestatzen genituen». Kuadrillan ere oso txikitatik hasi ziren inauteri giroaz gozaten: «bereziki gogoan dut aitoren laguntzarekin kuadrillan egindako lehenengo karroza». Hamaika pesta egin eta hamaika atsaure jantzi dituzte geroztik eta urte hauetan guztietan «inauterien esentzia mantendu» dela iruditzen zaio, «baina dena aldatzen doan moduan, baliteke zerbait aldatu izana». Azken urteetan adibidez, «igandeko desfilean karroza kopurua asko jaitsi dela ikusten da. Niri desfilea eta baserrietako eskearen ohitura galtzeak pena handia emango lidake».

Eskea

Ekitaldi guztien artean bat aukeratzeko eskatutakoan, eskea da guztien artean nabarmendu nahi izan duena: «ibilia naiz herriko eskean trikitixarekin eta lagunekin, baita baserrietako eskean ere». Azken urteetan ez du nahi beste gozatzerik izan, baina badu berriz ere eskean ibiltzeko asmoa: «azken urteetan lana dela eta gutxiago nabil, baina egunen batean bueltatuko naiz».

Oso gaztea zela atera zen lehenengoz herriko eskean eta «baserrietakoan, berriz, hogeitertekin edo». Hasieratik harrapatu zuen bertako giroak: «inauterietako egunik berezietakoa da. Baserrietaren eskuzabaltasuna eta

harrera ona azpimarratuko nituzke eta bertan biltzen garen herritarren artean sortzen den laguntasuna eta giro paregabea».

Egunero atsaure bat

Egunero dute atsauretzeko ohitura: «gaur egun kuadrillan larunbaterako prestatzen dugu zerbait, eta gainerako egunetan etxean aurkitutako trapu edo konplementuekin atsauretuta bada ere, zerbaitekin ateratzen gara». Halakoetan, «irudimena martxan jarri, Interneten begiratu eta ahal den tokitik» ateratzen dituzte ideiak: «hori izaten da zailena». Atsaurea erabaki ondotik, hutsetik egiten dute guztia: «ideiak landu, josi eta dena guk egiten dugu». Aurtengoan ideia izan eta «nola egin pentsatzen» pasa dituzte ordu batzuk eta aitortu du azkeneko aste-buruan egin dutela dena: «beti bezala, aurtan ere, zezenak harrapatu gaitul».

Azken orduko larritasunekin edo ez, atsaure ederrak jantzi izan dituzte azken urteetan. Kuttunena aukeratzea ez da lan erraza Oihanarentzat: «Power rangerrak, Ekobulle ekotxaranga, Piruletak, Gadget inspektorea, Zatoak, Ninja dortokak, *Un, dos, tres*-eko azafatak...»

Oihal, kolore, ileorde eta betaurrekoen dantza horretan, ikusi beharko da zein izanen den Oihanak aurtengorako prestatu duen ezustekoa. Hori ere bai baita inauterietako saltsa: parekoa ezustean harrapatu eta aurpegietan irribarreak marratzea.

«ATSAURETZEKO IDEIAK LANDU, JOSI ETA DENA GUK EGITEN DUGU»



ZORTZIKO
LEITZA - 948 510 720
ONGI PASA IHOTEAK!



BEATRIZENEA
TABERNA-JATETXEA
Ongi pasa ihoteak!
menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak
Mikel Douña, 2 · Tel: 948 510 991 · LEITZA



ZEURE BURUARI DENBORA ESKAINIZ ZAINDU
Gozatu Ihoteak!
Elbarren kalea, 43, 2. Aldea
Tel: 646 508 753



Lopenea
Ongi pasa!
Elbarren, 47 - LEITZA
666 27 35 34 - 666 04 00 34
www.lopenea.com
BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK



MUSUNZAR
OSTATU-JATETXEA
IHOTETARAKO MENU BEREZIA!
Elbarren, 14 - LEITZA
747 406 968



TXOKO TABERNA
Plater konbinatuak, errazioak, otartekoak...
ONGI PASA IHOTEAK!
Elbarren, 22 Leitza
948 510 227



Leitzako Udala
Ongi pasa ihoteak!
[Image of a street scene with people and buildings]



LEIMEN S.L.
Era guztietako elektrizitate lanak
ONGI PASA IHOTEAK!
LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david



IGANTZIKO UDALAK
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei



inauteriak 2024

IGANTZI

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



Egitaraua

Otsailak 2, ortziralea

Egun guzian mozorroak etxez etxe eskean eta musika jotzen ibiliko dira. **17:00etan** haurren jokoak izanen dira. **18:00etan** dantzaldia izanen dute Oihan Vegarekin. **Arratsean** eskean aritu direnak afaria egingen dute Biltokin.

Otsailak 3, larunbata

Egun osoan mozorroak etxez etxe eskean eta musika jotzen ibiliko dira. **14:30ean** bazkari irekia egingen dute haur eta helduentzat. Bazkariko txartelak Bi-Biden salgai. **Arratsean** eskean aritu direnak afaria egingen dute Biltokin.



WEB DISEINUA

Enpresa, elkarte eta erakundeentzako web orriak gailu guztietara egokituak.

Landetxeak - Komertzioak - Gremioak

Ordenagailu, tablet eta mوبiletara egokituak

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad

Info +
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tppi.eus
www.kulturkari.com

ESKATU
AURRE
KONTUA

inau 2024 teriak SUNBILLA

sasoi
eraikuntzak

Ongi pasa inauteriak!

info@sasoi.eus - www.sasoi.eus
T: 948 451 596

JANARI - JANUA

MARISOL ONGI PASA INAUTERIAK

JANARIK | TABAKA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T 948450608

Egitaraua

Ilbeltzak 26, ortziralea

08:30ean gazteen gosaria Ariztigain kanpinean. **Ondotik** bi taldetan banatuta baserriz baseri ibiliko dira Joxe Angel eta Modestorekin. Mendaur aldekoek, Fonda ostatuan bazkalduko dute eta Meaka aldekoek Bustitz ostatuan. **16:00etatik 19:00etara** herriko tikieneztat musika frontoian Iñaki Djarekin. Arratsaldean txokolate jana. **21:30ean** gazteen afaria Fonda ostatuan eta Emakumeen Afaria Ulibeltzak elkartearen. Emakumeen afariaren ondotik sorpresa izanen da.

Ilbeltzak 27, larunbata

10:00etan gazteen gosaria Bustitz ostatuan. Egun guztian zehar etxez etxe ibiliko dira Beñat Mixelena akordeolariarekin. **17:00etatik 20:00etara** haurrentzako diskofesta egonen da Ulibeltzak elkartearen J&J Djarekin. Gauean gazteen afaria Fonda ostatuan izanen da.

Ilbeltzak 28, igandea

11:00etan karrozen desfilea Ulibeltzak elkartetik abiatuta. Desfilean zehar opilak, gaztainak, salda, tortilla eta ardoa banatuko dituzte ikusleen artean. Boletoak ere salgai izanen dira. Desfile bukaeran bi magra, bildots bat, bi gazta eta bi ardo botila zozketatuko dituzte plaza inguruan. **14:30ean** bazkaria izanen da Ulibeltzak elkartearen eta bazkari bukaeran txaranga. **Ondotik** dantzaldia Agerralderen eskutik.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

948 63 14 62 / 639 60 80 34 / 639 56 69 65

Zalain Ind., 42 Bera.

LIZUN
GAZTANDEGIA
ONGI PASA INAUTERIAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

649 122 816
javieribarra@ibarraeraikuntzak.eus

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

Etxebizitza berriak
Zaharberritzeak
Erreformak
Konponketak
Teilatuak
Harri eta hormigoiz lanak
Mota guztietako igeltseritza lanak

**GREMIOEN KOORDINAZIOA
SUNBILLA (NAFARROA)**

Ongi pasa inauteriak!

**FONDA
OSTATUA**

DONIBANE, 7
SUNBILLA

Ongi pasa inauteriak!

JAVI PETRIRENA
Iturgintza eta elektrizitatea

EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK

- AEROTERMIA
- GASA
- KLIMATIZAZIOA
- EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

INSTALAZIOEN FINANTZAKETA % 0 (24 hilabete)

Instalatzailer balmendua

Tel. 679 354 947
jpinstalazioak@gmail.com

Ongi pasa inauteriak!

ONGI PASA INAUTERIAKI

SU EGURRA - PIKETEAK
GARRAIOAK - ITXITURAK
GARBITZE MEKANIKOAK
EGUR ATERATZEAK - ESKABAZIOAK

ALTZURI
MENDI LANAK

31791 SUNBILLA
altzuri@gmail.com
www.altzuri.com
M. 699 461 394 - 659 867 287



larreta lanak ol

SOLAMENDU AKUSTIKOA
PLADURRA
IGELTSU PROIEKTATUA
SOLAMENDU TERMIKOA



Bera - Nafarroa

www.larretalanak.com - larretalageltsu@gmail.com
Gorka Arrebea 627 225 514 • Juanen Saralegi 637 921 299

ukulu
inmobiliaria


Ongi pasa inauteriatik!



Lekueder karrika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

SUNBILLAKO UDALAK

Inauteri zoriontsuak opa dizkizue sunbildar eta bisitari guztioi




«Inauterietan herrian egiten den lan guztia azpimarratuko nuke»

IRATI AGESTA LATASA SUNBILLAKO GAZTEA

Zuria eta beltza alboratu eta milaka kolore aukeratu ditu Irati Agesta Latasak bizitzaz gozatzeko. Gizarte langilea da eta pertsonekin esku hartzen hasi zenean argi ikusi omen zuen «erabaki ona izan zela. Orain biktimologian eta peritutzaz sozialean espezializatzen ari naiz». Erne begiratan du ingurura eta beharrik aunitz diren arren, «zaintzaren arazoak guztia zeharkatzen» duela uste du. Egoera errotik aldatu beharko litzatekeela dio: «sistema aldatu, ezin baitugu arduraguztiaz orbanakoarengan utzi».

«Lagunkoi bezain bakartia» halaxe deskribatzen du bere burua eta bakardadean zein taldean denborari etekina ateratzen saiatzen da: «probatzeko eta ikasteko gogoz egoten naiz beti». Sokatiran hasi berria da eta sorkuntza edo arteekin lotura duen edozer egitea omen du gustuko.

Bertsotan gozatuz

Duela lau urte hasi zen Malerrekako helduen bertso eskolan. Beti izan omen zuen bertsolaritza gustuko. «baina nigandik hagitx urrutiz zegoela iruditzen zitzaidan; ziurrenik txapelketaren irudia nuelako burutan». Unibertsitate garaian piztu zitzaion interesa: «nire adineko jendea testuinguru informalean kantuan ikustean idealizatuta nuen horizerbaithurbila iruditu zitzaidalako». Deskuidu bategatik, Malerrekako bertso

eskolan apuntatzeko mezu bat jaso, «eta sobera pentsatu gabe izena eman nuen».

Geroztik, bertsolaritza bere egunerokoaren parte bihurtu da: «astean normalean bi alditan izaten dut hitzordua bertsotarako; Malerrekako helduen bertso eskolaz gain, baita Baztan-Malerrekako inguruko bertsolari talde batekin kantuan aritzeko ere. Zorionez, beso zabalik hartu nauen talde batekin egin dut topo eta ziur nago hori gabe ez nintzela hainbertze murgilduko». Gai-jartzaile lanetan ere ibili da: 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako taldean egon nintzen eta aunitz ikasi dut, bertsolaritzan hain ezaguna ez den alderdi bat ezagutzeko aukera eman dit eta egin beharreko lanaren garrantzia ulertu dut».

Bertsorako gaia

Inauterietan topatuko ditu, akaso, bertsotarako gai berriak: «bertso afari edo jaialdi baterako aunitz, plazaratzeko modukoak ez diren bertze hainbertze eta txapelketarako pare bat» erantzum du iriz Iratik. Kantuan hasteko aukerak ere bai: «niri oraingoz ez zait pasatzen, baina entzun izan ditut sunbildar batzuk bertsotan bai. Hori izanen da urte osoan bertsotan ariko diren egun bakarra, inauterietako giroa izanen da». Giro berezi hori sortzeko gakoa, «herri mailan inplikazio handia

dagoela da. Hiru egunez bizitzen diren arren, aurretik egindako lan handia egoten da eta herrian ere gogoak nabaritzen dira». Hiru egun eta ez du bakar bat ere galtzen Iratik: «ortziraleari beti prestatzen dugu kuadrillako mo-zorroa; denborarekin pentsatzea gus-tatzen zaigu eta buelta dezente ematen dizkiogu». Hala, gogoan du urte batez *Don Limpioz* mozorrotu zirenekoa: «uste dut hori izan dela gure mozorro originalena». Ortziraleari lotuta, bada faltan botatzen duen momentu bat: «garai batean, 20:00 aldera dantzaldia egoten zen udaletxeko arkupeetan. Baserrietan eskean zebiltzan gazteak ere etorri ohi ziren; gogoan dut beldurra ematen zidatela, baina baita nolabaiteko zirrara ere, eta han elkartzen ginen denak, dantzan. Umetan hori zen inauterietako momentu onenetako bat. Urte dezente dira arkupeetako dantzaldia kendu zenetik».

Ortziraleari emakume afaria izaten da beste hitzordu garrantzitsua: «urte aunitzetan joan izan naiz. Giro hagitz polita sortzen da, adin guzietako herriko emakumeak biltzen dira eta gogekin

hartzten den ekitaldi bat dela iraditzen zait. Gainera, taldeka mozorrotzeko ohitura dago eta ideia hagitz originalak atera izan dira. Beti dago kuriositate puntu bat bertzeen mozorroak ikusteko».

Igandean, desfilearen txanda izaten da eta iaz desfile horren atzeko lana ezagutzeko aukera izan zuen Iratik: «desfilearen aurretik laguntzen egon nintzen eta lehenengo aldiz igande goizean dagoen giroa ezagutu nuen, aunitz gustatu zitzaidan. Herritarrak desfilean banatzen diren taloak, sakda, tortilla... prestatzen egoten dira, boluntarioa da eta giro paregabea zegoela iraditu zitzaidan. Aurten ere asmo horixe dut».

Inplikazioa

Igandeko desfilea herri mailan egiten den lanaren erakusle dela uste du Iratik: «herri hain txikia izanik, marka da hainbortze orga prestatzea, horrelako giroa sortzea eta jateko eta edatekoa ere banatzea. Jendearen inplikazioa eta borondatea nabarmentzen dira, hori gabe ez litzateke posible izanen».

**Zurekin
DISEINUAK**

**GAUR EGUNERA
EGOKITUTAKO
ZURGIN-LANAK**



☎ 636 701 204 📞 722 521 471
Kanttonberri, 3 BERA
zurekin@zurekindiseinuak.com



**IRURI
MOTOR**

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAKI!

T. 948 450 399 - 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

**ONGI PASA
INAUTERIAKI!**

BIDASOA

GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

**GASOLIOA
ETXERA**
eramaten dugu

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
ZERBITZU ANITZAK**

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak

24h-ko asistentziak errepideetan

IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita



☎ 609 446 693 - 679 204 872

✉ nbidasoa@gmail.com

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

📍 Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

📍 Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872



inauteriak²⁰²⁴

AURTITZ · ITUREN · ZUBIETA

ITTUNGO
HERBILKO OSTATUAK

INAUTE ON BATZUK OPA DIZKIZUE

📞 948 451 346

Asteazkenetik igandera rekitz.

AURTITZKO OSTATUA

Errazioak, eguneko menuak, bokatak, pizzak, hamburgesak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Aurtitz | 📞 848 68 05 57 | aurtitzkoostatua@gmail.com

Ongi pasa inauteriak!

leapaindegia

EIDER

Estetika

Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00
Asteazkena eta ortziralea: 15:00 - 20:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445

Iturengo eta Zubietako Udalek
inauteri zoriotsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei

ITURENGO UDALA ZUBIETAKO UDALA


Egitaraua

Ilbeltzak 29, astelehena
Goizean gosalduta eta Zubietako joaldun, moztorro eta karrozek Aurtitz bisitatuko dute. Salda hartu eta Iturenera joanen dira. Desfilea eginda, bakoitza bere herrira joanen da bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria. **Iturenen** Andoni Mixelena eta Holako taldea.

Ilbeltzak 30, asteartea
Goizean gosalduta eta iturendarrek zubietarrei bisita egingen diete, Aurtitzen geldialdia eginez. Salda hartu, desfilea egin eta bakoitza bere herrira bazkaltzera. Arratsaldean musika izanen dute eta gauen afaria. **Iturenen** Holako taldea.



Ilbeltzak 31, asteazkena
Zubietan kontuen eguna izanen dute: goizean puska biltzea eta gosaria eta arratsaldean joaldunak. **Iturenen** bazkaria Kristian akordeoilariarekin, ilunabarrean puska biltzea eta afaria. **Aurtitzen** bazkaria, puska biltzea eta afaria.



Otsailak 3, larunbata
Iturenen kontuen eguna izanen dute: eguerdian dantzak eta herri kirolak izanen dira, bazkaria Andoni Egaña eta Julio Soto bertsoariarekin eta musika gauera arte. **Aurtitzen** zahar afaria eta dantzaldia akordeoilariarekin.

Otsailak 4, igandea
Aurtitzen kontuen eguna izanen dute: bazkaria eta inauterien amaiera.

ONGI PASA INAUTERIAKI!

egurpellet

PELLET ZAKUAK ETXERAINO

egurpellet.com | info@egurpellet.com | T 623 246 300

ongi pasa inauteriak!

Ainhoa Altzuguren Mixelena

Abokatutza orokorrean
Herentziak
Alokairuak
Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Delta hitzordua hartzeko.

Legia 42, BERA
M. 630 97 21 89
ainhoasaltzuguren@gmail.com

«Polita da Aurtizko elkartean inauterietan sortzen den giroa»

IBAI BERREGI AURTIZKO JOALDUNA



33 urte dituen eta kirola gustuko duen Aurtizko gaztea da Ibai Berregi. Kirola egiten ikusi ohi dugu sarri, baina, inauterietan bertzelako egitekotan ere ikusiko dugu, aurtien ere, joaldun gisa aterako baita.

Ttikitako inauterietan oroitzen «politik» ditu Berregik, eta geroztik denbora pasa bada ere, igualtsu bizitzen ditu orain ere aurtiztarrak, «ilusio berdinarekin». Arrunt tikiaki direla paratu ohi dizkiete joareak haurrei Malerrekan, eta bere kasuan ere hala izan zela kontatu du: «Hiru urte zituela paratu zizkidaten lehenengo aldiz joareak». Joaldun izatearen «garrantzia» gerora jakin du, ordea: «Ttikitan ez zara jabetzen egiten duzunaz, baina, desfileen 14 bat urterekin atera izanen nintzen lehenbiziko aldiz taldean, eta ilusio berezia egiten du».

Inauterietan moztorro ere atera izan da Berregi, baina argi du «bertako batentzat inauterietan joaldun ateratzea dela gauzarik politenetakoa». Gainera, joaldunik gabeko inauteririk ere ez du imajinatzen aurtiztarrak: «Joaldunik gabe ez lirakeke berdinak izanen, hori da gure inauteriak berezi egiten dituenak».

Aurtien ere joaldun

Aurtien ere aterako da Berregi, eta «okerririk ezean, bi egunetan». Aurtiztarra izaki, aurtiztarrekin batera aterako da, eta azaldu duenez, 10 eta 16 joaldun artean aterako dira, «jendearen eta bestondoaren arabera». Inauterietako unerik bereziarena joaldunek egiten duten desfilea izaten da Berregirentzat. Hortaz aparte, «Aurtizko elkartean zaharren eta gazteen otozduetan sortzen den giroa ere polita da», kontatu duenez.

Inauterien bezperatan bisitarien mezua luzatu die: «Etortzen segi dezatela, guretzat jendea etortzea gauza pozgarria delako, hori bai, errespetuz etor daitezela». Aurtizko, Iturengo eta Zubietako inauteriak ezagutzen ez dituztenak ere, gonbidatu ditu: «Inoiz etorri ez badira, behin behintzat etortzeko erranen nieke, nik uste gustatuko zaizkiela».

MADERAS SANTESTEBAN

Ongi pasa inauteriak!

- Mendi lanak (Pisuak erosten ditugu)
- Bigak
- Montajea obran
- Teilaturako egiturak (zei, haritz eta douglas edo laminatu)
- Osagarriak
- Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA

ABANTAILAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskaleak	Atak	Lurrak
Armaruak	Sukaldeak	Eguzki leihoak	Leiho mistak

Leitza errep. - 31745 ITUREN
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164
carpinteria@echeverria@yahoo.es

BEROTZA

ITURGINTZA, BEROKUNTZA ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

948 450 063-620 886 443
info@berotza.es-www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)

BEROGAILUA

150m

AEROTERMIA ETA GEOTERMIA

EGUZKI PLAKAK

GALDARA MISTOA

GALDARA

ongi pasa inauteriak!

inau 2024 teriak

ARANTZA

ongi pasa inauterak!



aterpe
albergea jatetxea ostalua

T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

I.M.



RRIKKO
IGELTSERITZA

IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
ARANTZA

661 735 052

ESTRUKTURAK - TEILATUAK - FATXADAK - ZAHAR BERRITZE LANAK

ongi pasa inauterak!



Burlada
elkar-jakintza



BEREZITASUNAK
Haragiak
Arrainak
Etxeko Postreak

MENU BEREZIAK
Taldeak
Mendizaleak
Jaunartzeak
Otorduak

T. 948 63 40 27 - 679 316 988 | ARANTZA
restauranteburlada@hotmail.com
www.restauranteburlada.com

 **ilargi**
okindegia

 **APEZENA**

Ongi pasa inauterak!



Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA



Egitaraua

Otsailak 1, ortzeguna

08:30ean Mozorro Zurién gosaria Primi ostatuan. **11:00etan** Mozorro Zuriak eskolako ikasleekin elkartuko dira. **Ondotik** Mozorro Zuriak baserri *puxka-puxka* eskean ibiliko dira musikarién laguntzarekin. **21:30ean** Mozorro Zurién afaria Primi ostatuan.

Otsailak 2, ortziralea

Egun osoan eskolako haurrak Aientsa, Azkilarrea eta Bordalarrea auzoetan baserri baserri eta herrian etxe etxe eskean ibiliko dira. **09:00etan** Mozorro Zurién gosaria Primi ostatuan. **Ondotik** Mozorro Zuriak *puxka-puxka* herrian ibiliko dira. **15:30ean** Pabloenean Mozorro Zurién bazkaria. **Ondotik** kalejira herrian barna. **20:30ean** mozorro ttikiei ongietorria. **21:00etan** bertso afaria Aterpean Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldiarekin. **01:00etatik aitzinera** Belfast taldearekin dantzaldia gorapean.

Otsailak 3, larunbata

Goizean eskolako haurrak baserri baserri ibiliko dira Eguzkialdea auzoan. **14:00etan** Mozorro Zurién bazkaria Burlada jatetxean. **Arratsaldean**, haur, gazte eta heldu mozorrotuen kalejira. **Ilunabarrean** herri kirol saioa frontoian Mozorro Zuri handien eta ttikien artean. **Ondotik** Mozorro Zurién afaria Ekaitza Elkartearen. **00:30etik aitzinera** Bizphiru Pelau taldearekin dantzaldia gorapean.



«Herria erabat elkartua ikusteko bertze manera bat dira inauteriak»

LEIRE BEREAU ETXEBERRIA ARANTZAKO GAZTEA



«Prest» eta «gogotsu». Halaxe sumatu dugu Leire Bereau Etxeberría (Arantza, 2004) inauterien atarian, hainbertze maite dituen eta beretzat hain «bereziak» diren inauterien esperoan. Gasteizen egiten ari den Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak egun batzuetarako bazterrean utzi, eta atorra koadroduna eta galtza urdinak edo zuriak soinean eta bizkarrekoak bizkarrean paratuta, aurten hirugarren urtez aterako da Mozorro Zuri.

Inauteriak «ttikitatik herriko bestarik politenak» iruditzen zaizkiola onartu du Bereauk, eta haurra zeneko «hagitz oroitzapen onak» ditu gordeak: «Mozorro Zuriak eskolara etortzen ziren eta giro ederra izaten zen. Haurrok mozorroei *puuka-puukak* bizkarrean paratu eta dantzan ibiltzen ginen». Horrekin batera, «ttikitatzen herrian bama *puuka-puuka* ibiltzen ginen eta eskolako azken urteetan gauza bera egiten genuen baserriz baserri. Azken bi urteetan trikitixa jo nuen».

Haurra zeneko momentu eder haiek gogoan, gaur egun Mozorro Zuriaren paperean pasatzen ditu inauteriak. Duela bi urte eman zuen pausoa, etxean ahizparen bideari segituta: «Ahizpak, Mozorro Zuri atera zen lehenbiziko urtetik, bere bizipenak eta esperientzia onak kontatu izan ditu beti eta giro herrikoi hori izan zen gehien animatu ninduen». Ahizpak emandako gomendioa ere ez du atzenda:

«Gomendio bakarra lagunartean egun horiek disfrutatzeke izan zen, baita baserrietako jendea gehiago ezagutzeko aukera probesteko ere». Eta ederki bete zuen hitza, lehenbiziko aldi hura «hagitz esperientzia ona» izan baitzen: «Herria erabat elkartuta ikusteko bertze manera bat izan zen gehien gustatu zitzaidana, baita bertako giroa ere».

Aurten ere bide beretik segitzeko asmoa du. Aitortu duenez, Mozorro Zuri atera edo ez inauteriak «aunitz aklatzen dira, dudarik gabe»: «Betitik gustatu izan zaizkit inauteriak eta Mozorro atera edo ez, hagitz egun politak izaten dira denontzat. Egia da eskolako haurrak eta Mozorro Zuriak etxetik ibiltzen garela, eta hori da agian gure inauteriak pexka bat bereziago egiten dituen eta gehiago disfrutatzeke bidea ematen diguna».

Giro berezia

Aurtengo inauteriak otsailaren 1etik 3ra ospatuko dituzte arantzarrak, eta «dena prest» omen dute. «Azaro-abendu aldera hasi ginen prestaketekin eta aurten ere 40 bat lagun izanen gara Mozorro Zuri». Bereau bezala, seguru horietako bakoitza egunak ailegatzeke «esperoan gogotsu» izanen dela.

Trikitilaria izanda Mozorro Zuri dabilela etxetik eskea trikitixa doinuarekin alaituko ote lukeen ere galdetu dio TRIP-TIAPAK Bereauri, baina, musikari veteranoen mailaz oroitu da: «Beñat eta Andoni Mitxelena anaiek hain maila altua utzita, zaila izanen da euren mailara ailegatzea. Horregatik, orain momentuan, ez dago neure buruan trikitixa jotzeko aukera hori».

Akaso noizbait animatuko da inauterietan botolak astintzera, baina bitartean, «herrian sortzen den giroak hain berezi» egiten dituen inauterietan gozatzen segitu nahi du. Eta horixe desio die gainerako herritarrei eta bisitarii: «Aurten ere elkarrekin disfruta ditzagun inauteriak, errespetuz jokatuz eta herria zainduz. Denak ongietorriak izanen zarete Arantzán. *Animzte* eta ongi pasa inauteriak!»

PRIMI
ostatua

ongi pasa inauteriak!
Tel. 948 634 052
Goiko karrika, 7 - ARANTZA



Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



ARANTZAKO
UDALAK
inauteri zoriotsuak
opa dizkizue herritar
eta bisitari guztiei



Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Langileak motibatuak etortzea da gure helburua»

PABLO FEO GOMEZ
OKILLE - LEITZA

«Behar bereziak dutenentzako zentro berezia» da Leitzaoko Okille. «Herri txikia denez, oso behar desberdinak dituen jendea etortzen da, batez ere azkeneko urteetan. Hala ere, ederki egokitu dira denak». Bederatzi langile aritzen dira taillerrean eskulanak egiten: paperezko eguzkiloreak, egurrezko erlojuak... «bakoitzak ahal duena edo nahi duena egiten du. Baina gure helburu nagusia ez da ekoiztea, gaitasun mugatuak dituztenei balioa dutela erakustea baizik». Etorkizunera begira, «orain arte bezala segitzea» dute helburu, «hau da, langileak motibatuak etortzea. Prozesu honetan ikusten dudana edozein arazo konpontzea da nire lana eta, noski, gehiago ekoiztuko bagenu gehiago salduko genuke, baina gure lehentasuna harmonia giroan lan egitea da».



«Gure produktu guztiak % 100 naturalak dira»

XABIER BARRUTIA ELIZALDE
BARRUTIA 12 - ELIZONDO

Gazte hasi zen harakin lanetan Xabier Barrutia, eta betitik izan du harategi propioa edukitzeko ilusioa. Hortaz, emazteak Elizondoko lokal hutsa ikustean, bertan egitea proposatu zion. «Lokala ikusi, gustatu eta hemen ireki genuen duela hiru urte». Produktu guztiak «% 100 naturalak dira, kontserbagarri artifizialik gabe eta bertakoak: Elizondoko zerria, Arantzako oilaskoa, Baztango bildotsa eta aratxea... eta prestatutako janariak zein jaki pasteurizatuak ere saltzen ditugu, denak naturalak. Hori da gure berezitasuna». Gainera, «etxerako zerbitzua dugu Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan, baita Nafarroa eta estatu mailan ere. Interneta beharrezko da adin eta eremu guztietako jendearengana ailegatzeko». Gaur egun hiru langile dituzte, «baina lan egiteko jende gehiago behar dugu».



«Nahi guztietarako kirol aukerak baditugu»

ANA PIKABEA LARRALDE
LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

Kirola egiteko zerbitzu eskaintza zabala dute Lesakako Udak Kiroldegian; «alde batetik igerilekua eta gune termala ditugu, eta bertetik gimnasioa eta aktibitate gidatuak: aquagym, ciclo indoor, entrenamendua suspentsioan, luzaketak, pilates, zumba...». Neguan, «jendeak aktibitate gidatu gehiago egiten ditu, urritik uda bitarte programa zabala izaten dugu». Gainera, aurreko berrikuntzak sartu dituzte; «gimnasia aktiboa, entrenamendu funtzionala, zumba step... jendearen aldetik hagitz erantzun ona izan dute, eta nahi guztietarako aukera badago». Azken urteetan «gero eta kontzientzia handiagoa dugu mugimenduaren onuraz», hortaz, «kiroldegian hasi nahi dutenak etortzera, lotsa kentzera eta probatzera animatuko nituzke».



«Kontsumo mota berriei egokitzea da orain gure erronka»

LOREA AGIRRE IRIBARREN
KIMETZ - DONEZTEBE

2008an ireki zuen Lorea Agirrek Kimetz belar-denda Donezteben, eta «elikagai ekologikoak, hurbilekoak eta kalitatezkoak» saltzen dituzte bertan. Azaldu duenez, «bezeroaren kontsumo motara egokitzea da gure oraingo erronka. Komertzio ttikiok eskaintzen dugun hurbiltasuna eta konfiantza da bereizten gaituena, baina gero eta ohikoagoa da aholkua eskatzea, gero kanpoan erosteko». Hori dela eta, «hausnarketa egin dugu eta bizirik irauteko helburuarekin, eta gure web orria berriz zerotik eraikitzen ari gara, etxerako zerbitzua sortu dugu, Whatsapppe eskatzeko aukera... bezeroen fidelizazioa hobetu nahian». Gainera, «hausnarketarako deia egin nahi dugu; komertzio ttikiaren goxotasuna izaten segitu nahi badugu, bertan erosi behar dugu».





Eskean ibiliko dira gazteak ostiralean eta larunbatean.

Inauteriak eta Santa Ageda bezpera elkarren segidan

Otsailaren 2an eta 3an ospatuko dituzte inauteriak eta otsailaren 4an koplak kantatzera aterako dira

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 2an, ostiralarekin, hasiko dira inauteriak eta otsailaren 3a, larunbata, izango da egun handia. Biharamunean, Santa Ageda bezpera ospatzeko proposamena egin du guraso elkarteak.

Eskolako ikasle eta irakasleak izango dira ostiralean inauterietan hasiera emango dietenak. Eguerdietan emanaldia eskainiko dute. 18:00etatik aurrera Lagunartekoak eskean aterako dira eta herriko hainbat etxetan sartu-irtena egin ondotik, elkartearen afaria egingo dute. Biharamunean, otsailaren 3an, herri osoari egin diete inauterietan giroan sartzeko gonbidapena. Goizean, Lagunartekoak elkartearen gosaldia eta baserrietarako bidea hartuko dute. 18:00ak aldera bueltatuko dira herrira eta zain izango dituzte herritarrek elkarrekin kalejira egiteko. Guraso elkarteak prest omen dute sorpresaren bat eta beste herritarrei ere mozorrotu eta animatzeko eskatu diete. Herri afaria izango da 21:30ean Pake Toki elkartearen eta afa-londoan erromeria eta BRII



Makilak eskuetan, koplak kantari.

DJa. Afarira joan nahi dutenek 616 25 01 35 edo 618 59 49 27 telefonora idatzi beharko dute otsailaren 2a baino lehen. Helduek 18 euro eta haurrek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Santa Ageda bezpera

Azken urteetan bezala, koplak kantari ateratzeko asmoa dute guraso elkarteak. Herritar guztiei egin nahi diete parte hartzeko deia eta ezarriak berotzeko txokolate beroa banatuko dute 17:00etan Pake Toki elkartearen. Kantuan ateratzen ez direnei, berriz, leihora edo etxe atarira ateratzeko eskatu diete, etxe bakoitzera koplak bereziak prestatu dituztelako.

Jostailu bilketa antolatu du guraso elkarteak urtarrilaren 26an

TTIPI-TTAPA

Etxean soberan dituzten jostailuekin zer egin ez zekitela aipatu izan dute guraso askok beraien artean. Hitzetatik ekintzetara pasa eta jostailu horiei bizi berri bat emateko modua aurkitu nahi dute. Jostailu bilketa antolatu dute eta herritar guztiei egin diete parte hartzeko proposamena. Urtarrilaren 26an egun guztian zehar jasoko dituzte jostailuak eskolako trinketean eta karteltxo baten bidez zehaztuko dute jostailuak non utzi behar diren. Egoera onean dauden



Eskolako trinketean jasoko dituzte.

jostailuak bakarrik onartuko dituztela argitu dute. Bilketa bukatuta, beharra duten familien artean banatzeko erakunde baten eskuetan utziko dituzte jostailuak.



JAIONE OLAZABAL

Katekesi taldekoen irteera

Eguberrietako oporrak aprobetxatuz, irteera egin zuten katekesi taldeko haur eta gaztetxoek. Urtarrilaren 4an Donostiako Txuri-Urdin izotz-jauregian joan zen hogeitabat lagunekoa kuadrilla eta ederki pasa omen zuten elkarrekin izotz gainean patinatzen.

Guraso elkarteak saskia Alegiara joan da

Guraso elkarteak Eguberrietan zozketatzen duen saskiak badu jabea. 8.008 txartela izan zen saritua eta Markel eta Marak saldu zieten Gari Nieto eta Ana Balerdi osaba-izebei. Zorionak!



MAITANE ELUSTONDO

Herritarren parte hartzea bultzatu nahi du udalak

Ekarpenak, iritziak... jasotzeko elkartuko dira eta herritarrei ahal duten neurrian parte hartzeko deia egin diete

TTIPI-TTAPA

2024rako hainbat proiektu eta helburu ditu esku artean udalak, baina bada bat guztietan eragin zuzena izan dezakeena. Herritarrei hitza eman eta parte hartze aktiboa sustatu nahi dute, «herritarrak Herriko Etxera etortzea nahi dugu eta beraien ekarpenak, proiektuak, zalantzak... ezagutu». Horretarako, hasiak dira biltzen eta hainbat gai izan dituzte hizpide: hirugarren adinekoen egoera, turismo aukerak, euskararen bueltako proposamenak... eta gazteekin ere zerbait

egin nahi dutela azaldu dute: «beraiek baitira herri honen kantera». Orain arte, sare sozialetan eta Goizuetako difusio kanalaren bitartez egin dituzte deialdiak eta aurretantzean ere halaxe segiko dute. Azpimarratu dute bilera irekiak direla eta nahi duen orok parte hartu dezakeela: «zenbat eta jende gehiago etorri, orduan eta ikuspuntu gehiago bilduko ditugu eta hori beti da aberasgarria. Jendearen ekarpen hauetatik aurrera egiteko proiektu berri ugari sor daitezke».

Mendiaz gozatzeko bi proposamen Arainburu Mendi Taldearen eskutik

TTIPI-TTAPA

Urtarril bukaerarako bi proposamen egin ditu Arainburu Mendi taldeak. Urtarrilaren 27an Besabitik Goizuetara joanen dira oinez. Izena emateko azkeneko eguna urtarrilaren 25a izanen da. 10 euro ordaindu behar dira izena

ematerakoan eta kopurua 28 pertsonetara mugatu dute. Lau ordu eta erdiko itzulia izanen da eta 08:00etan abiatuko dira plazatik. Otsailaren 3an, berriz, eskiatzera Formigalera joateko proposamena egin dute. Izen ematea urtarrilaren 23an bukatu da.

Artikutzan bisita gidatua eskainiko dute urtarrilaren 28an

TTIPI-TTAPA

Elutsako bistak eta Erroiarriko ur jauzia bisitatzeko aukera eskainiko dute urtarrileko azkeneko igandean. Elebitan eskainiko dute bisita eta hamar kilometro inguruko ibilbidea osatuko dute. Nahiz eta zailtasun teknikorik ez izan, ko-

menigarria da mendirako zapata egokiak eta hotzerako arropa eramatea, baita jateko zerbait ere. Urtarrilaren 26a baino lehen eman behar da izena artikutzanatura@donostia.eus helbidean edo telefonoz 679 61 30 16 deituta (11:00etatik 16:00etara).



Menduureneko ospakizunetan udalekoen bisita jaso zuen Valentinak.

Ehun urte bete ditu Valentina Altamira Goizuetak

TTIPI-TTAPA

1924ko urtarrilaren 10ean jaio zen Valentina Tartazu auzoan. Menduureneko ospakizunetan udalekoen bisita izan zuen eta lore sorta eder bat oparitu zioten herritar guztien izenean, baita *Zorionak zuri* abestu ere.

Hitz gutxiko emakumea dela diote bere hurbilekoek Valentinari buruz hitz egiterakoan: «gauza gehiegi konpartitu gabe, dena barruan eramanez, bizitzari aurre egin dion emakumea da. Ez dugu askotan jakin izan berak zer pentsatu izan duen. Hori bai, inorentzat ez du hitz itxusirik izan». Bizimodu go-

gorra izan duela ere aipatu dute: «beti lanean eta ingurukoei laguntzeko prest egon da. Garai batean baserriz baserri ibiltzen omen zen zerria prestatzen eta artilea errekan garbitzen ere bai». Lanari ez dio sekula beldurrik izan, «baina harrigarria da zeinen beldurtia izan den. Hori bai, bizitzeari ez dio inoiz beldurrik izan». Ez da seinale txarra azkeneko urteetan batere botikarik hartu gabe bizi dela jakitea: «ez du pastilla bakar bat ere hartzen azkeneko urteetan eta apetito ederra du». Urte askoan Valentina!

Hamabost urteren ondotik herritik pasako da Korrika

TTIPI-TTAPA

23. edizioan, hamabost urteren ondotik, euskaren aldeko lasterketa ailegatuko da herrira. Martxoaren 19an izanen da egun seinalatua; Basakabin beheara, NA-415 errepidean leitzarren eskutik jasoko dute herritarrek lekukoa. 18:38an ailegatuko da Korrika herrira. Aurretik egin beharreko lanak izaten dira: kilometroak saldu, girotzen joateko ekitaldiak antolatu... eta horretarako martxan jarri dute Goizuetako Korrika Batzordea. Urtarrilaren 17an egin zuten lehenbi-



Goizuetarrak lekukoarekin. AEK

ziko bilera eta datozen asteetan ere lanean segiko dute. Korrikari bultzada bat eman nahi dieten guztiak beso zabalik hartuko dituztela aipatu dute.

«Nire erretratu garbi bat aurkituko duzue 'Azeriak' diskoan»

YONI SALABERRIA ZABALA MUSIKARIA

RIG3L deituraren atzean gordetzen da 26 urteko artista gaztea. Trap musika lantzen du eta *Azeriak* izeneko lehenbiziko diskoa kaleratu berri du.

ENERITZ IRAOLA

Arte munduarekin lotura zuzena izan du betidanik Yoni Salaberria Zabalak. Bere barruko emozioei eta sentipenei «kanpora ateratzeko bidea» eman izan dio. Musikan ere badihardu azken hiru urteetan eta RIG3L izen artistikoarekin diskoa kaleratu berri du; Trap generoa euskaraz landu daitekeela erakutsiz.

Zer proposamen dakar RIG3L-ek? Sad Trap generoa euskaraz jorratzen dut, Estatu Batuetako *Soundcloud Rapper* bizi-modua Euskal Herrira gerturatzeko asmoz. Gitarra elektrikoak, sintetizadore ilunak eta perkusio elektronikoak dira nire lanaren ezauzgarri bereizgarriena.

Noiztik zabilta musikaren munduan?

Duela hiru urte hasi nintzen musikaren mundua arakatzen. Mexikora bidaiatu nuen eta, bertan bizitako gertakari larri batek, barruan sentitzen nuen korapilo hori ateratzeko beharra sortu zidan. Leitzako lagun batek musika sortzen zuen eta kasualitatez base mordoa bidali zizkidan. Berak ezer jakin gabe, bizia salbatu zidan. Mila esker Gorka.

Lehenbiziko diskoa kaleratu duzu. Nolatan eman duzu pausoa?

Egia esan, ez da egun batetik bestera egindako zerbait izan. Denbora neraman buruari bueltak eta bueltak ematen, lan luzeago bat sortzeko asmotan. Presio pixka bat ere



RIG3L deiturarekin argitaratu du diskoa goizuetarrak. UTZITAKOIA

jaso dut ingurukoengandik eta agian horrek ere lagundu dit.

Zer topatuko dugu disko honetan? Nire erretratu garbi bat: familia, animaliak, oroitzapenak... eta noski, gertutasuna. Nire lana entzuten duen orok, gure baserriko tximinia alboan, babarrun plater bero bat jaten ari dela sentitzea nahi nuen. Lan etxekoi bat, su motelean egina.

Nolako izan da prozesua?

Abestiak aukeratzeko garaian, diskoaren osotasunari eman nahi izan diot garrantzia. Bidaia bat proposatu nahi nuen, entzulea hasieratik bukaerara eramane zuena. Baziren barkarka hartuta asko gustatu zaizkidan proposamenak,

baina proiektu honetarako ez zuten balio eta esku zorrotzez baztertu ditut. Bestalde, diskoaren barruan kolaborazio bat ere sartu behar nuela sentitzen nuen eta Ainhoa Zabaleta herritarrari proposatu nion elkarlan bat egitea. Oso gustura gelditu ginen emaitzarekin.

Nola definituko zenuke lantzen duzun musika estiloa?

Trap generoaren bereizgarri diren elementu asko aurkitu

«SINPLEAK DIRUDITEN GAUZEK NORTASUN HANDIA IZAN DEZAKETE»

daitezke nire lanetan. Trap generoaren barnean badaude adar ugari eta nik Sad Trap edo Trap emozionala lantzen dut. Emozioak eta barne munduaren azterketa dira gai nagusiak.

Bidelagunak ere izan dituzu.

Internet eta sare sozialen eraginez, munduko txoko ezberdinetan dauden pertsonekin lan egitea asko erraztu da. *Azeriak* diskoan erabili ditudan instrumental gehienak, Londresko Mors lagunak eginak dira eta Oreretako Txuso ekoizleak egin du *Parkean* abestiko basea.

Zureak dira hitzak?

Abesti baten arima garrantzitsua da, baina arima hori hobeto ulertzeko letrak ere bere lana egin behar dute. Niri asko gustatzen zait puntu hau lantzea. Letrek nortasun propioa izan dezaten, beharrezkoa iruditzen zait lan hori norberak egitea. Egunerokotasuna, sentimenduak, beldurrak... Guztiok dugun barne mundu hori da inspirazio iturri onena niretzat.

Diskoaren azala zuk egina da?

Ahal nuen guztia nik egitea zen asmoa, naizen hori hobeki islatzeko asmoz. Azala, mix eta masterak...egia esan, buruhauste batzuk ere izan ditut, ez da bidaia erraza izan, baina zailtasunak gaindituta gehiago baloratzen dut emaitza.

Bistakoa da artearen mundua beharrezkoa duzula...

Musika, margotzea, pintura... gustuko ditut, baina benetan gustuko dudana nire barne munduari kanpora ateratzen uztea da. Argi esan dezaket artea oso bide aproposa dela helburu horretarako.

Zein da 'Azeriak' diskoarekin zabaldu nahi duzun mezua?

Sinpleak diruditen gauzek nortasun handia izan dezaketela. Ez ditugula milaka euroko materialak behar sentitzen dugun horretara ailegatzeko eta hori errealitate bat dela. *Azeriak* diskoa honen guztia- ren adibide garbia da.



Musikari eta bertsolarien laguntzarekin koplak kantari ibiliko dira herritarrek.

Datozen asteetan ere bada kulturaz gozatzeko aukera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, koplak zaharrak eta berriak kantatzera ateratzeko proposamena egin dute

TTIPI-TTAPA

Inauteri giroak hartuko du herria datozen egunetan. Urtero bezala nahi duenak pestarako aukera izanen du. Inauterietako gehigarri berezian duzue eskuragarri egitarau guztia. Horien ondotik ere izanen da ongi pasatzeko aukera. Ilbeltzaren 31n, asteazkenean, Ekain pailazoak *Slapstik* emanaldia eskainiko du 18:00etan Herri Aretoan.

Otsaileko lehenbiziko asteburuan, zinema eskaintza bikoitza izanen dute Herri Aretoan. 17:00etan Leitzan eta Areson grabatu zuten *La ermita* filma botako dute eta 19:30ean fantasiaren munduan sartzeko aukera izanen da *Wonka* filma ikusiz. Azken film honen larunbateko saioa jatorrizko bertsiotan emanen dute azpituarekin eta igandekoa gazteleraz izanen da.

Zinema ez da izanen otsaileko lehenbiziko iganderako kultur aukera bakarra. Koplak doinuak nagusi izanen dira kalean. Aspaldiko ohiturarekin segiz, umeak etxetik etxetik ibiliko dira goiz partean, eskea egiten, *Agira-agirando* abes-



Kamikaz kolektiboko kideak.

tuz. Iluntzean, berriz, Santa Ageda bezperako koplak txanda izanen da. 18:30ean egin dute hitzordua plazan, makilak eskuetan, trikitalari, akordeoilari eta txistulariekin kalejira egiten dute. Koplak zaharrek eta momentuan sortutakoek izanen dute tokia.

Otsailaren 11n, Kamikaz kolektiboak *Hiru kortse, azukre asko eta brandy* gehiegi antzezlanaren taularatuko du 19:00etatik aurrera. Donostia Antzerki Saria irabazi du obra honek 2023an eta hamalau urtetik gorako ikusleei zuzendua dagoen komedia garrantzua da. Antzerkirako sarrerak zazpi eurotan eskura daitezke aurretik edo egunean bertan, zortzi eurotan.

Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak jokatzeko hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Lehenbiziko partidak Torrean jokatu zituzten ilbeltzaren 20an. Hurrengo partidak otsailaren 10ean, larunbatearekin, jokatu dituzte 16:00etan Txoko tabernan. Irabazleek axuria irabaziko dute eta bigarren egiten dutenek ardoa.

Otsailaren 17an, Gaztañaga tabernan eta otsailaren 24an Leitzaran izanen dira hurrengo kanporaketak. Leitzako finala, Torrean jokatu dute martxoaren 2an. Zehaztu dute bikoteko parte hartzaileetako batek leitzarria izan beharko duela.

Kaxkabeltza Elkarteko saskiek badituzte jabeak

TTIPI-TTAPA

Kaxkabeltza Elkartekoek kaxkainak berezia egin dute Eguberrietan bezeroak saritzeko. Komertzioak atalka banatu eta lau saski osatu dituzte erostekak egiten zituzten artean zozketatzeko. Jakinarazi dituzte irabazleak. 700

euroko ongizate saskia, Juan Bautista Erasori egokitu zaio. 800 euroko jan-edan saskia Sagarario Oterminek irabazi du. 500 euroko moda saskiaren irabazlea, Ainhoa Ocaña izan da eta 500 euroko zerbitzuen saskia, Sergio Garmatsak lortu du.



Autobusean joan ziren Leitzaldeko herritar batzuk. JM BARRIOLA

Hainbat herritar izan dira Sarek Bilbon egindako manifestazioan

JM BARRIOLA

Konponbiderako giltzak lelopean milaka lagun elkartu ziren ilbeltzaren 13an Bilbon egindako manifestazioan. Eskualdeko hainbat herritar izan ziren bertan eta Leitzaldeko Sarek antolatuta, autobusa ateraz Leitzatik, Areso, Leitzara eta Larraungo herritarrekin.

Azken hilabeteetan hainbat ekimen egin ditu herrian Sarek eta tartean, boletok ere saldu dituzte. Ilbeltzaren 13ko hitzordua baliatuta zozketa egin zuten eta honako hauek dira bost saskien irabazleak: 593 zenbakia, 41 zenbakia, 3 zenbakia, 2.782 zenbakia, 612 zenbakia eta 414 zenbakia.



Aurrerako sei taldek jokatzeko egoera tamalgarrian dagoen zelaietan. AURRERA

Futbol zelaietan belar artifiziala jartzeko eskatu du Aurrerak

Nafarroako Gobernuaren laguntza beharrezkoa dela salatu dute: «futbol proiektua lokatzetatik ateratzeko»

TTIPI-TTAPA

Lokatza oinetan eta pankartak eskuetan. «Belar artifizialeko futbol zelaiak eraikitzea» eskatu zuten Aurrera Elkarteko futbol jokalariek urtarilaren 14an. Ez da eskaera berria eta argi diote, hori dela: «herriko gazteek futboleko aritzeko aukerazateabermatzeko modu bakarra».

Aldaketarik egin ezean, Aurrerako futbol proiektua «kolokan» dagoela salatu dute eta hori, «herriarentzat galera handia izanen litzateke». Izan ere, 211 jokalarik ditu aurten taldeak, lau urtetik hogeita zortzi urte bitartekoak, eta hogeita entrentzaile ari dira talde horiek gidatzen.

Harrobi horrek etorkizuna izan dezan, «Nafarroako Gobernuaren laguntza» behar dutela azpimarratu dute eta hori dela, «futbol proiektua lokatzetatik ateratzeko bide bakarra». Izan ere, duela hogeita bost urte egin zituzten Arkiskilen futbol zelaiak eta aldagelak eta urte hauetan guztietan Nafarroako Gobernuak ez du inbertsiorik egin instalazioetan: «ez da dirula-

guntzarik izan zelaiaren eta aldagelen egoera eta argiztapena hobetzeko».

Asteburuetakoa futbol partidetan soilik ez, entrentatzeko orduan ere arazoak dituztela azaldu dute: «zelaiak ahalik eta egoera hoberean mantentze aldera, neguan ez dugu zelaietan entrentatzen». Kiroldegian aritzen dira eta hor ere toki arazoak dituzte: «pista bakarra dugu eta askotan bitan zatitu behar izaten dugu, momentu batzuetan hogeik kadetek eta hogeita bost jubenilek aldi berean entrentatu behar direlako». Egoera tamalgarria dela diote: «jokaldiak prestatzeko espazio nahikorik ez dute izaten eta asteburuko partidak ailegatzeko direnean, lokatza ia-ia gerri-raino dutela, lesioak izateko arriskua handitzen da».

Parlamenturaino ailegatu da auzia, «bazirudien dirulaguntzak onartuko zituztela, baina orain jakin dugu 500.000 euroko partida bat aterako dutela Nafarroa osorako». Zelaiak aldatzeko aukera bertan behar uzten du horrek. Traba gehiago, lehendik ere nahikoa lokatza dagoen aferan.

Arkaitz Delgado liburuzaina bueltatu da liburutegira

TTIPI-TTAPA

Urte aldaketarekin liburuzain aldaketa gertatu da Leitzako liburutegian. Aski ongi ezagutzen du, ordea, liburutegiko martxa liburuzain berriak. Arkaitz Delgado dator bueltan eta oraingoan luzerako izanen da. Oposizioetan plaza lortu du eta bi urtez Erriberriko liburutegian lanean aritu ondoren, Leitzako lanpostua hartzeko aukera izan du. Elenak, orain arteko liburuzainak ere, etxetik hurbil hartu du postua, Etxarriko liburutegian. Buelatu denean liburutegia bizi bizirik topatu du Arkaitzek eta azken bi urteetan martxan egon diren proiektuei segida emateko asmoa duela azaldu du Karrape Irratian egindako elkarrizketan. Orain arteko hitzorduekin ere segiko dute: irakurle taldea, xake ikastaroa,



Leitzako postua lortu du.

hazien txokoa... eta hamabostean behin Liburutegi Ibilariaren bisita izanen dute Are-soko eskolan, Goizuetan eta Aranon.

Herritarrei ere gonbidapena luzatu nahi izan die Arkaitzek: «literaturazetasunarekin lotura duen proiektu edo ekin-tzaren bat aurrera atera nahi dutenentzat liburutegiko atekak zabal zabalik daude. Denen artean segi dezagun liburutegiari bizia ematen».

Ihoteei buruzko erakusketa jarri dute Herri Aretoan

Atsaure tradizionalen argazkiak, azalpenak eta hainbat osagarri (kapelak, maskarak...) jarri dituzte ikusgai Herri Aretoan. Erakusleihotik kalera salto egingen dute hemendik gutxira guztiek...



ARTXIBOA



**KATEA
BIKE**

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanltonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com



BERCAMONT



BH



MERIDA

Abiatu da txotx denboraldia Lekarozko Larraldea sagardotegian

OIANKO GARDE JAUN SARAS EZTIBELTZA KOOPERATIBA

Ilbeltzaren 19an eman zioten hasmenta Nafarroako txotx denboraldiari Lekarozko Larraldea sagardotegian, eta egindako lanaz mintzatu da Eztibeltza Kooperatibako Oianko Garde

R. OSKARIZ LEKAROZ

«Bertan eta era kooperatiboan lan egin eta bizi daitekeela» erakusten duen elkarte da Eztibeltza Kooperatiba. Bertako kide da Oianko Garde, eta azaldu duenez, «denok badugu zerbait, dirua ez bada, ahalmena, eta denok zerbait emanez egin dugu proiektua».

Noiz eta zergatik sortu zenuten kooperatiba?

2022an sortu genuen kooperatiba, gure proiektua aitzinerat atera ahal izateko. Gaur egun, Eztibeltsak Larraldea sagardotegiaren eta Arizkungo Gamioxarrearen kudeaketa darama. XVIII. mende erdialdeko sagardo fabrika da Gamioxarra, eta bertan bisita gidatuak egiteko aukera ere badugu. Beraz, gure lanak sagardogintza, ostalaritza eta kultura uztartzen ditu.

Zenbat lagun zarete gaur egun? 14 kooperatibista gara osotara, eta horietatik hiru langileak gara: Marijo Indabere, Xabi Torres eta ni.

Iaz Lekarozko Larraldearen lekukoa hartu zenuten. Nolako esperientzia izan da orain arte? Lan handia egiten ari gara, sortutako edozein proiektuk eskatzen duen gisara, baina esperientzia ederra izan da eta izaten ari da!

Jendearen aldetik erantzun ona izan du?

Bai, alde horretatik kontent gaude. Auzolanean jende aunitzek lagundu zigun, eta sagardotegia ireki genuelarik



Oianko Garde, Xabi Torres eta Marijo Indabere dira arduradunak. ONDIKOL

jendeak erantzun ona eman zuen. Guretako hori arras inportantea zen.

Sagardo ekologikoa egiten duzue. Zer erran nahi du horrek?

Sagarra eta sagarrondoak gisa naturalean zainduak izan dira, baita sagardoa egiteko prozesua ere. Ez dago genetikoki aldatua eta ez zaio horrelakorik eranstean, ez du kimikorik. Ekologikoa dela egiaztatzeke ziurtagiria behar izaten da.

Horrek lan haundiagoa du?

Bai, erran bezala sagardoak ziurtatua egon behar du eta horrek prozesua aldatzen du: gehiago zaindu behar da ez hondatzeko, zorrotasun handiagoa eskatzen du... baita erakundeekiko ere, horren

guziaren kontrola eraman behar baita.

Nongo sagarra erabiltzen duzue?

Sagarrondoak bi urtean behin ematen du, hori du bere prozesu naturala. Urte bakoitietan gurean sagar aunitz baditugu, bertako sagarrarekin egin ahal izaten dugu. Aurtengo sagardoa, 2023ko uztaren zukuarekin egina, % 100 Baztango sagarrekin egin ahal izan dugu. Hortaz, Lekaroz, Arizkun, Azpilkueta, Irurita eta Elizondo-

«BAZTANGO UZTAREKIN EGIN DUGU AURTENGO SAGARDOA»

ko kupelak dastatzeko aukera izanen da. Urte bikoitietan, berriz, Izpuratik ekartzen dugu sagarra. Bertan ekologikoa badago eta hango sagar motak berdintsuak dira. Baztanen sagardogintzak harreman handia izan du beti Iparralderekin.

Eta zein bariatateko sagarrarekin aritzen zarete?

Sagar mota aunitz, baina batzuk aipatzearen: Eztibeltza, Eztigorria, Eztixuria, Anixa, NARBATE GORRIA, Erreka sagarra, Burdintxe...

Joan den urrian zukua egin zenuten Gamioxarrean modu tradizionalan...

Bai, lehen Kirikoketa besta zena orain Larrazken kulturala bihurtu dugu; auzolanean aritzeko asteburua antolatzen dugu Gamioxarrean. Helburua XVIII. mendeko dolarea martxan paratzea eta fabrika bizirik mantentzea da. Bertako dimentsioak ttipiak dira, etxe-koak, eta iaz 1.000 litro inguru kupelaratu genituen.

Nolako aurreikuspena denboraldi honetarako?

Denboraldi ona izatea espero dugu. Urtarrilaren 19an egin genuen denboraldi irekiera eta orain sagardotegia irekia dugu ortziralde gauetan, larunbat eguerdi eta gauetan eta igande eguerditan. Gainera, 15 lagun baino gehiagoko taldea baldin bada, asteke edozein egunetan irekiko dugu, aitzinetik erreserbatuta.

Txotx denboraldiaz gain, udan ere otorduak ematen dituzue, ezta?

Bai, iaz abuztuan ireki genuen eta bisitak egin genituen Gamioxarrean. Aurten ere oraingoz asmo bera dugu. Informazio osoa larraldea.eus webgunean dago.

Zerbait gehitu nahi duzue?

Jendea animatu nahi dugu sagardotegian, bertako produktak eta sagardo naturala; zero kilometrokoa, kooperatiboa, ekologikoa, artisaua, nafarra... sagardo honek ez du bestondorik uzten!

Eraso sexistak Eguberrietako bestetan

Abenduaren 25eko eta 31ko gauetan besta izan zen Elizondon, eta erasoak izan zirela salatu dute eragile feministek

TTIPI-TTAPA

Baztango Mugimendu Feministak, Mugimendu Transmarribolloak, Elizondoko Herriak eta Baztango Udalak Eguberrietako bestetan Elizondon gertatutako hainbat eraso salatu dituzte eta «honen aitzinean gure gaitzespen argia» erakutsi dute.

Jakinarazi dutenez, «Eguberri eguneko gauen Elizondoko karriketan neskak etxeraino segitzen eta sexualki jazartzen aritu zen gizon baten berri izan dugu».

Abenduaren 31ko arratsean, berriz, «neska gazte talde bat komunean zegoela, herriko mutil bat arras jarrera biolentoarekin haiengana hurbildu zen. Neskek behin baino gehiagotan erran zioten bakean uzteko baina mutila gero eta zakarrago jarri eta nesketako bati ostikoa eta ukabilkada eman zizkion. Gero gizona ihes egiten saiatu zen, eta saiakera horretan, taldeko bertze neska bati ostikoa eman zion. Gainera, bere bi lagunak laguntzaz ihes egiten ari zen bitartean, neska taldea meha-

txatzen hasi zen, guztiak joko zituela etab. erranez».

Adierazi dutenez, «besta giroan emakumeen kontrako erasoak biderkatu egiten dira, eta hala izaten segituko du erasotzaileek bere inguruko babes eta konplizitatea izaten jarraitzen duten bitartean. Erasotzaileak babestu eta laguntzen dituzuen guztiak: zuek ere parte hartzen duzue indarkeria jokaera hauetan, arazoaren parte zarete, erasoan parte hartzen duzue eta zuegatik ez balitz, gure azaletan pairatzen dugun biolentzia ez litzateke posible izanen».

Bertze behin ere, «argi gelditu da zeinen garrantzitsua den neska* eta emakumeok* elkarren artean saretuak eta babestuak egotea. Emakume* bakar bat ukituz gero, gu guztiok parean izanen gaituzuela. Behar den guztietan ozen oihukatuko dugu ez dugula beldurrarekin bizitzen segitu nahi, ez eraso baten aitzinean, ezta egunerokoan ere. Indarkeria matxistarik gabeko herrien alde, gora borroka feministak!».



ONDIKOL

Erregeen bisita euritan blai

Ilbeltzaren 5ean Hiru Errege Magoak Elizondon izan ziren arratsaldean. Lehenbizi zahar etxea bisitatu zuten eta opariak banatu zituzten, eta gero desfilea egin zuten karriketan haien laguntzaileen ondoan. Atertu ez bazuen ere, haur eta ez hain haur ugari bildu ziren ongi etorria egiteko guardasolpean.

Montxo
JATEKOA - ERREKETA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akuler karrilka, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

MÁRMOLES
AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO
ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g.
ORNOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295



Tunelaren iparraldeko sarreraren grafikoa. NAFARROAKO GOBERNUA

Belateko tuneleko bikoizketa lanak 62,8 milioi eurotan

Lanak hurrengo asteetan abiatuko dituzte eta egiteko 45 hilabeteko epea aurreikusi dute, ia lau urte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Lurralde Kohe-sioko Departamentuak Belateko tunela bikoizteko lanak esleitu ditu 62.881.801,65 eurotan (BEZa kanpo). Acciona Construcción SA, Excavaciones Fermín Osés SL eta Servinabar 2000 SL enpresak arduratuko dira lanak egiteaz, eta hurrengo asteetan hasiko dituzte. Lanak egiteko 45 hilabeteko epea aurreikusi dute, ia lau urte.

Tunel berria

Tunel berriak 2.885 metroko luzera izanen du, eta barnean larrialdietarako bortz pasabide eraikiko dituzte, 500 metrotik behin, oraingo tunelera lotuak. Pasabide nagusia larrialdietako ibilgailuendako izanen da eta gainerako lauak oinezkoendako eta ibilgailu arinendako.

Tuneleko bi erreiek 3,5 metroko zabalera izanen dute, 3 metroko bazterbidearekin eskuinaldean (Iruñerako noranzkoan) eta metro batekoa ezkerrean. Gainera, 0,75 metroko espaloia izanen da bi aldeetan. Tunelera sartze-



Hegoaldeko irteera. NAF. GOBERNUA

ko baimendutako ibilgailuen gehienezko altuera 5,5 metrokoa izanen da.

Aireztatze sistema, berriz, 17 haizagailuk osatuko dute, sute kasuetan kea kanporatu ahal izateko.

Bikoizketa lanek «tunel bakoitzeko trafikoa murriztea» dute helburu, eta hauen arteko pasabideekin «larrialdiei erantzuteko esku-hartzea azkartzea» bidenabar.

Obra Publikoen eta Azpiegituren zuzendaritza orokorrak aurreikusi duenez, Belateko tunela bikoiztean, Almandozko tuneleko lanak eta bi hauen arteko errepideko lanak egingen dituzte. Akitzeko, oraingo tunelak ere berrituko dituzte.

Gizakunde ospatuko dute arizkundarrek eta erratzuarrek ilbeltzaren 27an

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko ilargi betearekin batera egingen dute Gizakunde eguna urtarrilaren 27ko ilunabarrean. Arizkungo plazan hasiko da desfilea, eta handik Erratzurat joanen dira mozo-roak. Herriari buelta eman eta plazan erreko dute Jantzi-ilo, urteko txar guziarekin batera. Ondotik, afaria egingen dute Erratzuko elkartean eta bestak gauean segituko du Xamingoxo DJarekin.

Partaideak 16:00etan Arizkungo Gamioxarrean bilduko dira mozorroak prestatzeko,



Mozorroek karririk hartuko dituzte.

eta jendea parte hartzera animatu dute. Horretarako, Zubipuntan paratu dute izena emateko zerrenda. Afariko txartelak erosteko epea urtarrilaren 21ean hetsi zen.



Amparo Lopez kontseilariaren bisita parkera. NAFARROAKO GOBERNUA

230.000 euroko inbertsioa egin dute Oronozko suhiltzaileen parkean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 230.000 euroko inbertsioa egin du Oronozko suhiltzaileen parkean, larrialdiei aurre egiteko azpiegiturak eta baliabideak indartzeko. Egin diren hobekuntzetako bat da balio anitzeko lan eremu bat sortzea; tabikea mugitu daitekeenez, prestakuntza gela, bilera gela, suhiltzaileen parkeko komunikazio-zentroa eta larrialdiak koordinatzeko aginte postu aurreratua izan ditzake. Aldagela eta armaru berriak, atsedendekua eta sukaldea izanen duen egongela ere egin dute.

Ildo beretik, eremuen banaketa aztertu da, eremu bizi-garrietatik parkeko garajerako ibilbideak laburtzeko eta, hartara, larrialdiei erantzuteko denborak hobetzeko.

Zortzi foruzain gehiago Elizondon

Baztanerat egindako bisitan Elizondoko Foruzaingoaren komisaria ere bisitatu zuen Amparo Lopez Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak. Izan ere, aipatu zuenez, ilbeltzaren 8tik zortzi foruzain gehiago ditu komisariak.

Nekazaritza Politika Bateratuaren akordioa onetsi du udalak

Hektarea komunalak pertsona edo sozietate eskatzaileei nola banatu arautzea du helburu akordioak

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 2an aurtengo Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB/PAC) akordioa onetsi zuen Baztango Batzar Nagusiak aho batez. Onuraduna izateko, orain arte bezala, derrigorrezkoa izanen da Baztango ustiatzaren erroldan agertzea, eta biztanleen erroldan bi urteko antzintasuna betetzea. Sozietateen kasuan, helbide fiskala Baztango udalerrian egotea ezinbertzekoa izanen da.

Hektareen banaketa proposamenak haztaren positiboa du lehen instalazioko proiektua duten abeltzain gazteen dako, baita sektoreko profesionalak diren eskatzaileendako ere. Horrela, ATPak, lehentasunezko ustiatziaz eta gazteak positiboki ponderatu nahi dituzte. Hau da proposatutako haztaren sistema:

- **Ez profesionalak:** Oinarria
- **ATP (ez lehentasunezkoa):** Oinarria + % 10
- **Lehentasunezko ustiatziaz:** Oinarria + % 20
- **1. instalazioaren ustiatziaz:** Oinarria + % 70

NPB kanpaina hasi aitzinetik, laguntza eskatu duen pertsonaren erantzukizuneko adierazpena aurkeztu behar da udalean. Horretarako, adierazpenaren eredu bat paratuko dute eskatzaileen eskura. Bertan, eskatzaileak zehaztu behar du zenbat abelburu eta zein motatakoak dituen, eta non alhatzeko asmoa duen, hau da, Baztango bazkalekuetan (Erdiz, Belate, Lizartzu...) edo larrean.

Hektareen onuradun izateko, guttieneko egun kopuru bat eskatuko dute larrean edo bazkalekuetan alhatzeko. Behiek eta ardiek guttienez bi hilabete eta erdi eman behar dituzte komunalean, eta zaldi aziendek guttienez lau hilabete.

Aziendak bazkalekuetan basozainen presentzian sartuko dira, eta sartzeko egunak ordenantzetan daudenak izanen dira. Horiei, kasu bakoitzeko, hurrengo larunbata gehituko zaie. Hektareak esleitzeko muga, orain arte bezala, 200 hektareakoa izanen da eskatzaile bakoitzeko.

Elizondoko Herriak 4.490 euroko defizita izan du 2023an

TTIPI-TTAPA

Errege egunean joan den urteko kontuak aurkezteko baztarrak egin zituzten Baztango herrietan, eta Elizondon ere 2023ko diru-sarrerak eta gastuak aurkeztu zituzten. Herriak 4.490,82 euroko defizita izan du.

Alde batetik, diru-sarrerak 162.693,36 eurokoak izan dira. Horien artean, sartze haundienak hurrengoak izan dira: Elizondoko bestak (39.627,45 euro), feriak (25.035 euro), etxesariak (50.040,07 euro), hilerrikoak (13.038,63 euro)

eta bertzelakoak (inauteriak, Txokotoko bestak eta konpartsa 19.359,30 euro guztira).

Gastuak, berriz, 167.184,18 eurokoak izan dira. Horien artean, gastu haundienak hurrengoak izan dira: Santioako Feriak (11.639,97 euro), hilerrikoak (9.327,73 euro) eta bertzelako ekintzak (Konpartsa, Txokotoko bestak, inauteriak, Orakunde eguna, Gau Beltza, xulubitariak, Olentzero... barne, 43.004,16 euro guztira).

Jose Manuel Iñarreak Kilimanjaro mendia igoko du Apoyo Dravet elkartearen alde

TTIPI-TTAPA

2019an hasi zen Jose Manuel Iñarrea Rekarte erratzuarra munduko mendirik altuenak igotzen, Dravet sindromea ikusgarritasun emateko. 2.000 metrotik goitiko 50 mendi tontor baino gehiago igo ditu orain arte, haien artean Aconcagua (6.961 metro), Mont Blanc (4.809 metro), Cervino (4.478 metro) eta Atlas mendikatea.

Iaz, Pirinioetako bortz mendi adierazgarri bortz egunetan igotzea izan zuen erronka. Aurten, berriz, Afrikako men-



Iñarrea Cervino mendian 2021ean.

dirik altuenera igotzea du helburu; Tanzaniako Kilimanjaro gailurra (5.895 metro). Igoera otsailaren 5ean hasia aurreikusitako da, eta asmoa 6an kaskorat ailegatzea du.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttppi.ttapa

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

Baztango Korrika Batzordea urtarrilaren 31n

Martxoaren 14an hasiko da aurtengo Korrika eta prestaketa lanei ekiteko, batzarra egingen dute Baztanen urtarrilaren 31n, asteazkena, 18:00etan Elizondoko Suinki euskaltegian. Korrika martxoaren 15ean 13:16ean sartuko da Baztanerat Izpegitik.



Joxan Oiz Arrutik irabazi zuen beka joan den urtean. ONDIKOL

VIII. (H)ilbeltza beka martxoaren 8ra arte zabalik da

Núria Cadenes idazle katalanaren *Guillem* eleberria itzultzeko izanen da 6.000 euroko beka

TTIPI-TTAPA

Martxan da euskal literatura beltza sustatzea helburu duen (H)ilbeltza beka, Baztango Udalak, Txalaparta argitaletxeak eta (H)ilbeltza elkarteak antolatua. Iaz nobela baten idazketa saritu zuten, aurtengo deialdiak eleberri baten itzulpena lagunduko du; Núria Cadenes idazle katalanaren *Guillem* nobela beltza.

Beka 6.000 eurokoa izanen da, bi zatitan emana. Parte hartu nahi dutenek eleberriaren lagin bat itzuli beharko dute. Laginak eta lehiaketaren oinarriak eskuragarri daude

ilbeltza.eus, baztan.eus eta txalaparta.eus webguneetan.

Lanak martxoaren 8ra arte aurkezten ahalko dira udaleko erregistroan. Epaimahaiko kideak Baztango Udaleko Fernando Anbustegi, Txalaparta argitaletxeako Garazi Arrula Ruiz eta (H)ilbeltza elkarteak izendatutako Beñat Irastorza izanen dira.

Irabazlea apirilaren 30a baino lehen jakinaraziko dute. Horretarako, kontuan hartuko dute aurkeztutako laginen kalitatea, aberastasuna eta sorburu testuarekiko balioki-detza.

Anizko inauterien ondotik, Berroetan asteburu honetan

Anizko eta Berroetako gazteak Anizen bildu ziren joan den asteburuan, Baztango urteko lehenbiziko inauteriak ospatzeko. Ortziralean elkartean egin zuten afaria, eta ondoko egunean gosaltzeko bildu ziren. Ondotik, etxez etxe ibili ziren trikitilariekin batera egun guzian. Gauean elkarterat bueltatu ziren, bildutako puxkekin afari eder bat egiteko eta besta luzatzeko.

Asteburu honetan aniztarrak Berroetarat joanen dira, eta inauteriek egitarau berdinarekin segituko dute.

Ornoz-Mugairin ere inauteriak izanen dituzte asteburuan

Urtarrilaren 25ean, 26an eta 27an ospatuko dituzte inauteriak Oronoz-Mugairin.

Ortzegunean Pixtu ostatuan gosalduta baserri biserri ibiliko dira eskean, eta Pixtun egingen dute afaria. Ortziralean gosaldon Oronozen ibiliko dira eskean, eta Urgainen afalduko dute. Larunbatean Mugairi eta Zozia auzoen txanda izanen da, eta gauean adin guzietako herritarrak bilduko dira afaltzeko eta dantzaldirako. Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariak ibiliko dira hiru egunetan haiekin.

Sahararen aldeko ekitaldiak martxoaren 1ean

Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren eguna da otsailaren 27a, eta Saharaztaneke ekitaldiak prestatu ohi ditu egun honen bueltan. Aurtun ere elkarretaratzea eta mahai ingurua egingen dituztela jakinarazi dute, martxoaren 1ean Elizondon. Elkarretaratzearen lekua eta ordua zehaztu gabe dituzte oraindik, baina mahai ingurua Arizkuneganean izanen da ondotik. Errefuxiatuen kanpamentuetan osasungintza nola lantzen den, emakumeekin bereziki, izanen dute solasgai.

Onddo Cup areto-futbol txapelketa Aste Santuan

Joan den urteko arrakasta ikusita, Baztango areto-futbol txapelketa antolatu du aurtun ere gazte talde batek, Onddo Cup izenpean.

12 talde parte hartzen ahalko dute txapelketan, 15 lagunekoak gehienez. 650 89 00 08 telefonoan eman beharko da izena, deituz edo Whatsappez idatzita.

Martxoaren 23ko asteburuan eta Aste Santuko egunetan egingen dute txapelketa, eta lortutako dirua Biziraun eta Saray elkarteendako izanen da.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean






deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

Errespetu faltekin kezkatuak daude ostalariak

Eskualdeko instituzio publikoekin harremanean sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina abian paratu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Eguberrietan gertatu dira azken ezbeharrak, eta egoerarekin kezkatuta, Baztan-Bidasoaldeko zenbait ostalarik ahotsa goratzea erabaki dute. Sektoreak jasaten dituen errespetu faltekin kezkatuta, eskualdeko ostatu eta jatetxe batzuen ekimenez urratsak egiten hasi dira hainbat ostalari, eta sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina bat abian paratzea dute helburu.

Atxikimendua emateko tenorea

Kanpaina horren atariko, eskualdeko ostalarien atxikimendu masiboa lortu nahi dute. Horretarako, lehenik eta behin, eskualdeko instituzio publikoekin harremanetan paratu dira, eta dagoeneko elkarlanean ari dira Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Malerreka eta Bortziritako udalekin; eskualdeko Mankomunitateekin; Baztan-Bidasoa Turismo Elkartearekin, baita Nafarroako Ostalaritza Enpresa Txikien Elkartearekin (ANAPEH) ere.

Eskutitza

Baztan-Bidasoa Turismo Elkartearen eta Baztan, Bertizarana, Bortzirriak, Malerreka eta Xaretako udalen bitartez, eskualdeko ostalari guztiei ekimenaren berri emateko eskutitza igorri zaie, eta haien atxikimendua eskatu. Ostalariak urtarilaren 31 arteko epea dute atxikimendua adierazteko, eta ondotik, jendaurrean kanpaina aurkeztuko dute, prentsa agerraldi batean.

Kanpainak tratu onen ikuspuntutik oinarritzko heziketaren printzipioa aintzat hartuko du, baita sakonera jo ere: ostalaritzako lokaletan gertatzen diren errespetu faltak, jokabide sexistak, homofoboak, klasistak eta arrazistak etetea da helburua.

Ekimenarekin bat egin edo informazio gehiago nahi duten ostalariak Baztan-Bidasoa Turismo Elkartearen info@baztan-bidasoa.com helbide elektronikora idatzi behar dute edo 948 59 23 23 telefono zenbakira deitu (10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ortziralerara).



Bortziritako Mankomunitateak erosi berri dituen kamioietako bat. UTZITAKOIA

SEULA enpresak bilduko du errefusa eta materia organikoa Bortziritan

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Bortziritako Hondakinen Mankomunitateak SEULA enpresari esleitu dio errefusa (edukiontzi berdea) eta materia organikoa (edukiontzi marroia) biltzeko zerbitzua, urtean 267.080 eurotan (BEZa barne). Kontratuak bi urteko iraupena izanen du hasieran, eta urtebeterako luzatu ahal izanen da, gehienez bortz urte arte. Beraz, kontratu osoa betetzeko, Mankomunitatearen gastua 1.335.400 eurokoa izanen litzateke bortz urtean bi zerbitzu horietarako.

Errefusa astean lau egunetan biltzen da Beran eta Lesakan, eta hiru egunetan Arantzan, Etxalarren eta Igantzin. Zerbitzu horiek indartu egiten dira udan, herriko bestetan, ekitaldi berezietan eta, orokorrean, zerbitzuak hala eskatzen duenean. Materia organikoa astean hiru egunetan biltzen da. Gainera, zerbitzu honen barrenean sartzen da industrialdeetan etxeko hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak (errefusa, materia organikoa eta ontzi arinak) biltzea.

Zerbitzu horiek emateko lau langile (hiru gidari eta peoi bat) eta bi kamioi ditu mankomunitateak; bat hiru ardatzekoa eta bertzea bikoia. Guxtienez ordezkapen-kamioi bat ere badago, bietako batek matxuraren bat duenerako.

Bi kamioi berri

Hondakinak biltzeko kamioien batez bertzeko bizitza 10-12 urtekoa da, eta gaur egungo kamioiak 2011n eta 2013an erosi ziren. Beraz, Mankomunitateak bi kamioi berri erosi ditu, 192.866,18 eta 203.049,92 eurotan (BEZa barne).

Hiru ardatzeko kamioia errefusa biltzeko baino ez da erabiltzen, eta bi ardatzeko kamioia bi hondakin moten artean txandakatzen da, eta astean bi egunetan errefusa biltzen du, eta astean hiru egunetan materia organikoa.

Mankomunitateak bi dirulaguntza eskatu ditu kamioi horiek erosteko. Baina ez dago inolako dirulaguntzarik hondakinak nahasiak biltzeko, errefusa. Beraz, materia organikoaren zati proportzionalerako baino ez da jaso, eta guztira 120.000 euro inguru izanen dela kalkulatu da.

Bortziritan gaur egun biltzen diren hondakinen ia erdia errefusan nahastuta daude, baina ez luke guztizkoaren % 5-10 baino gehiago izan behar. Zati horrek, beraz, diru eta ahalegin handia eskatzen dio Mankomunitateari, eta bai zerbitzua bai inbertsioak, tasekin ordaindu behar dira oso-osorik. Gainera, nahastuta bildutako hondakin gehienak ezin dira bereizi birziklatzeko eta ingurumenean arazo aunitz sortzen ditu.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
HARRIEN MANTENTZUA



Bestak antolatzea da gazteen komitearen lanetako bat. ARTXIBOKOA

Bestetako gazteen komitean aldaketak egin dituzte

Urtarrilaren 12ko urteko lehen bileran, kolore gorria paratu dute aurtengo inauterietarako gaia

ARANTXA ETA IRAIA

Xaretako herrietan herriko gazteriak antolatzen ditu herriko ihauteri eta bestak, herriko etxearen dirulaguntzarekin. Hortaz, urtero bortz laguneko komitea izaten da gazte guztien laguntza gidatu eta behar diren ardurak hartzen dituen. Aurtengoan, urtero bezala, komitearen erdia aldatu egin da. Iban Blanco, Imanol Iribarren eta Jon Irigoienek haien postuak utzi eta hiru lagun berriri utzi die te segida. Lorena Arozarena, Andoni Cenoz eta Maialen Jaurena izanen dira Eneko

Halty eta Iraia Jaurenarekin batera boskotea osatuko dutenak.

Otsailaren 11tik 13art ihauteriak

Urtarrilaren 12an, ortzirale arratsalde, gazteen urte hasierako bilera egin zuten nesken eskola zaharrean. Bilera horretan hainbat gai landu zituzten eta aurtengo ihauterietako gaia ere aukeratu zen. Aurtengoz, ihauterietarako mozorrorik pentsatu ez duenarentzat, kolore gorria paratu dute gai gisa, horrek inpirazioan lagunduko al du!

San Anton eguna ospatu dute berriz ere nekazariak

Joan den urtean San Anton eguna ospatzeko aukerarik izan ez bazen ere, urte beteko pausaren ondotik, aurten nekazarien urteroko zita berreskuratu dute. Urtarrilaren 17an, asteazkenez, elizan meza izan ondotik, Otsondo ostatuan 20 lagun inguru elkartu ziren.

Sagardotegiko irteera martxoaren 16an Adunarat

Udaberriarekin batera sagardotegi denboraldia hasten dela aprobetxatuz, urdazubiarekin ere ateraldia antolatu dute. Martxoaren 16an izanen da eta Aduna sagardotegirat joanen dira. Herriko gazteen komiteko edozeinekin mintzatuta eman daiteke izena.

362 bizilagun zituen herriak 2023. urte hasieran

Aldizkari honetako erreportajeko datuei erreparatuz, 362 bizilagun zituen herriak 2023. urte hasieran. 2010. urtean baino bat gutiago zen bakarrik, baina 2000. urtean baino 30 gutiago. 1960an, ordea, 546 bizilagun zituen Urdazubik eta 1981ean, 537.

Lanbideen Foroa egingen dute otsailaren 3an Senperen

TTIPI-TTAPA

Senpereko Herriko Etxeko Kultura eta Animazio sailak antolatuta, hirugarren aldiz Lanbideen Foroa egingen dute otsailaren 3an, larunbatean 09:00etatik 12:00etara Larreko kulturgunean. Hainbat lanbide ezagutu eta orientazio profesionala aukeratu nahi duten gazteei zuzenduta dago foro hau. Une pribilegiatua profesionalak ezagutu eta solasak elkar trukatzeko. Edizio berri honetan, hainbat jarduera-sektoretako profesional anitz izanen dira beren esperientzia partekatzeko prest. Nekazaritza, ingurumena eta natura, ikuskizuna, komunikazioa, eraikuntza, kirola, ondarearen kudeaketa, irakaskuntza, segurtasuna eta bertze hainbat arlotako profesionalak.

Lehen ikuspegia

Truke- eta elkartzeko aldi horiek aukera ematen dute lan-munduan lehen ikuspegia izateko, funtsezkoa baita gazteen ztat ere, orientazio-ikuspegia osatzeko.

Senpereko Herriko Etxeak jakinarazi duenez, «mundu profesionalari eta haren familiei buruz gehiago jakin nahi duten gazte guztiak dira ongi etorriak!».

Axuri'Arte elkarteak kandidaturen deialdia egin du

Elkarteko bi artista permanentek utziko dute eta kide berriak integratu nahi dituzte apirilaren 1etik goiti taldea osatzeko

GANEX

Axuri'Arte 2016ko martxoan sortu zuten eta Euskal Herriko artisten eta artisauen lana ikusaraztea helburu duen elkarte da. Lokalak Sarako herri barnean ditu, urte osoan idekiak eta kolektiboki kudeatuak diren galeria eta tailer batez osatuak. Urte osoan, tailerrak, kurtsuak eta gaualdi tematikoak antolatzen ditu elkarteak, publikoari idekiak.

Axuri'Arte idekia da astean 5-6 egunez urte osoan, aktibitate bat atxikiz herrian. Heldu eta haurrendako eltzegintza kurtsuak proposatzen ditu urte osoan eta bere erakusketak espazioaren bidez 12 artista, artisau edota kolektibo biziartzatzen ditu. Gaur egun elkarteko bi artista permanentek utziko dute eta kide permanente berriak integratu nahi dituzte taldea osatzeko.

Kide hauek hilabetero hiru egun zerbitzua hartu beharko lukete, funtzionamenduan eta elkarbizitzan parte hartu (bilkurak, kontularitza, komunikazioa, antolaketa...) eta artisten lana ikusarazteko ba-

liabideak garatu. Hori bai, elkarteko kideek ohartarazi dutenez, «Ez dugu buztinlaririk, zeramikaririk, pintorerik, ilustratzailek edo bitxi sortzailek onartuko, anitz ditugulako gure galerian oraindik».

Axuri'Artek urtebeteko en-gaiamendua galdegiten du, apirilaren 1etik goiti. Urtero hitzarmen bat izenpetua izanen da en-gaiamenduaren berritzeko. Interesdunek mezu bat bidali behar dute urtarrilaren 31 baino lehen axuriarte@gmail.com helbidera edo posta arruntez (50, Apezetxeko bidea - 64310 Sara). Informazio fitxa osatua, aktibitate frogak dokumentatuaz, obra eta objetuekin hamar argazki gehienez, ahal bada erakusketetako hiru argazki gehienez eta hitz ttipi bat (ibilbidea eta interesa aurkezteko) bidali beharko dira mezuan.

Axuri-Arteko kide permanentek kandidaturak irakurri eta onartutako eskatzaileekin harremanean jarriko dira elkarriketa bat egiteko. Elkarriketaren ondotik erantzun bat emanen dute.

Apezetxeko bidean euri-urendako hoditeria sortzeko lanak hasi dituzte

Euskal Hirigune Elkargoak obrak hasi ditu urtarrilaren 22tik goiti Apezetxeko bidearen heinean, ur zikinak euri-uretatik bereizteko, euri-urendako hoditeria sortuz. Hilabete bat eta erdi iraunen duten obra horiek zirkulazio-trabak sortuko dituzte.

Errepidea hetsia izanen da Apezetxeko bidean, baina elizako aparkalekuan aparkatzen ahalko da. Tokiko biztanleen etxeetara sartzea begiratua izanen da, oinezkoendako bide bat antolatua izanen baita xantierraren denboran. Hondakinen bilketarako edukion-



Goienetxe eta Oronoz, pilota goxoarekin txapela irabazita. ARTXIBOKOA

Ania Oronoz eta Marie Goienetxe elite mailako binakako Master txapelketan

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko pilota goxoko txapelketan txapeldun izan ondotik, bertze urrats bat eman eta Emakume Master Cupek eskuz binakako Master Laboral Kutxa txapelketan pilota mistoarekin elite mailako txapelketan parte hartzen hasi dira aurten lehen aldiz Ania Oronoz eta Marie Goienetxe saratarrak. Lehen partida urtarrilaren 21ean jokatzekoa zuten Eskoriatzan (Gipuzkoa), Arraiza eta Arribillagaren kontra eta bigarrena urtarrilaren 28an Larrabetzun (Bizkaia), Arrizagalaga eta Erasunen kontra, pilotalekua inauguratuz gainera. Lehen aldia da ipar Euskal Herriko pilotariak elite mailako txapelketan parte hartzen dutela.

Denera bederatzi bikotek parte hartuko dute elite mailan, hiru multzotan banatuak.

B multzoan ariko dira saratarrak eta arestian aipatutako bertze bi bikoteak. A multzoan Aldai-Zabala, Beitia-Mendizabal eta Uriarte-Capellan ariko dira eta D multzoan Garai-Oses, Etxegarai-Gaminde eta Ibarrola-Bergara. Multzo bakoitzean lehen postuan sailkatutako bikoteak eta bigarren onena sailkatuko dira martxoaren 3an Elgoibarren (Gipuzkoa) jokatu diren finalerdietarako. Finalerdietako irabazleek martxoaren 17an jokatu dute finala Arrasateko Uarkapen (Gipuzkoa) eta galtzaileek hirugarren posturako lehia astebete lehenago, martxoaren 10ean Laudion (Araba). Finalerdiak eta finala zuzenean emanen ditu Euskal Telebistak.

Bertze hiru kategoriatan ere ari dira emakumeak, 72 pilotari denera.

tzi gurpildunak lekuz aldatuak izanen dira xantierraren toki-ko bi muturretara. Erabiltzaileek zorrozki errespetatu beharko dituzte ezarriak diren aldi baterako seinaleak; hauek lekuz aldatuak izan daitezke xantierra aitzinatu arau. Herriko Etxeko kontseiluak jakinarazi duenez, «ahal dugun guztiak eginen dugu nahasmenduaren iraupena ahal bezain bat murrizteko».

Uda garaiko lanpostuak ideki ditu herriko etxeak

Herriko langile taldea indartzeko uda sasoinan Herriko Etxeak lan postuak idekitzen ditu (igerileku zerbitzua, zerbitzu teknikoa, Haur bilgunea eta lezea). 2024ko maiatzaren lehen 17 urte eginak dituzten herriko ikasleei erreserbatuak dira. Galdeak hilaren 31 aitzin.



SPUCeko pilotariak bizpahiru kantua abestu zituzten. JL BESSONART

Urtea agurtzeko kantari aritu ziren pilotariak elizan

SPUC Pilotako neska-mutikoen ondotik Gurashow taldea ere aritu zen abenduaren 27ko emanaldi bikainean

JL BESSONART

Elizaren gerizan, sekulako kantaldia eskaini zuten abenduaren 27an, SPUC Pilotaren ekimenez. Aurten ere antolatzailleek, xumeki baina ongi prestatua zuten kantaldia. Ekitaldia auresku kantatuarekin abiatu zuten pilotari gazteek eta neska eta mutikoez bizpahiru kantu ezagunekin eman zieten erreleboa, pilotari eta arduradun helduei. Hauek ozenki, beren ohiko moldean, kantu emanaldi bikaina eskaini zuten. Zer erran, ondotik, borts izarretako Gurashow taldeak hartu zuelarik



Gurashow taldekoak kantari.

segida: hemen senti zen profesional munduari hurbil zabiltzanak, bai musika aldetik, baita koreografian eta, nola ez, boza xoragarri eta ongi landuekin ere.

'Là-Bas' antzezlana ikusgai igandean Larrekon

Euskal Elkargoaren ekimenez plazaraturiko *Là-bas* (Han) antzezlana Larreko antzokian ikusgai izanen da hilaren 28an, igandean 17:00etan. Bi emazte leku hertsu batean bizi dira, ez dakite noiztikana baina galdera daukate: ea bertze mundu bat izan daitekeen. Ikusmina suspertu behar luke hitzordu honek. Aitzinetik, Donibaneko Scaramuccia antzerki eskolak *Passons aux actes* festibala eskaini zuen urtarrilaren 19, 20 eta 21ean Larrekon, beraien denboraldiari amaiera emateko.

Jantzi, arropa eta oinetako bereizketa

Gizartea ohartzen hasia da sobera produktuk finitzen dutela hondarkindegietan lurperaturik edo errausturik. Hauetan anitzeri bigarren bizi bat eman dezaiekegu eta horretan saiatzeko deialdia egiten ari dira erakundeetatik. Hala nola, etxean debaldetan pilotzen ditugun oihal, jantzi, arropa edo oinetako biltzeko ontzi bereziak baditugu inguruetan. Galdegina zauku indar berezi bat egitea, biltzeko horren eramaiteko baldintza hoberenetan, guztion mesedetan.



UTZITAKOA

Herriko bi artisten lanak ikusgai

Bi artista senpertenaren obren deskubritzeko aukera eskaini zaigu herriko etxeko ezkontza gelan urte hasieran. Sylvie Estaynou eta Elisabeth Lopezek beraien talentua aurkeztu dute estilo arrunt desberdinetan. Bakoitzak bere nortasuna adierazten du obra horien bitartez.

Otsailaren 3ko ihauterien aitzinetik zakuzaharrak etxez etxe dabilta

Otsailaren 3an iraganen diren Ihauterien prestakuntzetan ari dira Balekibale elkarteak kideak. Etxez-etxe ibiltzeko ohidura dute, egitarauen partekatze eta, batez ere, beraien dantza, kanta, musika eta irriak eskaintzeko auzoetan. Jadanik Olha, Ibarrun, Amotzen

eta Urgurin ibiliak dira eta Hergarai auzoan hilaren 27an ibiliko dira. Lehengo galderak zioen «Xingar eta arroltze, bat edo bertze, biak hobe», eta hari beretik ibiliko dira. Harrierarik onena merezi dute beren animazioekin, bazterrak eta bihotzak alaitzeagatik.



Aurten ere auzoz auzo dabilta ihauteriak iragartzen. ARTXIBOKOA



Joseba Aldabe igantziarrak lehen urratsak eman ditu Enpresen Ligako profesionaletan, ASPErekin. ASPE

«Altunarekin partidaren bat jokatzeari da nire ametsetako bat»

JOSEBA ALDABE ETXEBERRIA IGANTZIKO PILOTARI PROFESIONAL BERRIA

Afizionatutan eta Garfe enpresarekin eskarmentua pilatu ondotik, 27 urterekin Asperekin debuta egiteko aukera ailegatu zaio atzelari igantziarrari. Hasi berria bezain beteranoa dela erran daiteke

AITOR AROTZENA IGANTZI

Joseba Aldabe Etxeberriak (Igantzian, 1996ko maiatzaren 19an jaioa) bi urteko kontratua sinatu du Aspe pilota enpresarekin eta abenduaren 8an egin zuen debuta Donostiako Atano III.a pilotalekuan. 27 urteko igantziarrak Dariorekin jokatu zuen estreinako partida hura, eta galdu egin zuen Zabala eta Erostarberen kontra. Geroztik, astero jokatu du partidaren bat eta garaipenak ere lortu ditu. Enpresen Ligako profesionalekin debuta egin arren, mantenimendu elektrikoan lanean segitzen du Iruñeko Arroyo Técnica Industrial SL enpresan eta bi lan horiek bateratzen segitu nahi

du. Zazpi bat urterekin hasi zen Aldabe pilotan herrian eta 12 urterekin Berara joan zen, 14rekin Doneztebeko Erreka eta 21ekin Iruñeko Obereña klubera. Garfe enpresan ere ibili da igantziarra. Urteotan hainbat garaipen eskuratu ditu eta horien artean nabarmenezkoa da iaz munduko txapelkun izan zela eta Josetxo Etxandi Lezoko torneoaren irabazlea. 2021ean,

«PILOTA IA UZTEKOTAN NINTZELA DEITU NINDUEN ASPEK»

berriz, Biharko Izarrak pilota txapelketan txapela jantzi zuen. **Abenduaren 8an debutatu zenuen... Nola gogoratzen duzu hain egun berezia??**

Egun hagitik polita izan zen. Jende aunitz etorri zen partidua ikustera eta niri animatuzera. Momentuan bertan ikusi ez nituen jende aunitz ere egon zen. Partidua ez zen nahi bezala atera baina sentazioak ez ziren batera txarrak

«NIRE IDOLOA ABEL BARRIOLA DA ETA BERE ANTZA IZATEA NAHI NUKE»

izan. Bai kantxan, baita ondoko argazki eta afaritan ere aunitz disfrutatuta nuen.

27 urterekin debuta Asperekin... dagoeneko esku pilota uzteko asmotan zintela ere aipatu duzu... Azken urtetan enpresek pilotari gazteagoak hartzeko joera zuten eta ez nuen esperantzarik nahiz eta jende aunitzek erran nik debutatuko nuela. Gainera, lan enpresaz aldatzeko intentzioa nuen, aunitz bidaiatzen den enpresa batera. Horrek, pilota bigarren plano batean uztea ekarriko zuen. Kontratu berria firmatu baino lehen deitu ninduten Aspetik, beraz, pilotan segitu eta ez nuen enpresaz aldatu azkenean.

Zure kasuan, hain heldua izanik debutatzeak, zer du ona eta zer du txarra?

Alde onen artean azpimarratuko nituzke urduri ez jartzea, partiduak nola jokatu ulertzea, akats gutxiago egitea... Alde txarrean erreparatu, gehienbat gazteek duten freskotasan falta, profesionaletan egoteko urte gutxiago dituzula...

Debutean galdu, baina geroztik zenbait partida jokatu dituzu, batzuk irabazi ere... Espero zenuena topatu duzu? Zein helburu jartzen dizkiozu zure buruari?

Debutean pilotaren abiadurak ezustean harrapatu ninduen eta ez nintzen kantxan ongi kolokatzen. Ez nuen ia denborarik izan haiekin entrenatzeko ere, dena hagitik azkar joan baitzen. Hala ere, aunitz entrenatzen ari naiz eta nik uste gero eta hobeki moldatzen naizela. Banekien afizionatu mailatik profesionaletarara aldatzea handia egonen zela, baina nik uste nire beteranotasunak aunitz lagundu didala. Helburu bezala, partidu aunitz jokatu, ahalik eta gehien hobetu eta profesionaletan bi urte baino gehiago egotea da. **Enpresen Ligako Profesionaletan debutatu aitzinetik, ibilbide oparoa egin duzu afizionatutan eta Garfe enpresarekin ere... Zein txapelketa nabarmenduko zenituzke?**



Aldabe pilota astintzen bere debutaren egunean, abenduaren 8an Atano III.ean.

Nik uste txapelketarik garrantzitsuen eta zailena Espainiako txapelketa izan dela. Bertan afizionatu mailako pilotari onenak jokatzeko dute eta txapelketa luzea denez maila ona eman behar da denbora luzez. Gainera, honi esker Munduko txapelketan egotea lortu genuen eta finala jokatu ez bagenuen ere, txapeldun suertatu ginen. Garfe enpresan ere jokatu hiru binakako txapelketak irabazi nituen.

Zein ezaugarri ditu Joseba Aldabe pilotariak? Zer da daukazun onena eta zertan hobetu nahiko zenuke?

Nik uste pilotari gogorra naizela. Akats gutti egiten ditut eta defentsa lanetan ongi moldatzen naiz. Pilota moztzen eta aireko jokoan ere ongi moldatzen naiz. Hobetu beharreko gauzen artean, atzera botatzeko mugimenduak ongi egitea da lan gehien ematen didana. Aunitzetan frontisean altura hartzea kostatzen zait eta horretan ari gara lanean. **Pilotarien artean, zein da zure idoloa edo ispilua eta zeinekin edo zeinen kontra jokatzeko gustatuko litzaizuke?**

Nire idoloa txikitatik Abel Barriola izan da eta bere antza izatea gustatuko litzaizuke. Oso pilotaria zen eta berarekin identifikatua sentitzen naiz. Ez zait inporta noren kontra jokatu, baina Jokin Altunarekin partidua bat jokatzeko da nire ametsetako bat.

Txapelketa ofizialen batean sar-tzea gustatuko litzaizuke? Zerbait aipatu dizu enpresak?

Azken bi astetan Eskuzaren ordezkari jokatu dut Egiuren V.arekin Serie B-ko binakako txapelketan eta bi partidua irabaztea lortu dut. Ez da obsesionatzen nauen zerbait. Partidua astero izaten ari naiz eta hagitik kontent nago alde horretatik.

Astegunetan entrenatu eta zure lanarekin bateratu, asteburuetan partidak... Nola moldatzen zara? Asti libre sobera ez zaizu geldituko... Denbora libre zertan ematea gustatzen zaizu?

Entrenamendu fisikoak astelehen, asteazken eta ortzirale arratsaldetan izaten ditut eta egun horietan goizez lanera joaten naiz. Astearte eta ostegunetan pilota entrenamenduak izaten ditut, normalean goizez, eta egun horietan ez naiz lanera joaten. Baina pilotan aritzea niretzat asti libre izatea bezala da. Aunitz disfrutatzen dut eta orain nire ofizioa bihurtu den arren, ez dut lantzat jotzen. Denbora libre lagunekin, ilobekin edo familian ematea gustatzen zait. Serieak ikusi edo ordenagailuan jostatzea, mendira joatea edo edozer gauza egitea ere bai.

Pilotaz aparte, gustuko duzu bertze kirolen bat? Edo gustuko bertze kirolariren bat?

Nik praktikatzeko, mahai tenisa aunitz gustatzen zait, padela eta frontenisa ere bai. Telebistan ikusteko tenisa aunitz gustatzen zait eta tenislarien artean Alcaraz, Djokovic eta Sinner dira nire ustetaz ikusgarrienak.



Joan den urteko pilotu eta kopilotu onenak Lesakan egindako ekitaldian.

Nafarroako Automobilismo Federazioako urteko sariak Lesakan banatu dituzte

A. AROTZENA LESAKA

Nafarroako Automobilismo Federazioak 2023 urteari dagokion sari banaketa egin zuen urtarrilaren 13an Lesakako Harriondoa kultur etxean. Asfalto gaineko rallyei dagokienez, Doneztebeko Unai Apezetxea pilotua eta Eneko Mitxelena kopilotu saritu dituzte (Iklasea), Amaiurko Andoni Kamino kopilotua (IV), Doneztebeko Hodei Ariztegi kopilotua (VI) eta Arizkungo Julen Mendiberri pilotua eta Erratzuko Mairu Garisoain kopilotua (X). Eneko Mitxelenak junior mailako kopilotuen saria hartu du. Lur

gaineko rallyetan, pilotuen lehen saria hartu du Iñaki Ubiria lesakarrak eta kopilotuen 2. saria Etxalarko Julen Maiak. Mendiko rallyetan, monoplatzetako pilotuen lehen saria Doneztebeko Andoni Blasentzat izan da eta turismoetako pilotuen 3. saria Berako Joseba Beola-rentzat. Autocroseko car cross dibisioan, Etxalarko Imanol Vicentek hartu du lehen saria. Slalomean, turismoetan lehen saria Lesakako Joseba Lekuonak eskuratu du eta bigarrena Sunbillako Inhar Amenabarrek eta monoplatzetan, 2. saria, Etxalarko Imanol Vicentek.



EGUR SPORT

Binakako Urrezko Aizkolariak Leitzan

Urrezko binakako aizkolari txapelketako jardunaldia izan zuten ilbeltzaren 14an Leitzako Amazabal pilotalekuan. Hamar enborrak moztzen lehenak Iker Vicente eta Arkaitz Etxebeste izan ziren, Eneko Otaño eta Julen Larrea III.a bigarren eta Jon Rekondo eta Oihan Larretxea hirugarren.

AGENDA

URTARRILAK 25 - OTSAILAK 8

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ONDIKOL

Inauteriak

Areson, Leitzan, Arantzan, Igantzin, Sunbillan, Zubietan, Iturenen, Aurtitzen, Berroetan eta Oronoz-Mugairin.
Inauterietako gehigarria 31. orrian.

MUSIKA

LESAKA

Nafarroako X. Trikitixa Jaialdia

Harriondoan, urtarrilaren 27an, 17:30etan.

Pascual Aldaveren jaiotzaren mendeurreneko piano emanaldia

Harriondoan, otsailaren 3an, 19:00etan. Sarrerak 8 eurotan.

ELIZONDO

Ojos violeta taldearen kontzertua

Txokoton, urtarrilaren 28an, 18:00etan.

Ezinezkoa taldearen kontzertua

Txokoton, otsailaren 2an, 22:00etan.

BERA

Musika eskolako perkusio entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 29an, 18:00etan.

Musika eskolako klarinete eta saxofoi entzunaldia

Musika eskolan, otsailaren 5ean, 18:00etan.

Musika eskolako trikitixa entzunaldia

Musika eskolan, otsailaren 6an, 18:00etan.

Musika eskolako inauterietako kontzertua

Musika eskolan, otsailaren 7an, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

SENPERE

'Là-Bas' antzezlana

Larrekon, urtarrilaren 28an, 17:00etan.

LEITZA

Slapstik ikuskizuna

Ekain-txou.
Herri Aretoan, urtarrilaren 31n, 18:00etan. Sarrerak 5/7 eurotan.

Zinema

Herri Aretoan, otsailaren 3an eta 4an. 17:00etan 'La ermita' eta 19:30ean 'Wonka'. Sarrerak 4/5 eurotan.

BESTAK

ARIZKUN / ERRATZU

Gizakunde

Urtarrilaren 27an, ilunabarrean.

BERA

Kaldereroak

Illekuetatik, otsailaren 3an, 19:00etan.

ARESO

Santa Ageda bezpera

Pake Tokitik, otsailaren 4an, 17:00etan.

LEITZA

'Agira-agirando'

Otsailaren 4an, goizez.

Santa Ageda bezpera

Plazatik, otsailaren 4an, 18:30ean.

SOLASALDIAK

BERA

'Euskararen egoera gaur egun. Zer diote datuek?'

Iñaki Lurrebasorekin.
Berlandetan, urtarrilaren 25ean, 19:00etan.

'Hona bostekoa!' komiki bildumaren aurkezpena

Berlandetan, urtarrilaren 26an, 18:00etan.

LESAKA

'Hogar emocional'

Dasya yoga zentroan,
urtarrilaren 26an, 19:00etan.

'Los años del silencio' liburuaren aurkezpena

Alvaro Arbinarekin.
Liburutegian, urtarrilaren 31n, 18:30ean.

SENPERE

Lanbideen foroa

Larrekon, otsailaren 3an, 09:00etatik 12:00etara.

NIRE AUKERA

(H)ILBELTZA

BERROETA

'Carvalho Euskadin' liburuaren aurkezpena

Jon Alonsorekin.
Gure Ametsa elkartearen,
urtarrilaren 25ean, 19:00etan.

IRURITA

'Mirande, film baterako zirriborroa' dokumentala

Josu Martinezekin.
Gizarte Bilgunean, urtarrilaren
26an, 19:30ean.

ELIZONDO

'Sorgin-ehiza Euskal Herrian' mahai ingurua

Amaia Nausia Pimoulier, Asisko
eta Juainas Paul Arzakekin.
Arizkunenean, urtarrilaren 27an,
11:00etan.

'Erraiak etsai' itzuli beltza Beartzunen

Plazatik, urtarrilaren 28an,
10:30ean.

Izu-gar-irrizko bertso saioa

Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta
Saioa Alkaizarekin.
Arizkunenean, urtarrilaren 28an,
19:00etan.

ERRATZU

Liburu aurkezpenak

Ernesto Praten 'Mendeku
eskubidea', Mikel Begoñaren
'Hiru etxe Santa Monikan' eta
Xabier Lasaren 'Ura ez baita beti
gardena'.
Elkartearen, urtarrilaren 27an,
17:00etan.

'Eblatz: Susmagarrien gaua'

Herrian barna, urtarrilaren 27an,
18:30ean.



«Inauteriak aldatu badira ere, esentzia berdin mantendu da»

URTZI LOIARTE IRIBARREN IGANTZIKO INAUTERIZALEA

«Igantziko gizon lasaia eta umoretsua» da Urtzi Loiarre Iribarren, «ttiki-ttikitan etorri ginen herrira, eta hemen gelditu gara». Bestazalea dela aitortu du, «orain guttiago, baina lehen larunbatero etxetik kanpo egoten ginen». Eta noski, inauteriak ere gustuko ditu; «herriko bestak edo inauteriak, aukeran inauteriak nahiago ditut».

Ohiturak mantentzen

Ttiki-ttikitatik atera izan da, «herrian barna mozorroak ikusten nituenean euren ondoan ibiltzen nintzen. Hori dut lehen oroitzapena».

Geroztik, «inauteriak aldatu dira, baina esentzia berdina da. Gauzak aldatzen dira, noski, lehen bertze giro bat genuen oraingo gazteen konparatuta. Baina guri

ere gauza bera erran ziguten sartu ginenean. Hala ere, ikusten da segida badela eta mozorroak denbora luzez izanen ditugula».

Izan ere, «mozorro egun horiek aski politak izaten dira. Herriko hainbat adinetako jendea biltzen gara eta etxez etxe ibiltzen gara elkarrekin. Etxeetan izaten dugun harre-
ra ere hagitz polita izaten da. Inauterietan pentsatzean, hori da gehienok burutan duguna».

Etxean egindako mozorroak nahiago

Etxez etxe ibiltzeaz gain, «larunbat ilunabarrean bertzelako mozorroak izaten ditugu, bakoitzak berea». Aitortu duenez, «gaur egun mozorroak erosi egiten ditut, baina lehen etxean egiten zizkidaten. Amak eta izebak

egiten zizkidaten eta horietan ditut oroitzapenik hoberenak: pantera arrosa, sevillanaz, aita santuz... mozorro aunitz izan ditut eta aunitz disfrutatu dut horiekin». Lagunarteko irriak ere ezinbertzeakoak izan dira, «inauterietan irririk gabe, gaizki. Umorea behar da!».

Orain guraso izanda, «bertze modu batean» disfrutatzen ditu inauteriak. «Goizeko mozorro kontu horiek alde batera utzi ditugu, eta umee-
kin bazkalondoko ekitaldie-
tara joaten gara. Baina disfrutatze-
ko modu bat badugu beti». Haurrek ere «mozorrotzeko aukera eta beren ekitaldiak izaten dituzte. Haien artean elkartu egiten dira eta inauteri giroa ikusten dute, eta ez zaie gaizki heldu sartzen hasteko».

Etorkizunera begira

Aurtengo inauterietako «gogotsu» dago, «gai bat aukeratzen dugu eta familia guztia berdin mozorrotutata ateratzen gara. Aurten ere pentsatzen ari gara zertaz mozorrotuko garen».

Inauteriak maite baditu ere, «beti bada zer hobetu». Igantziko kasuan, «gazteenen parte hartzea. Biltoki eta Biltoki Ttiki ditugu, eta ttikiek parte hartze handiagoa izatea gustatuko litzaidake». Horrez gain, «udalaren parte hartzea eta laguntza ere eskertuko genuke».

**«INAUTERIETAN
UMOREA
BEHARREZKOA
DA BETI»**

**«ORAIN BERTZE
MODU BATEAN
DISFRUTATZEN
DUGU»**

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

DONOSTIA. Pisua salgai. 299.000€, egoera onean. 65 m², 4. pisua, parking-a. 3 logela, 2 balkoi, eguzkia egun osoan. Autobus/tren geltokiak eta autopista bertatik bertara, hondartza/mendia 5 minutura.. ☎617 24 97 99.



OIZ. Etxe galanta salgai, bi familia-koa. 300m² eta 342m² lorategia. 325.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



DONEZTEBE. Pisua salgai, 61m² eta trasteleku-logela komunarekin apartegantze ganbaran. Berritua. 114.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



LEGASA. Pisu polita salgai, berritua, 94m², balkoiarekin. 120.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).

LANA

ESKAINITZAK

LESAKA. Lindurrenbordea sagardotegian asteburuetan lan egiteko zerbitzari euskalduna behar dute. ☎948 63 72 12.

SUNBILLA. Ariztigain Kanpinean urtarril erditik aitzinera sukaldari, zerbitzari eta garbiketari aritzeko langileak behar dituzte. ☎636 48 83 00 edo 660 79 82 49.

BERA. Ibardingo Benta Peion saltzaileak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

URDAZUBI. Dantxarineko Benta Peion saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

LUZAIDE. Luzaideko Benta Peion saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

BERA. Ubela mekanizazio eta gal-daragintzako tailerlean bulegoko teknikaria behar dute. Mekanizazio eta Diseinuan Goi Mailako Gradua izatea eta CAD eta CAMen programazioan esperientzia izatea beharrezkoa da. administracion@ubela.net. ☎948 63 11 67.

BERA. Errekalde ostatuan zerbitzaria behar dute ortzirale eta larunbatetan aritzeko. Interesatuak idatzi

errekaldeostatua@hotmail.com helbidera.

BERA. Gasolindegian lana egiteko langilea behar da. Presakoa. ☎ 629 08 35 67. urbicain@infonegocio.com.

IGANTZI. Irrisarrilanden martxoan hasita urte osorako zerbitzaria behar dute. Lanaldi osoan. Zerbitzari lanetan esperientzia izatea, gida baimena izatea eta beste hizkuntzak jakitea kontuan hartuko da. Bezeroen arreta, mahai eta erreserben kudeaketa, inbentarioan eta stockean laguntzea, eta kaxaren kudeaketa izanen dira batik bat zereginak. CVA bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

IGANTZI. Irrisarrilanden martxoan azarora aritzeko monitore bila. Lanaldi osoan. Abentura parkeko instalazioetan lan egiteko, hainbat

adinetako taldeekin aritzeko eta mendi ibilaldiak gidatzeko aukera. Gida baimena izatea kontuan hartuko da. CV-a bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

URDAZUBI. Fagoa etxean, ekainetik irailera lanaldi osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. Deitu edo idatzi. ☎600 83 84 48 edo anna@fagoa.eus.

SUNBILLA. Espelosin Eraikuntzak enpresak langileak behar ditu. ☎619 41 69 59.

IGANTZI. Irrisarrilanden martxoan azarora garbiketa lanetan aritzeko langile bila. Lanaldi osoan. Logelaren, komunaren, igogailuen, pasilloen eta beste eremuen garbiketa egiteko. Gida baimena izatea kontuan hartuko da. CV-a bidaltzeko: rrhh@irrisarriland.com. ☎948 92 89 22 / 948 92 89 13.

ESKARIA

Neska bat interna ariko litzateke. ☎667 22 17 51.

Mutiko gaztea lan bila. Lanerako gogoz, azkar ikasten duena. Fabrika eta ostalaritzan esperientzia duena. Lanean hasteko prest. Autorik gabe, baina gidabaimenarekin. ☎600 67 99 85.

Ordu batzuez lanean aritzeko prest. ☎628 09 04 98.

Neska gaztea arratsaldean txakurrak zaintzeko prest. ☎682 45 33 71.

ZERBITZUAK

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Jose Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Collie arrazako zakur polit hau oparitzeko. Mendian ibiltzea asko gustatzen zaio. ☎948 58 11 36.

Zakurkume emeak oparitzeko. Ama Border Collie da. ☎690 15 46 44.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Estra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Estra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,19 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €


ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 91,50 €

Zerri gizona 1,634 €

Zerramak 0,840 € kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
ilbeltzaren 5etik 12ra bitarteko
prezioak)



Spaniel Breton arrazako txakurra, emea, sei urtekoa, opari emateko. ☎620 73 50 89 / 669 95 41 35.

SALGAI

10 ardi mutur gorri ernari salgai. ☎607 89 09 66.



2 urteko txerria ahardia salgai. ☎639 85 89 05

DENETARIK

SALGAI

Motoan ibiltzeko ekipazioa (kaskoa, botak, galtza, kazadora...) eta hes-tebeteak mozteko makina salgai. ☎610 94 35 88.



Festuca, bazka (forrajea) eta lastoa salgai. Balotak edo fardoak lau edo sei sokakoak. Lasto pikatua ere bai. Ekoizleak gara. Salmenta zuzenean abeltzainei. ☎607 45 70 04.

Maiatz-belarra eta urribelarra salgai. ☎618 96 27 74.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Urtarrilaren 7an Illekueta auzoan aurkitu dituzte, belar tartean. ☎646 28 03 96.

MOTORRAK

SALGAI

Renault Clio Zen salgai. 2016. urtekoa. Egoera onean eta gutxi erabilia. WhatsApp ere erantzunen da,



16:30etik aurrera. ☎605 02 46 51 (erdaraz) eta 646 28 73 16 (euskaraz).

TAILERRAK

GANIX

 948 63 06 69
 Zalain Pol., 11 - BERA
 EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT TALISMAN TCE 150 EDC
 Aldagailu automatikoa - Gasolina
 57.500 Km - Nabigatzailea,
 klimatizatzailea, kristal tindatuak...
16.500€
www.talieressantesteban.com
 DONEZTEBE - T. 948 450 282
 info@talieressantesteban.com

Mendaur Motor
 Leitzako bidea • DONEZTEBE
 T. 948 450 333
Kotxe salmenta | Marka guztiak
Kotxe berriak
SUZUKI SX4 S 1.6 120 CV.

NISSAN QASHQAI 2.0 150 CV.

www.mendaurmotor.com

Panelak
 Aluminioa, PVC, metakrilatoa edo HPL
 Neurrira eginak, formarekin moztuak, formatu handiak, iraunkorrak...

KULTURKARI
 Diseinu grafiko | Publizitate
www.kulturkari.com

Herencias y Gestión

Zenbat ordaindu behar diot Nafarroako Ogasunari herentzia bat onartzeagatik?
 Foru Ogasunari ordainduko zaion zenbatekoa kausatzailearekin dugun ahaldetasun mailaren eta herentziak duen balioaren arabera izanen da beti. Zenbat eta ahaldetasun handiagoa izan, hala nola gurasoengandik seme-alabengana, aitabi-ama-biengandik bilobengana, ezkontideen artekoa... (odolkidetasuneko lehen maila da), orduan eta txikiagoa da aplikatzen den tarifa. Lehenengo 250.000 euroengatik ez da zergarik ordaindu behar, baina kopuru handiagoek ere portzentaje nahiko baxua ordaintzen dute. Oinordekoak ahaldetasun urrunagokoak edo 5. mailakoak direnean, eta herentzia hiru milioi eurotik gorakoa denean, orduan herentzia osoaren % 48 ordainduko da.

Zer egin behar dut ezkontidea hil denean eta harekin ermandadeko testamentua egin badut?
 Heriotza-agiria nire esku dagoenean, lehenik azken borondateen ziurtagarria eskatu beharko dut, herentzia onartu ahal izateko. Nahitaez eskuratu behar da agiri hori ermandadeko testamentua edukita ere, herentzia onartzeko tramiteak egin behar direlako. Ez da beharrezkoa notarioarengana joatea. Beraz, tramiteak errazagoak eta merkeagoak izanen dira, baina nire ezkontidearen ondasunak onartzea beharrezkoa da haren ondasunak nire izenean jartzea nahi baldin badut.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

OROIGARRIA

Ramoni LOIARTE ARANBURU
 Beran, 2023ko abenduaren 3an,
 93 urte zituela

*Gure amaxi maitea,
 zenbat une goxo magiko
 ez direnak inoiz hilko
 zinenez bihotz haundiko
 gure oroitzapenetan
 biziko zara betiko.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Leire PAGADIZABAL IGARZABAL
*Gora kopak elkar hazi eta hezi den
 familia dozena honengatik.*

OROIGARRIA

Leire PAGADIZABAL IGARZABAL
 Lesakan, 2024ko urtarrilaren 14an

*Eman eta erakutsi
 diguzun guztiagatik,
 gure bihotzetan
 egonen zara betiko.*



TANTIRUMAIRU IKASTOLA

OROIGARRIA

Leire PAGADIZABAL IGARZABAL
 Lesakan, 2024ko urtarrilaren 14an

*Itxaropena galtzeko beti da goizegi.
 Segi dezagun orain arte bezala
 elkarrekin bizitza ospatzen.
 Aunitz matte zattugu.*

ZURE KUADRILLA

HILBERRIAK

- **Dominique Acheritogaraia**, Sarakoa, abenduaren 27an, 82 urte zituela.
- **Miguel Zabaleta Arregi**, Leitzakoa, urtarrilaren 6an, 79 urte zituela.
- **Lourdes Mikelarena Martirena**, Berakoa, urtarrilaren 8an
- **Angel Bayones Mitxelena**, Erratzukoa, urtarrilaren 8an, 75 urte zituela.
- **Arantxa Eraso Alduntzin**, Leitzakoa, urtarrilaren 12an, 47 urte zituela.
- **Leire Pagadizabal Igarzabal**, Lesakakoa, urtarrilaren 14an, 22 urte zituela.
- **Felisa Irisarri Apeztegia**, Donamariakoa, urtarrilaren 14an, 81 urte zituela.



IZARRA
 HEMEN, ZURE ONDOAN
 ANIMA ETZAN



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

Gure larra,
 gure jendea,
 gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
 tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
 Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



BAZTAN
 BIDASOA
 Heriotza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
 BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
 MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
 ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
 365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

URTEBETETZEAK



Narbarteko **Luaia Zubigarai Bertizek** urtarriaren 21ean urte bat bete du. Zorionak familia guztiaren partez. Muxu haundi bat!



Aresoko **Maddi Barandarin Iraolak** 6 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak etxeko nexka handiari!! Ilargiraino eta buelta eta buelta eta buelta... maite zaitugu!




Arraiozko **Aiora Arraztoa Agerreberek** urtarriaren 22an 11 urte bete ditu. Aunitz urtez **Aiora!** Espero dugu egun eder bat pasa izana!! 11 muxu haundi!!



Arraiozko **Urko Arraztoa Agerreberek** 5 urte beteko ditu otsailaren 7an. Aunitz urtez **Urko!** Egun eder bat pasa dezazula!! 5 muxu potolo!!



Urtarrilaren 19an Donamariako **Harri Gereka Otxandorenak** 3 urte bete ditu. Zorionak eta patxo bat etxekoan partez! Zer merienda goxoa prestatu diguzun!




Haunditzen-haunditzen, hasi naiz haunditzen...Urrozko **Ibai Matxiñenak** 6 urte bete ditu urtarriaren 18an. Muxu potoloak familiaren partetik!!!



Zorionak tiki!! Otsailaren 13an 3 urte beteko ditu Berako **Lukene Mikelarena** gure etxeko sorginak. Ongi pasa eta muxu erraldoi bat familiaren partez!



Kattalin Ordoki Hualde eta **Eneko Ordoki Agesta** osaba-ilobek urteak beteko dituzte otsailaren 1ean eta 5ean. Zorionak familia guztiaren partetik eta ederki pasatu inauterietan.



Aizpea Terreros Alzugarai eta **Aia Mitxelena Terreros** lehengusinek otsailaren 4an 8 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak eta muxu aunitz Jose atxiren partez.


KONTATU KONTUAK



Pentsiodunen elkarretaratzea Elizondon. Urteko lehenbiziko elkarretaratzea ibeltzaren 15ean Elizondoko plazan egin zuten Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduko kideek. Sei urte pasatu dira pentsiodunen mugimenduak karrikara ateratzen hasi zirenetik, eta lortutakoaren erreposoa egin zuten. Egindako lorpenak txalotzearekin batera, «argi» utzi zuten «orain arteko borroka dinamikarekin segitu beharra dagoela». Hurrengo hitzordua otsailaren 19an Beran egingen dute, 12:00etan Toki Ona institutuko atarian.



Palestina hizpide Beran. Richard Weyndling eta Txuri Ollo aktibistek Palestinari buruzko solasaldia egin zuten urtarriaren 15ean Beran. Palestinaren historiari aritu ziren, gaur egungo egoerara nola ailegatu diren ere kontatu zuten, eta etorkizunari buruz ere solastatu ziren. 40 lagun inguru elkartu ziren, eta herritarren zalantzak ere argitu zituzten.



Ekhi Uharteren erakusketa Leitzan. Abenduan hasi eta ibeltzaren 14ra arte Ekhi Uharte artistaren margolanak ikusteko aukera izan zen Leitzako Herri Aretoan. Hainbat koadro jarri zituen ikusgai areto barruan, zein kanpoko erakusleihoan. Uharteren erakusketari ihoteei buruzko erakusketak hartu dio lekukoa Leitzako Herri Aretoan.

SUDOKUA

Bete itzazu hutsuneak HIZTUN hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (H, I, Z, T, U eta N). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



ZORIONAK!
NAHIA ALMANDOZ AIERZA

845. aleko irabazlea zara!



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera.
Eman handienari 1 zenbakia eta txikienerari 9.



Marrakikiak: Garbifé Ubeda (Aharri)



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

MEZU GORDEA

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esatera zahar bat agertuko zaizu.



Row 1: Broccoli, Apple, Pear, Banana, Peach, Strawberry, Apple, Cucumber, Kiwi, Peach, Bread, Cucumber, Strawberry, Kiwi.

Row 2: Strawberry, Apple, Strawberry, Kiwi, Broccoli, Carrot, Cucumber, Banana, Apple, Kiwi.

Row 3: Peach, Strawberry, Apple, Peach, Broccoli, Carrot, Cucumber, Kiwi.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?

BILATU

Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoak, arrautzak, zizak, fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?



Ttípi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

845 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Karlos Alzugarai De Santiago | BERA

Buatxabal - Kamiseta bat
Maidor Mallot | ZUGARRAMURDI

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Ana Sarobe Mitxelena | IRUÑA

Irrisarri Land - Sarrera bat
Jose Antonio Mindegia | BEINTZA-LABAIEN

Martiko - Lote bat
Jose Jabier Bertiz Goñi | IRURITA

Salting Iruña - Bi sarrera
Ana Odriozola Bazo | DONEZTEBE

Elkar - Liburu sorta
Lourdes Azpiroz Zabaleta | LEITZA

Izar Park - Sarrera bat
Maite Erro Garcia | LESAKA

Baga-Biga - Hiru CD
Gillermo Quertier Munarriz | ELIZONDO

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumos.com



Bi sarrera

ONDOO TA PUNTO
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

SALTING IRUÑA
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

IBAIZABAL
www.ibaizabal.com



Liburu sorta

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttípi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttípi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.



Deskontuak eta zozketa: Ttípi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttípi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

LIBURUAK

Hiru liburu



 **Picarona**
www.picarona.net